HAUTESKUNDE PROGRAMA (2019-2023)

EAJ – PNV

DONOSTIA

AURKIBIDEA

SARRERA.ENEKO GOIA 4

1. HIRI OPAROA 6

1.1. TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA 7
1.2. ZIENTZIA ETA FORMAKUNTZA 9
1.3. LURRALDEKO ENPRESENTZAKO ZERBITZUAK 11
1.5. TURISMO IRAUNKORRA 13
1.6. GURE MERKATARITZA 16
1.7. KALITATEZKO OSTALARITZA 17

2. ETXEBIZITZA BEHARRA.- BIZITZEKO HIRIA 18

2.1. ETORKIZUNA GAZTEENTZAT 18
2.1.1.Etxebizitzaren Plan Zuzentzailea garatzea, 4.000 etxebizitza berri izateko asmoz 20
2.1.2.Eusko Jaurlaritzarekin lankidetza-hitzarmena 20
2.1.3.Etxebizitzak zatitzea ahalbidetzea 20
2.1.4.Gazteentzako alternatiba: bizitokia izateko formula berritzaileak eta errotazio-bizitokiak 21
2.1.5.Prozedurak hobetzea udal etxebizitzen adjudikazioetan eta erabilera-kontroletan 21
2.1.6.Irisgarritasuna hobetzea, igogailuak instalatuta 22
2.1.7.Prezio itundua duten alokairuak bultzatzea: neurri fiskal eta legal berriak. Etxebizitza hutsa. 22
2.1.8.Etxebizitzaren zerbitzu publikoari beste orientazio bat ematea: bizitza osorako etxebizitza, laguntzarako zerbitzu berria. 23
2.1.9.Turismoaren hazkundeak etxebizitzan duen inpaktua kontrolatzea 23
2.1.10. ..... Esku-hartzea etxegabetze-kasuetan 23

2.2. HIRIA GIZA ESKALAN. PLANGINTZA INTERES OROKORRAREN ZERBITZURA. .. 24
2.2.1.Urumea ibarra, hiri-berroneratzea eta etxebizitza berriak: 25
2.2.2.Tabakalera eta horren ingurunea, Egia balioan jartzea 26
2.2.3.Bi auzo berri Ibaetako ibarrean: Infernua eta Illarra 27
2.2.4.Altza: Jolastokieta eta Eraikuntzaren Institutua 27
2.2.5.Erdigunea: Easoko trenbideetako hondartza 28

2.3. KLIMA 2050 ESTRATEGIA. MUGIKORTASUN JASANGARRIA. 29
2.3.1.Mugikortasun jasangarria 31
2.3.2.Energia: 33
2.3.3.Lurraldea 34

3. GUZTION HIRIA 36

3.1. KOMUNITATEA EHUNTZEN. DONOSTIA LAGUNKOIA HIRI PLANA 36
3.2. KOHESIORAKO GIZARTE POLITIKAK 38
3.2.1.Hiritaren lehen arreta hobetzea 40
3.2.2.Gizarte bazterkeriari aurre egitea 41
3.2.3.Haurtzaroa eta familia: arreta beharra izanik, berezko ahotsa ez duten herritarrak 42
3.2.4.Bortxakeria pairatzen duten emakumeei arreta eskaintzea 44
3.2.5.Zaurgarritasun egoeran dauden adineko pertsonei bere bizitzas proiektua garatzen laguntzea. 44
3.2.6.Beste eragileekin elkarlanean: hirugarren sektorea 46
3.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISOA 47
3.4. KIROLA: OSASUNERAKO ETA GIZARTE-KOHESIORAKO TRESNA 48
3.4.1.Kirol Txartelak eskaintzen dituen zerbitzuak hobetzea eta areagotzea 49
3.4.2.Osakidetzarekin, Gizarte Zerbitzuekin eta beste erakunde batzuekin elkarlanean programa zehatzak ezartzea, honako helburu hauekin: 50
3.4.3. Eskola-kirolean eta kirol federatuan hobekuntzak egitea, kirol-arloan eremu horiek definitzen baitute gure hiria. 50
3.4.4.Kirol-ekitaldi garrantzitsuen antolakuntza sustatzea 51
3.4.5.Emakumezkoen kirola babestea 51
3.4.6.Herri-kirolak babestea eta garatzea 51

3.4.7.Aire zabaleko kirola sustatzea 51
3.4.8.Kudeaketaren hobekuntza eta berrikuntza, ingurumenarekiko konpromisoa txertatuz 52
3.4.9.Anoeta kiroldegia. Berrantolatzeko proposamena zehaztea 52
ilunbe 53
3.4.10. 53
3.5. GAZTERIA. GAZTERIA-POLITIKAK. 53
3.5.1.Beste udal-politika batzuekin koordinatzea 53
3.5.2.Haurtzaroaren, nerabezaroaren eta gazteriaren atalak zehaztea eta sortzea 54
3.5.3.Gazteriaren zerbitzua ikusgai egin dadila sustatzea 54
3.5.4.Haurtzaroaren, nerabezaroaren eta gazteriaren atalak sendotzea 54
3.5.5.Hezkuntza-eragileekin koordinatzea 55
3.6. HEZKUNTZA 55
3.6.1.Udalarekin harremana eta koordinazioa 56
3.6.2.Donostiako Haurreskolen Sarea 56
3.6.3.Eraikinen mantentzea eta inbertsioak 57
3.6.4.Aniztasunaren balioa 57
3.6.5 Irakurzaletasuna sustatzea 58
3.6.6.Zeharkako proiektuak 58
3.6.7.Hiri Hezitzailea 58
3.6.8.Musika Kontserbatorioa 58
3.7. ETORKINAK DONOSTIAN 59
3.8. HIRI SEGURUA 61
3.8.1.Herritarren segurtasuna 61
3.8.2.Herri-babesa eta suhiltzaileak 63
3.9. HIRI IRISGARRIA 64
3.10. GUNE ETA ZERBITZU PUBLIKOAK 65
4. ERREFERENTZIAZKO HIRIA 70
4.1. EUSKARAEN HIRIBURUA 70
4.2. DONOSTIA KULTURAREN ETA SORMENAREN EUSKAL HIRIBIRUA 74
4.2.1.Donostia Kultura. Donostiako kultur jardueren ardatza 76
4.2.2.Kultur etxeen sarea 77
4.2.3.Kalitatezko kultur ekipamenduak 78
4.2.4.San Telmo Museoa 79
4.2.5.Kultura elkarlanean 80
4.2.6.Etorkizuneko gertaerak: Cristina Iglesiasen proiektua Santa Clara irlan eta Urgull mendian 83
4.2.7.Hiri-nortasuna: Hiri-ondarea eta ondare arkitektonikoa babestea 83
4.3. GASTRONOMIAREN ERREFERENTE 87
4.4. GIZA ESKUBIDEEKIKO KONPROMISOAREN ERREFERENTE, BIZIKIDETZAREN OINARRI GISA 89
5. KUDEAKETA ERAGINKORRA ETA GARDENTASUNA 92
5.1. GOBERNANTZA 92
5.1.1 Hiritarrei irekitako gobernua: gardentasuna, informazioa eta partaidetza 93
5.1.2 Zerbitzu publikora bideratutako gobernua 93
5.1.3 Kudeatzen duen gobernua: kudeaketa egokia eta berrikuntza publikoa 94
5.1.4 Zuzentasuna, eraginkortasuna eta emaitzak lortzea 95
5.1.5 Kanpo Harremanak.Nazioarteko presentzia. 95
5.2. HIRITARREN PARTAIDETZA 96
5.3. OGASUNA ETA FINANTZAK ZORROTZ KUDEATZEA 99
5.3.1.Diru-sarrerak 99
5.3.2.Gastuak 100
5.3.3 Aurrekontuak 101
5.3.4. Kontratazio publikoa 102

SARRERA.ENEKO GOIA

Zure aurrean daukazun egitasmo zabal honek gure Hiriaren ibilbide-orria izan nahi du hurrengo urteetarako. Azkenaldi honetan, politikan, geroz eta denbora gutxiago eskaintzen zaio programak egiteari eta aurkezteari. Hauteskundeetan gehiegitan epe laburreko txioak erabili ohi dira. Baita politika egiterakoan ere. Hori okerragoa da.

Donostiako EAJ-PNVk garbi dauka epe laburren tentazioari ihes egin eta gure Hiriaren norabidea finkatu beharra dagoela, eta egiten diren proposamenak norabide horri lotu. Izan ere, herritarrekiko zintzo jokatzea dagokigu, zer egin nahi dugun argi azaltzea. Baina norabide horrek partekatua izan behar du. Alegia, alferrikakoa deritzogu Udaletik norabide bat finkatzen saiatzeari, gero hori bat ez badator Hiria osatzen duten agenteen ezaugarriekin eta borondatearekin. Horiek denak uztartuz landu dugu egitasmo hau, gure Hiriaren indargune eta ezaugarriak kontutan hartuta, partekatutako etorkizuna hobea izango baita beti. Garbi dugu, gainera, Udalak laguntzaile izan behar duela finkatutako helburu horiek lortzeko orduan, ez inposatzaile, ezta oztopatzaile ere.

Eta zein da egitasmo honek helburu duen etorkizuneko Donostia? Lerro batean esan beharko balitz, pertsona bakoitzak bere bizi-proiektua baldintzarik onenetan garatzeko aukera eskainiko duen Hiriaz ari gara. Horretarako, aukerak eskainiko dituen Hiria eraikitzen jarraitu beharra daukagu, lan-aukerak emango dituen Hiria, kultura eta norbanakoaren garapena ahalbidetuko duen Hiria.

Donostiak, Gipuzkoaren izaera industrialari erabat lotuta, ezagutzaren hiria izan behar du. Zientzia eta teknologia, zerbitzu aurreratuak eta sorkuntzaren ekonomia dira gure ezaugarriak. Eta hor daukagu lehiakor izaten jarraitzeko bide garbia, ikerketa, garapen eta berrikuntzari lotutako ekonomia garatuz. Horrek emango digu gure gazteei bertan gelditzeko aukerak sortzeko bidea, baita etor daitezkeenak erakartzeko ahalmena ere. Helburu hori lortzerakoan daukagun oztopo nagusietako bati aurre egin beharko diogu, ordea: etxebizitza eskuratzeko zailtasunari. Arazo honek hurrengo urteetan ahalegin berezia egitea eskatuko digu erakundeoi.

Baina edozein bizi-proiektuk, baliabide ekonomikoak izatea baino askoz gehiago eskatzen du. Eta Donostiak hori eskaintzeko gaitasuna izan behar du. Balio partekatuetan sinesten duen komunitate izan behar du gure Hiriak. Guztientzat lekua izango duen Hiria. Giza eskubideen errespetua oinarri hartuta, inklusioaren alde aktiboki inplikatzen dena.

Donostia irekia, europarra, dinamikoa eta askotarikoa eraiki nahi dugu, bere izaera euskaldunetik abiatuta, nortasun hori garatu eta indartuko duena.

Eta hau guztia garapen iraunkorraren aterkipean lortzeko gai izan behar dugu. Garapen iraunkor horrek esparru guzti-guztiei eragin behar die gainera. Giza-garapen iraunkorraz, garapen ekonomiko iraunkorraz eta ingurugiro jasangarriaz hitz egiten ari gara, jakina. Azken honi dagokionez, gure Hiriak bere ekarpena egiteko konpromisoa hartu du mundu osoari eragiten dion aldaketa klimatikoaren aurka borrokatzeko orduan.

Irudikatzen dugun Donostia lortzeko bidean, Udalak eraginkorra izan behar du. Horrek, administrazio gisa, gauzak egiteko modu berriak eta hobeak bilatzera behartzen gaitu, herritarrekin elkarlanean, gardentasunez eta eraginkorrak izanez.

Hau da Donostia hobea lortzeko bidean hartzen dugun konpromisoa eta proposatzen dugun ibilbidea. Izan ere, gure Hiriak aurrera egin nahi du, eta hori denok batera egitea nahi dugu. Gure goiburuak dioen bezala: **BATERA BAGERA, DONOSTIA!**

1. HIRI OPAROA.

Donostia oparo, bizi eta dinamikoago baten alde lanean jarraitzeko konpromiso sendoa dugu, hori baita EAJrentzat hiri kohesionatuago eta zuzenagoa egiteko bidea. Jarduera ekonomikoa garapen iraunkorrerako baldintza da, donostiarrok aurrera egin dezagun. Garapen ekonomikoa ez da berezko helburua, pertsonei zuzendutako garapen ekonomikoa behar dugu, gure ongizateari estuki lotua, kalitatezko enplegua helburua duen garapen ekonomikoa, eta hirian gazteei beren tokia emango diena.

Donostia berrikuntzan oinarrituta nahi dugu, alor berriei ekingo dien hiria eta, aldi berean, gure ohiko sektoreak berritzeko eta sustatzeko erronkari gogoz ekingo diona. Donostiaren ekonomia zerbitzu sektorean oinarritzen da eta, era berean, industriaren alde apustua egin duen Lurralde baten hiriburua dugu. Lurralde osoari ezagutza eta zerbitzu aurreratuak eskaintzen dizkioten azpiegiturak, hein handi batean, hemen kokaturik daude. Donostiak eta Gipuzkoak, elkarlanean, kalitatezko enpleguaren eta garapen ekonomikoaren helburua aurrera aterako dugu.

Donostia lerroturik eta txertaturik nahi dugu -Europan, Euskadin, Gipuzkoan- eta, era berean, tokian tokiko estrategia propioa markatzen: gure ekipamenduak, tradizioak, ahalmenak eta ezagutza indarrean jarriz . Ildo honetatik, alor berriak lantzen eta sustatzen jarraituko dugu.

Hainbat datu

Hiriak sortutako Barne Produktu Gordinak gorantzako joera garbia du. 2015. urtetik aurrera urteko %3 baino gehiago igo da. Igoera zerbitzu sektorean oinarritzen da gehien bat.

Donostiako ekonomia enpresa-ehun oso dibertsifikatuan (txiki eta ertainak batez ere) eta jarduera ekonomiko bizian oinarritzen da (18.888 establezimendu gutxi gorabehera 2017an).

Donostia dinamikoa da establezimendu berriak sortzen, baina ekintzailetza-jarduera murritza du.

Enpleguari dagokionez, 2015. urtean nabarmen hasi zen gorakadak bide beretik jarraitzen du. 2015. urtean Gizarte Segurantzan 107.370 pertsona genituen, eta 2017an 112.554 izan dira. 2014 eta 2017 bitartean sortutako lanpostu berriek krisialdian galdutako lanpostu kopurua bikoiztu dute. Aldi berean, langabezia-tasak nabarmen egin du behera, eta joera horri eusten dio. 2015ean %11,2ko langabezia-tasa genuen, 2017an %9,4ra jeitsi zen eta 2018ko azken datuak kontuan hartuz 8,40koa da, Euskal Hiriburuen artean baxuena: 7.871 pertsona 2018ko irailean.

Hala ere, eta 2019-2023 legealdiari begira enpleguaren alorrean erronka handiak ditugu oraindik: auzoei begiratzen badiegu, langabezian alde handi samarrak daude: hiraren ekialdean altuagoak dira tasak. Datozen urteetan, %5era jeitsi beharko dugu langabezia-tasa, kalitatezko enplegua sortuz, baldintza onekoa eta, emakumeen kasuan bereziki, tenporalitateari amaiera eman.

Zerbitzu sektoreak pisu handia du enpleguan eta, bertan, administrazio publiko, hezkuntza, osasun, gizarte-zerbitzu, informatika-programazio, ikerketa-garapen, eta enpresen zerbitzu aurreratuen

garrantzia azpimarratu behar dugu ohiko ostalaritza eta merkataritzarekin batera. (Enpleguaren banaketa sektoriala Donostian: %20,4 jarduera profesionalak eta osagarriak; %32,4 Administrazioa publikoa, hezkuntza eta osasuna; %24,9 merkataritza, garraioa, eta ostalaritza.)

Hauek dira Donostiako EAJk proposatutako lan-lerroak eta ekimenak

Donostiak, Berrikuntzaren tokiko ekosistema bat osatzen du dagoeneko: Ikerketa zentroak, Unibertsitateak, Lanbide Heziketaren eskaintza, Zentro teknologikoak, Parke teknologikoa, Enpresa guneak, tokiko mikroklusterrak… ingurune erraztailea da Donostia, eta izaera hori indartu behar dugu. Enpresak, sortzeko (batez ere oinarri teknologikokoak) eta talentua erakartzeko azpiegitura handia dugu eta, gainera, erakargarritasun handiko hiria gara.

Honek ez du esan nahi bestelako enpresa-garapenari uko egiten diogunik, fabrikazio aurreratuaren aldeko apustua ere egiten dugu. Eskusaitzeta poligonoaren garapena (1 fasea 2019 eta ll fasea 2023) aukera aparta da, eta Udaletik ahalegin berezia egin behar dugu enpresak eta inbertsioak erakartzeko. Poligono berriaz gain, ezin ditugu ahaztu lehendik ditugun poligono industrialak: 27 Poligonoa, Papin, Portua ingurua… Industria 4.0 bultzatzen dugun bitartean, horren aurreraturik ez dauden PYMEak lagundu beharko ditugu, beren hobetze bidean.

Ahalegin berezia egin beharko dugu genero ikuspegia kontuan hartzeko hiri oparorako bidean: emakumeen presentzia teknologia eta berrikuntza alorretan eta formakuntza eta ezagupide guneetan derrigorrez areagotu behar dugu hiri oparoa eta zuzena sustatuko badugu. 1. Konpromiso honen zehar-lerro garrantzitsua dugu hau.

1.1. TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

Donostiako enpresa-garapenaren, garapen teknologikoaren eta berrikuntzaren aldeko apustua Espezializazio adimenduan oinarritzen da ,eta honen arabera fokalizatu beharko dugu geure ahalegina datozen urteotan. Horrela, Euskal zientziaren eta teknologiaren politikatik bultzatutako jardueraz gain, aukera arloetan edo nitxo estrategikoetan ere jardungo dugu, tokian tokiko “gure mikroklusterrak” indartuz.

Teknologia eta berrikuntza sustatze lan honetan Udalaren papera zeharkakoa da maiz, baina, zuzeneko eragilea ez izan arren, guztiz funtsezkoa da. Hiria erakargarria egitea enpresa handiek beren start up-ak ekar ditzaten, parke teknologiko egokia eskaintzea, lizentzia eta baimenetarako leihatila bakarra eta jarrera abegikorra izatea, edota erakundeen arteko elkarlan eta koordinazio egokia izatea erabakigarriak

izan daitezke teknologia eta berrikuntza ekimenak Donostiara erakartzeko, eta baita enpresen egoitza nagusiak bertan kokatzeko ere.

Gauzak horrela, hauek izango dira gure lehentasunak:

- **Biozientziak** sustatzea. Azken urteotako garapena kontuan hartuz, potentziala begibistakoa da. Miramon inguruan ikerketa zentroek eta Ospitaleek osatzen dute benetako gunea. Goi mailako instalazioa hauek talentu erakarleak dira. Hala ere, Ikerketa alorra sendoa izan arren, gabeziak baditugu ehun produktibora transferitzeko unean. Hastapenetan dagoen industria-sektorea indartu behar dugu. Alor honetan apustua egiteko moduan gaude: Terapia Genikoa, Robotica Medikua, Medical Devices-gailuak... Alorrak garatzeko baldintza onetan gaude.
- **Ikerketa aurreratua** bultzatzea: DIPC (Donostia International Physics center), Tecnalia, Cidetec, Graphenea...
- **Elektromugikortasun gunea** (Mubil 2023) profitatuz, alor honen inguruko industria berritzaileak bertara erakartzea. **Energia berriztagarria eta eraginkortasunaren** alorrak lantzen dituzten enpresak Eskusaitzeko poligono berrira erakartzeko lan espezifikoa egitea.
- **Zibersegurtasunerako Zentro Aurreratua** Zuatzun kokatzeak ematen digun aukera ondo erabiltzea funtsezkoa da alor honetako industriak bultzatzeko.
- **Zaintzearn sektoreak** ematen dizkigun aukera ekonomikoak kontuan hartzea. Askotan aipatzen dugu gure gizartean dugun zahartze prozesua, baina maiz ahazten dugu ekonomia garatzeko eskaintzen digun aukera (Silver Economy). Zaintzek duten, eta izango duten, berrikuntza dimentsioa teknologiaz harago doa. Giza-faktorea oinarrizkoa da zerbitzu-emaileei eta zerbitzu horiek jasoko dituztenei erreparatzen badiegu. Beraz, berrikuntza kontzeptua zabaldu beharko dugu hainbat alorretara (publiko/pribatuen arteko lankidetza, forrmakuntza, lanaren antolaketa...). Hau guztia, laguntza-soluzioen sektorea (teknologia asistiboa) ahaztu gabe. Adineko pertsonen eta/edo desgaitasuna dutenen bizi-kalitatea hobetzeko produktuak eta zerbitzuak garatu behar ditugu. Enpleguan oso garrantzitsua eta balio ekonomikoan gorantza doan sektorea da hau. Jaurlaritzako Lanbide Hezkuntzarekin batera formakuntza lerroak egokitu eta formakuntza duala sustatu behar dugu alor honetan, zaintza sektoreko enpresekin elkarlanean.

Ekonomia sortzailea egituratzen laguntza. Ikus-entzunezkoak eta musikaren alorrekoak, Kulturaren Industria alegia, programaren 4. Konpromisoan, Kultura atalean garatu ditugu**.**

- **Gastronomia alorrean ere I+G+B sustatzea.** (ikus 4*.3. atala Gastronomian erreferentea*) Alor honetan Donostiak lortu duen posizionamenduari eutsi behar diogu, eta hortik aurrera egin;

horretarako gure enpresa eta sukaldariek, Guzti Ona Clusterrak eta batez ere Basque Culinary Center-ek (Estatukoo lehenengo Gastronomia Fakultatea) abiapuntu bikaina ematen digute. Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiarekin elkarlanean Digital Gastronomy Lab berrikuntza-laborategia sustatzea gure konpromisoa da alor honetan.

- **Diseinua alorrerako** estrategia berria aztertzea eta indarrean jartzea. Diseinuaren inguruan industriak, teknologiak, modak, sorkuntzak, berrikuntzak eta abarrek topo egiten dute. Gure industriak, oraindik, ez dio diseinuaren erronkari behar bezala eutsi. Donostian, Donostialdean eta Lurraldean, egon badaude langintza honi ekiteko elementuak eta, gainera, inguru honetako garapen industrialerako osagarri egokia litzateke.

Kiroletan erabiltzen diren teknologia berritzaileen HUBa, ezagutza espezializatua sortzea sustatzeko, kirolen arloko empresa berriak sortzeko eta sektore honetako enpresen arteko aliantzak eta sareak.

Surf City Donostia Clusterra bultzatzea. Dagoeneko lanean ari den Surf clusterra indartzea da helburua. Horretarako, Antondegin Surfaren Poloa sortzea proposatzen dugu, olatu artifizial bat eta ikerketa gune bat sortuz.

- **Donostia Smart City estrategiari jarraipena eta bultzada ematea**. Smart Klusterra lanean ari da dagoeneko gure hirian, baina lan konkretu hauez gain, hiri bat "smart City" bihurtzea zeharkako lan-lerro eta estrategia dugu. Digitalizazioaren bidean, alor guztietan, aurrera egitean datza Smart City bihurtzea. Eragile publiko zein pribatuek digitalizazio bidean aurrera egitea da helburua: Udala eragile garrantzitsua da bere funtzionamendua, herritarrekiko harreman-sistemak, mugikortasun-proiektuak, Txominenea auzoa, ur-kontagailuen digitalizazioa, turismo informazioa sistemak, Kirol eskaintzaren digitalizazioa, edo/ta enpresen digitalizaziorako laguntzak eta elkarlana derrigorrezko eta eredugarriak dira Donostia smart bihurtzeko bidean.

1.2. ZIENTZIA ETA FORMAKUNTZA

Zientziak eta Formakuntzak gizaki libreak egiten gaituzte, eta gure ahalmenak garatzea ahalbidetzen dute. Balore hauez gain, kalitatezko enpleguaren helburua lortzeko tresna nahitaezkoak dira. Jakintza berebiziko aukera da hiriko jarduera aurreratuak garatzeko. Gainera, hiriko enplegu-eskaintza populazioaren prestakuntzarekin bat dator.

Lau Unibertsitate dauzkagu gure hirian eta haietan zentro ugari. Honez gain, eskaintza oso garrantzitsua dugu Lanbide Hezkuntzaren alorrean, ehun-produktibora estuki loturik dauden erdi eta goi mailako graduen eskaintza oso aberatsa da.

Donostiako populazioak prestakuntza maila handia du, gazteen artean (30-34 urte) %60,7k unibertsitate mailako ikasketak dauzka.

Baliabide hauek guztiak elkarlanean jartzeko, honako lan-lerroak bultzatuko ditugu:

Unibertsitateen eskaintza edo/ta bikaintasun alorreko guneen sorrera sustatzea. Atal honetan, Kirolari aplikatutako goi mailako tekonologia zentrua egitea bultzatuko dugu; kirolari aplikatutako ezagutza disruptiboaren kokagune eta sorgune izango dena. Kirol alorreko berrikuntza eta teknologien dibertsifikazioa sustatzeaz gain, ekintzailetza -arduera bere baitan bilduko duena.

Jaurlaritzarekin adostuta, Lanbide Heziketa eta formakuntza duala bultzatzea:

- Lanbide Heziketan Ikasketa-lerro berriak sortu edo aurreikusten dugun eskariari egokitu. Etorkizuneko lan-alorretan pertsonen prestakuntza egokia egitea da helburu, smart eta iraunkorra nahi dugun hirian beren tokia eta lana izateko. Horrela, elektromugikortasuna, eraikuntza iraunkorra, zahartze-prozesu osasuntsua, gastronomia berritzailea, kalitatezko turismoa, kalitatezko ostalaritza eta merkataritza lan-alorrei lehentasuna emango diegu.
- Aipatutako sektoreetan **formakuntza duala** bultzatuko dugu, hiriko sektore ekonomiko eta hezkuntza-eskaintzaren arteko harremana bideratuz, betiere egokitzapen mailarik handiena lortzeko asmoarekin.
- Udal lanpostuak ikasketa duala egiten duten ikasleei ireki.
- 2020an Lanbide Heziketako Munduko Kongresua babestu

Ezagupideen transferentzia ehun produktibora bideratu eta lagundu.

- Start up-ak garatu daitezen Bic-Gipuzkoako Biohabia indartuko dugu.
- Inbertsio publikoa indartzeaz gain, Udalak finantziatzaile eta kide pribatuak erakartzeko estrategia eraginkorra sustatuko du.

Ezagutza zientifikoaren dibulgazioa hirian sustatu eta Zientzia eta kulturaren arteko lotura bideratu.

Passion for knowlege festibala babestu.

Talentua erakarri. Talentua sortzea eta bertan mantentzaz gain, kanpoko talentua ere erakarri behar dugu. Batetik, bere formakuntza jarraitzeko edo lanean aritzeko kanpora joan ziren gazteen itzulera erraztu behar dugu eta, bestetik, atzerriko ikertzaileak ere ekarri behar ditugu. Horretarako, arestian aipatutako “berrikuntza ekosistema” eta ekipamenduak eta hiriak duen erakargarritasuna oso baliotsuak gertatzen dira. Gauzak horrela, honako proposamenak egiten ditugu:

- Bigarren Talent House bat martxan jarri.
- Beste erakundeekin elkarlanean aritu: Jaurlaritza, Foru Aldundiak, Ikerbasque .
- Erakarri nahi ditugunen bestelako beharrak aztertu erantzun egokia eman ahal izateko: Hezkuntz sisteman harrera, *bikotekideentzako* lan poltsa, gizarteratzea…

1.3. LURRALDEKO ENPRESENTZAKO ZERBITZUAK

Eskaintza hau estrategikoa da industria lurralde batean dagoen zerbitzu-hiri batean. Oro har, enpresa zerbitzuen sektoreak sektore dinamikoa eratzen du Donostian eta, arestian aipatu dugun bezala, berebiziko garrantzia du hiriaren ekonomian. Jarduera honen barruan, ekimenak sustatze aldera, hiru lan-lerro lehenetsi dezakegu, kalitatezko enpleguari, berrikuntzari, teknologiaren erabilerari eta ekarpen ekonomikoari estuki loturik baitaude.

Zerbitzu aurreratuak deritzenak (produktu eta prozesu ingeniaritzak, ikerketa, IKT zerbitzu aurreratuak, ingurumen ingeniaritzak eta zerbitzuak, teknologikoak ez diren jarduerendako aholkularitzak…). Enpresarekin konektatutako zerbitzu aurreratu horien jarduerak 5099 establezimendurekin (2017ko behin behineko datua), establezimendu guztien %27 hartzen ditu, eta hirugarren sektorearen, zerbitzu guztien, % 30,6.

Jakintzako zerbitzu intentsiboak eta I+G (edizio jarduerak, zinema jarduerak, bideo jarduerak, irrati telebista programazio eta emanaldi inguruetako jarduerak, jarduera juridiko eta kontabilitatekoak, arkitekturako eta ingeniaritzako zerbitzu teknikoa, publizitatea eta merkatu azterketak…) Enpresa jarduera horietan gutxienez langileen %33k goi mailako prestakuntza dute eta pisu handia dute hirian, 8053 establezimendu, establezimenduen %42,4.

I+G establezimenduak. Gipuzkoako eta EAE osoko I+G jardueraren zati garrantzitsuena Donostian garatzen da, nahiz eta enpresa kopurua apala izan. 2017ko behin-behineko datuen arabera (EUSTAT) 117 I+G establezimendu daude hirian, eta 1699 pertsonari ematen diete enplegua.

Garbi dago, beraz, Donostiak duen `potentziala hiriko eskaintza hau eskualdeko, lurraldeko eta nazioarteko eskariari erantzuteko. Gauzak horrela, EAJ-PNVek proposatzen du:

- Donostia, Zerbitzu Aurreratuen Poloa integratu gisa irudikatzea eta eratzea.
- Unibertistate eta LHko goi mailako zikloetako ekintzailetza sustatzea, bereziki zerbitzu aurreratuen alorrean.

1.4. INDUSTRIA-JARDUERA

Donostia industria nagusi den ingurune eta lurralde batean dago eta, beraz, industriaren pisua nabarmena da, bai Gipuzkoako ekonomian bai enpleguan. Industriak Gipuzkoan duen pisu erlatiboa (%30,9) EAEn (%27) duena baino handiagoa da, eta are handiagoa Europako bataz bestekoaren (%19) aldean.

Industriak Donostian duen pisua nabarmen txikiagoa da; baina, baditugu industriguneak (27 Poligonoa edo Papin poligonoa, hiri-berroneratze bat behar duena) eta, bestalde, Udala urbanizatzen eta komertzializatzen ari da Gipuzkoan izango den industrigunerik handiena: Eskusaitzeta.

Hauek dira gure proposamenak hiru industrigune horientzat:

27 Polígonoa

27 Poligonoa eta GI-2132 errepidea Astigarragatik barrena lotuko dituen bide berria eraikitzea Foru Aldundiarekin eta Astigarragako Udalarekin elkarlanean. Lotura berriari esker, egunean 5.000 ibilgailu gutxiago ibiliko dira Martuteneko biribilgunetik.

Berrikuntza teknologikoa sustatzea industriaguneko enpresa txikietan eta ertainetan.

Industriaguneko espazio hiritarra birkalifikatzea, ingurunean, Urumea ibarrean aurreikusten diren jarduketen esparruan.

Papin

Plan Orokorraren Aldaketa Puntualaren tramitazioa arintzea, industrigune hau finkatzeko. Hala, jarduera berriak ezarri ahal izango dira, edo lehendik daudenak zabaldu.

Industriagunea eta industriaguneko zerbitzuak birantolatzeko eta birsortzeko proiektuari ekitea.

Eskusaitzeta

Eskusaitzeta industriagune bat da, Zubietan dagoena, N-1 errepidearen ondoan. Industriaguneak 290.000 m²-ko eraikigarritasuna izango du, industriarako eta zerbitzuetarako partzelak izango ditu. Gipuzkoako industriagune publikorik zabalena izango da. Industrigunearen titularrak Donostiako Udala eta Eusko Jaurlaritza izango dira, bakoitza %50eko partaidetzaz.

Industrigunean, urbanizazio-lanak egiten ari dira eta, denbora gutxi barru, lehen enpresa-eraikinak hasiko dira.

Udalak eta SPRILURek hitzarmen bat sinatu dute, industriagunearen sustapena elkarrekin bultzatzeko asmoz, bai urbanizazio-lanak egitearei dagokionez, bai partzelak kudeatzeari eta komertzializatzeari dagokienez.

Honakoa proposatzen dugu:

- Foru Aldundiarekin bi hitzarmen sinatzea: bata, Eskusaitzetan Mubil elektromugikortasunaren zentroari lotutako elektromugikortasunaren arloko enpresen polo bat sortzeko; eta bestea, klima aldaketaren zentroa eraikitzeko.

- Industriaguneko urbanizazio-lanen bigarren faseari ekin eta urbanizazio-lanak burutzea.
- SPRILURekin batera mekanismo eraginkorrak garatzea, partzelak komertzializatzeko, interes handiko enpresak erakartzeko, hain zuzen.

1.5. TURISMO IRAUNKORRA

Hainbat alorretan Donostiak duen erakargarritasunari lotuta, eta honen ondorioz, jarduera turistikoak arrakasta handia izan du azken urteotan. Hiriak berezkoak dituen natura, hiri eta kultura baliabide, kalitate handiko zerbitzu eta eta instalazioetan oinarritzen da garapen hau. Gastronomiaren garrantzia nabarmena da erakargarritasuna aztertzerakoan. Esan beharrik ez dago, 2011. urtean ETAren jarduera desagertzeak zerikusi handia izan duela bilakaera horretan. Hiriak zituen benetako aukerak bistan geratu dira.

2010etik hona bisitarien eta gaualdien igoera nabarmena izan da, nazioarteko merkatuak emaitza onak eman ditu, eta denboraldia luzatu da (udaberria eta udazkena.) MICE (bilera, pizgarri eta kongresu turismoa) ere indartu da. Txangoak eta txangolariak ere gehitu dira, bai "opor txangolariak" eta baita Donostialdean, Lurraldean, Elkartean edo inguruko lurraldeetan bizi direnak ere. Txangoen fenomenoak eredu turistiko klasikoari eragiten dio era berezian (trafikoa, espazioaren erabilera, garraioa, Alde Zaharra, merkataritza…) eta eragin hauek ere era berezian kontuan izan beharko ditugu.

2018.urtean, EUSTATen datuen arabera, bisitariak %8,10 gehitu dira eta gaualdiak %9,26 . Azpimargarria da atzerriko bisitarien pisua (establezimendu hauetan gaualdien %57% atzerritarrei dagokie).

Turismoak, ekimen ekonomiko guztiek bezala, ondorioak ditu, onak eta txarrak. Ondorio hauek era desberdinean eragiten dute hirian eta bertako auzo eta zerbitzuetan.

Hiriaren ekonomian Turismoak duen eragina ona da, turismoa BPGren %13 da gure hirian, eta garrantzitsua da enplegu mailan (Exceltur: 3.001 lanpostu hoteletan 2016an). Honi nazioarteko proiekzio eta nabarmentze maila handia gehitu behar diogu. Bestetik, eragin txarrak ere ezagutzen ditugu, besteak beste prezioen igoera, jende pilaketa bereziki gune eta zerbitzu batzuetan, pisu turistikoen hedapena edo gure nortasuna osatzen duten hainbat elementuren banalizazioa.

Hazkunde nabarmen honek eta aldaketa hauek turismo-eredu iraunkorra garatzeko erronka aurkeztu diote hiriari. Donostia aitzindari izan da turismoaren historian, donostiarrok turismoan berrikuntza garrantzitsuak egin genituen XX. mendean eta orain ere, XXI. Mendean, bide berriak urratu behar ditugu gure turismoa iraunkorra izan dadin.

Dagoeneko eutsi diogu erronkari: 2017-2021 Turismo Plan Zuzentzaileak Hiriaren nortasunaren ezaugarriak zaintzearen aldeko apustu garbia egiten du, "edukia" dakarten bisitarien aldeko apustua eginez. Plan honen garapenak herritarrekiko, naturarekiko eta hirigunearekiko bizikidetza egokia ahalbidetzen lagunduko du, hiriaren bizi-kalitatea eta berezko nortasuna mantenduko dituen

garapenaren alde apustua eginez. Planaren epeak kontuan hartuz, hastear dagoen legealdi honetan 2021-2025 planifikazioa ere egin beharko dugu.

Ildo honetatik pausu garrantzitsuak eman dira: Donostia aintzindaria izan da pisu turistikoen hedapena arautzeko eta kontrolatzeko orduan (2018ko martxoan indarrean jarri zen Ordenantza berria), Parte Zaharreko Plan Integrala egin eta onartu da eta, Hirigintza mailan, etxebizitza erabilera duten eraikinak hotel bihur ez daitezen onartu berriak diren neurriek norakoa markatzen dute.

Datozen lau urteetako lan-lerroak Planean oinarritzen dira, eta honako hauek azpimarratzen ditu:

Eskaria egoki segmentatzea, alegia, zein turista mota erakarri nahi dugun Udaletik egingo ditugun sustapen eta merkaturatze ekimenen bidez. Donostiak duen hiri-kalitatea, natura eta paisaia, kultur eta aisialdi eskaintza, identitatea, euskara eta euskal kultura, gastronomia maila, tradizio eta gaurkotasunaren arteko uztarketa… Hots: gure hiriak dituen baloreak bilatzen dituen bisitaria erakartzen saiatuko gara.

Ildo honetatik, honako talde hauek lehenesten ditugu:

- Bisitari kosmopolitak deiturikoak, adituak, bidaiatzen eskarmentua dutenak, destinoan interesa dutenak. Hiria zer den eta zer eskain diezaiekeen ezagutzeko jakin-mina dutenak. Maila ekonomiko ertain eta altukoak dira eta nazioartekoak maiz.
- 20-30 urte bitarteko bisitariak.
- MICE (bilera, kongresu eta pizgarrien antolatzaileak)
- Foodis deiturikoak. Janariaren inguruan interesa dutenak. Gastronomiaz gain, bertako produktua, ekoizpena, merkatuak, kontsumitzeko modua, sukaldatzea,e.a. ezagutu nahi dutenak.

Destino turistiko gisa Donostia eta Gipuzkoaren arteko harremana sendotzea.

Orain arte bide hau urratu dugun arren, derrigorrezkoa dugu Lurraldea eta Hiriaren arteko elkar lana sustatzea. Udaletxearen eraikinean aurki irekiko den Informazioa bulego bateratua tresna garrantzitsua izango da bai bisitariei zerbitzu egokiagoa emateko eta baita bisitarien mugimenduak hobeto kudeatzeko eta banatzeko ere.

Turismoaren garapenak etxebizitza alorrean duen eragina murriztea.

- Etxebizitza turistikoen ordenatzaren jarraipen zehatza egingo dugu. Beste erakundeekin elkarlanean, Jaurlaritza eta Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin, kontrol eta jarraipen zorrotza egingo dugu.
- Etxebizitza turistikoen monitorizazioa egingo dugu, arautegian egin beharreko aldaketak proposatzeko.

Espazio turistikoaren kudeaketa egitea.

- Mugikortasun departamentuarekin batera bisitarien iritsiera ordenatzeko neurriak.
- Garraio publiko eta aparkalekuei buruzko informazioa aldez aurretik eta jatorrian turistei helaraztea.
- Bisitari eta txangolarien espazio publikoetako mugikortasuna aztertzea
- Bisita gidatuen aurretiko antolamendua bisitari gehien dagoen garaietan.
- Bisita gidatuen azterketa egingo dugu. Gida turistiko eta kulturalen profesionaltasun eta kualifikazioa oinarrizkoa da kalitatezko eskaintza batean, 13/2016 Euskadiko Turismo legeak arautzen duen bidetik ordenatuko dugu langintza hau.

Hiri-paisaiaren kalitatea zaintzea.

- Hiri guztietan ematen ari den homogeneizazioari aurre egitea. Parte Zaharreko Plan Integralarekin hasitako bidetik, ordenatzen, eta bereziki esparru publikoren okupazioa arautzen duten ordenantzen jarraipen zehatz eta zorrotza egitea.

Beste alorretako egitasmoen alderdi turistikoa aztertzea eta aurreikustea.

- ”Portaviones” deritzana, bertako itsas produktua bultzatzeko ostalaritza gunea eta itsas kirol gune berriak.
- ”Bretxa berria”, bertako produktuen merkatu berria eta sustapenerako gune berria.
- Ugarteko Itxasargia.
- “Haizearen Orrazia” Euskadiko Kultura-ondasun kalifikatua izendatu eta gero, UNESCOko kultur ondasuna izendatzeko urratsak egitea.

Sektoreari buruzko ezagutza maila sakontzea.

- Behatoki turistikoa. Udal mailako kontrol-mahaia osatzea Hirigintza, Mugikortasun eta Turismo Departamentuetako informazioa integratuz. Honez gain, bestelako informazio iturriak ere kontuan hartu beharko ditugu Donostian turismoaren garapena monitorizatzeko eta neurriak garaiz hartzeko.

Publiko eta pribatuaren arteko elkarlana sustatzea eta turismo politikak indarrean jartzeko finantzaketa hobetzea.

- Tasa turistikoa indarrean jartzea.

Donostia Turismo erakundearen eta Aholku Kontseiluaren egokitzapena.

Erakunde hauek helburu berrietara egokitzeaz gain, gobernantzaren irizpideak ere barneratu beharko dituzte. Horretarako:

- Donostia Turismo bulegoa Udaletxean kokatzea

1.6. GURE MERKATARITZA

Donostiako sektore ekonomikoen artean merkataritzaren garrantzia eta dinamikotasuna nabarmentzen da. Merkataritzak hiriaren eremu metropolitarra gainditzen du, Iparralderaino eta Aquitaniarino iristen delarik.

Era berean, azpimarratzekoa da hurbileko merkataritzak duen garrantzia auzoetako bizimodua dinamizatzen eta hezurmamitzen, bizilagunei zerbitzuak eskaintzeaz gain, bizi-kalitatea eskaintzen du eta derrigorrezko eragileak dira komunitatea osatzeko eta indartzeko.

Donostiako merkataritzaz hitz egiterakoan, ezin dezakegu ahaztu hurbileko produktuen merkaturatzeak duen garrantzia, bai kontsumitzaileari eta baita lehen sektorearen garapenari dagokienez ere. (ikus: 1 Teknologia eta Berrikuntza atalaren Gastronomia puntua)

Txikizkako merkataritza-jarduerak krisiaren inpaktua jasan du, baita kontsumo ohituretan izan diren aldaketen eragina ere (on line erosketa….), eta populazioaren zahartzeari eta belaunaldi aldaketari dagozkionak ere bai. Hala ere, eskaintza zabala da, eta merkataritza dentsitateak (1000 biztanleko establezimendu kopurua) behera egin duen arren, oraindik handia da. 2017an %14,3; (2011n %15,85 eta 2003n %16,56)**.** Sektore honek 2017an 2.769 negozio biltzen ditu, ia horien erdiak erdialdean (%38,4; 1.063 establezimendu) eta Grosen (%18,4; 512 establezimendu). 6.067 langileri enplegua ematen dio sektore honek, eta Erdialdeak enpleguaren erdiak biltzen du (3.356).

Txikizkako saltegi gaineko presioak gora egin du bereziki Erdialdean, kate handiei lotutako establezimenduak ireki izanaren ondorioz. Horrek eragin nabarmenak ditu: estandarizazioa, nortasun eta eskaintzaren aniztasunaren galera, lurzoruaren prezioa ahaztu gabe fiskalitateari eta zerbitzu aurreratuei dagozkien itzulera eza.

Merkataritza eta turismoaren arteko harremana ere aipatu beharrekoa da, Erdialdean du eraginik handiena eta bertan zaindu behar dugu bereziki bertako merkataritzaren iraupen eta hedapena.

Lan-lerro hauek proposatzen ditugu:

- 50.000 m² gutxiago. **Plan Orokorrean** aurreikusita dagoen eraikigarritasun tertziarioa gutxitu, eta etxebizitzarena gehitu hiriko zenbait eremutan (Infernua, Antzieta...)
- **Kate handi** gehiago jarri ez dadin, zoru berririk ez sortu.
- **Hiri barruko merkataritza sustatu**. Berrituko diren auzoetan, etxebizitza dentsitatea handitu, hurbileko merkataritza bideragarri izan dadin.

Hurbileko produktuen merkaturatzea, Bretxa berriaren antzeko ekimenak martxan jarrita.

1.7. KALITATEZKO OSTALARITZA

Donostiak ostalaritza eta sukaldaritzako eskaintza zabala du. 1.364 establezimendu zeuden 2017an (hirian dauden establezimendu guztien %7,2). 2008az geroztik bilakaera negatiboa izan du 2014 arte, urte horretatik aurrera establezimenduak urtero gehitzen dira eta kopurua 2008ko balioetara hurbildu zen 2017an.

Auzoei dagokionez, ostalaritzaren banaketa desberdina da: Erdialdeak ehunekorik handiena kontzentratzen du: 2016an establezimenduen %34, ondoren Gros (%15,1) eta Amara Berri (%10,4).

Sektoreak, gutxi gorabehera, 7.700 pertsonari ematen zien enplegua 2016an (Donostiako enpleguaren %7,6)

Ostalaritza eta sukaldaritzako eskaintza, gastronomia alegia, hiriaren arrakasta turistikoaren zutabeetako bat izan da, baina bisitariez gain, donostiarrok gara lehen erabiltzaileak eta jarduera honi nortasuna ematen diogunok. (ikus 3. konpromisoa)

"Nortasunaz" hitz egiterakoan, kontuan hartu behar dugu eskaintza hau eten gabe aldatuz joan dela azken urteotan, hirian gertatu diren aldaketa ekonomiko eta soziologikoek eragindako aldaketak izan dira. Heriritarrokin lotura honek, jatortasun honek eman dio erakargarritasuna eta arrakasta sektore honi. Globalizazio garai honetan sektore honek izango duen bilakaera eragile endogenoek sustatutakoa izan dadin behar dugu. Eredu guztiek tokia dute hirian, baina bereziki zaindu beharko dugu bereizten gaituena eta sektoreari balio erantsia ematen diona.

Ostalaritzan kalitatea eta nortasuna mantentzea derrigorrezkoa dugu herritarron bizi-kalitateari eusteko eta bisitarientzat erakargarria izaten jarraitzeko.

Honako lan-lerroak proposatzen ditugu:

- **Etorkizunerako eredua** finkatu 1.1. atalean Teknologia eta Berrikuntza esandakoaren ildotik: enpresa ereduak, sukaldaritza tradizionalaren bilakaera, erreleboa…
- **Saturazio guneak** aurreikusi, establezimenduen sorrera eta bilakaera jarraituz.
- Ostalaritza eta bizilagunen arteko **bizikidetza** bereziki zaindu: terrazak, zaratak, zaborrak, ordutegiak…
- Best practices lantzea sektorearekin batera, produktu, aurkezpen, eta abarrei dagokiena.

2. ETXEBIZITZA BEHARRA.- BIZITZEKO HIRIA

2.1. **ETORKIZUNA GAZTEENTZAT**

Etxebizitza eskuratzea bermatzea herritarrek beren bizi-proiektua hirian egin dezaten funtsezko helburua da. Etxebizitza babestuak eraikitzea ahalbidetzen jarraituko dugu eta, aldi berean, dagoeneko eraikita dagoen hiriari begiratuko diogu, gizartearen eskaera berriei eta bizi-ibilbideei erantzuteko.

Donostian etxebizitza eskuratzea, jabetza erregimenean edo alokairuan, ez da arazo berria, ezta gure hiriak bakarrik duen arazoa ere; baina, ezbairik gabe, donostiarron kezka iturri handienetako bat da. Hiria ekonomikoki garatu izanak eta, krisi ekonomikoaren ondoren, susperraldia hasi izanak ondorio kaltegarriak ekarri dituzte: horietako bat etxebizitza jabetzan edo alokairuan eskuratzeko prezioen igoera da. Turismo sektorea ondo doa, ostatu mota berriak sortu dira (etxebizitza turistikoak) eta zerbitzu horiek komertzializatzeko modu berriak ere sortu dira, eta horiek guztiek ere izan dute zerikusia etxebizitzen prezioen igoeran. Hala, Donostiako etxebizitzen salmentarako prezioek gora eta gora egin dute 2015aren amaieraz geroztik, eta ikusi da merkatua argi eta garbi suspertu dela. Alokairuko prezioek ere gora egin dute 2012az geroztik, baina ez dira krisi aurreko mailara iritsi.

Etxebizitza eskuratzeko zailtasuna, bai aurreneko etxebizitza eskuratzearakoan bai etxebizitza pertsonen bizi-ibilbidera egokitzeko behar diren aldaketak egiterakoan, Donostian areagotu egiten da gure hiriak dituen ezaugarri demografikoak direla eta. Behar duguna da gazteek beren bizi-proiektua hemen garatzea eta persona helduek argi eta garbi adieraztea era autonomoan bizitzeko borondatea eta ahalik eta denbora gehien beren ingurukoekin bizitzeko gogoa, baita laguntza behar izanda ere, eta aukera izatea etxebizitza beren bizitzan izan ditzaketen beharretara moldatzeko.

Ez dago konponbide bakar bat, eta beharrezkoa da ikuspegi berriak eta estrategia berriak kontuan izatea etxebizitza berriak eraikitzerakoan ditugun ikuspegi eta estrategien osagarri. 2015-2019 urteetan, Txomin Enea eta San Bartolomeko I. Fasea jarri da martxan, etxebizitza turistikoei buruzko ordenantza berria onartu da eta Etxebizitzaren Udal Plan berria prestatu da. Nolanahi ere, saltzeko eta alokatzeko sustapen berriei (libreak, tasatuak edo babestuak) buruzko proposamenekin batera, ezin dugu ahaztu Donostia hiri finkatua dela eta datozen urteetako eraikuntza berrien eragina mugatua izango dela. Dagoeneko eraikita dagoen hiriari ere erreparatu behar diogu: arauetan malgutasun handiagoa, dagoeneko eraikita dagoena optimizatzeko eta birgaitzeko, hiri espazioak birsortzeko eta zenbait zonatako dentsitatea handitzeko. Horren guztiaren helburua da etxebizitza-eredu jasangarria bultzatzea; malgutasunari esker, gainera,

pertsonen bizi-zikloetako beharretara moldatu ahal izango da eta, eredu desberdinak daudela kontuan izanik, bizi-estilo desberdinei erantzutea posible izango da: etxebizitza bizitza guztirako dioen kontzeptua.

Zenbait datu interesgarri: Egungo etxebizitzen parkea. Guztira, 77.058 etxebizitza zeuden 2017an (Amara Berri %16,3, Erdigunea %13,1, Gros %10,8, Altza %10,7. Etxebizitzaren Udal Plana). Etxebizitza bakoitzean 2,4 pertsona bizi ziren bataz beste, etxebizitzen %30,4tan persona bakarra bizi zen eta etxebizitzen %38,3tan, berriz, 3-5 pertsona. Etxebizitzek 47,6 urte dituzten batez beste eta, milurte berrian, etxebizitzen %10,4 baino ez da eraiki.

Kontuan hartzen baditugu etxebizitzen azalera eta etxebizitzetan bizi den persona kopurua, ikusten dugu azalera eraikia 47,93m² dela, bataz beste, pertsonako. Auzoz auzo begiratuz gero, urkila hau dugu: Altzan 40,22m² eta Miramon Zorroagan 65,93. HAPOk 25m²-ko gutxieneko azalera xedatzen du pertsonako eta neurriz kanpokotzat hartzen da 75m² gainditzea. Donostian, etxebizitzen %17,4k gainditu egiten du ratio hori.

Etxebizitzaren Udal Planaren Diagnostikoaren arabera, 3.855 etxebizitza hutsik daude ustez, gehienak Erdigunean (%23), Amara Berrin (%17), Grosen (%15), Antiguon (%9), Altzan (%8) eta Egian (%7).

Etxebizitza eskaria. Eusko Jaurlaritzak etxebizitzen inguruko beharrei eta eskariari buruz 2015ean egin zuen inkestaren arabera, oso garrantzitsua da 18-44 urte bitarteko populazioak lehen etxebizitza eskuratzeko duen beharra. 8413 pertsona (adin-tarte horretako %14a). Horrek berebiziko eragina du hiriaren bizitasunean; jende gaztea hartu ezean, dinamismoa galtzen da. Gainera, etxebizitzen %7,3 ohiko etxebizitza aldatu beharrean dago eta %10,7 birgaitu beharrean.

Etxebizitza babestuen eskariari dagokionez, hirian erroldartutako populazioak gero eta gutxiago erosten ditu eta gero eta gehiago alokatu. Hala, 2017an, espedienteen %72,3 alokatzeko ziren (2103an, %49) eta %27,2 erosteko (2013an, %51).

Etxebizitzaren prezioa. Igotzeko joera du 2015aren amaieraz geroztik eta garbi ikusten da merkatua suspertu egin dela. 2017ko hirugarren hiruhilekoan, prezioa 4.151 eurokoa zen m²-ko, alde nabarmenekin zona garestienen (Miraconcha 10174€m²) eta merkeenen (Altza 1874€m²) artean. Alde horiek gero eta handiagoak dira, eta hiriaren oreka eta kohesioa kaltetzen dira.

Alokairuak igotzeko joera nabarmena du 2012az geroztik. Hileko bataz besteko errenta, 2017an, 1.262€ zen, alde nabarmenekin auzo batetik bestera. Preziorik altuenak Erdigunea-Miraconcha-Parte Zaharra auzoetan (1.693€) eta Gros auzoan (1.303) daude. Auzo horiek dira etxebizitza erabilgarri gehien dituztenak eta, horregatik, besteak beste, bataz bestekoa igo egiten da.

Aureko guztia kontuan izanik, Donostiako EAJ-PNVtik hainbat lan ildo garatuko ditugu:

2.1.1. Etxebizitzaren Plan Zuzentzailea garatzea, 4.000 etxebizitza berri izateko asmoz

Plangintza tresnak behin betiko onartzea, 4.000 etxebizitza berri eraikitzeari ekiteko. Hala, 2000 etxebizitza gehiago izango dira titulartasun publikoko etxebizitzen edo ostatuen parkean. Hiriko eremu hauetan burutuko dira jarduketak:

- Urumea ibarrean: Loiolako Lorategi Hiria, Txomin enea II, Antzieta, Sarrueta eta Trinkete.
- Ibaeta ibarra: Illarra eta Infernua.
- Altza: Jolastokieta behea, Eraikuntzaren Institutua, Esnabide
- Egia: Aldakoenea eta Mundaitz
- Intxaurrondo: Pilar klinika.

2.1.2. Eusko Jaurlaritzarekin lankidetza-hitzarmena

Etxebizitza babestuen eta zuzkidurazko bizitokien aurreikuspenak Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmen zabal bat eskatzen du, Etxebizitza Sailarekin edo haren sozietate instrumentalen batekin, VISESA adibidez.

Bi esparrutan Eusko Jaurlaritzarekin elkarlana oso aurreratuta dago; lehena Eusko Jaurlaritzak zuzkidurazko 300 bizitoki eraikitzeari dagokio, Manteon, Loiolako Erriberetan eta Morlansen dauden udal jabetzako lursailetan; bigarrena, Loiolako Lorategi-hirian VISESAk babestutako etxebizitzak eraikitzeari buruzkoa da.

Ildo beretik, akordio berriak sustatuko ditugu Eusko Jaurlaritzarekin, datozen urteetan aipaturiko guneetan etxebizitza babestuen eta zuzkidurazko bizitokien garapenean sakontzea ahalbidetuko dutenak, Etxegintzak sustaturikoen finantziazio-laguntzak ziurtatzeko zein Eusko Jaurlaritzak haietako batzuk zuzenean sustatzeko.

2.1.3. Etxebizitzak zatitzea ahalbidetzea

Lehen aipatu ditugun datuak kontuan izanik, Plana Orokorreko etxebizitzen tamainari buruzko xedapenak aldatuko ditugu, etxebizitzen tamaina familien gaur egungo neurrietara moldatzeko eta behar bezala aprobetxatu gabe dauden etxebizitza handiak horizontalki zatitzeko aukera izan dadin. Horrela, bizi-kalitate hobea izango dute etxebizitzetan bizi direnek eta, ondorioz, persona helduek errazagoa izango

dute beren ingurunean bizitzen jarraitzea eta, horrez gain, etxebizitza txikixeagoak izango ditugu, hau da, ekonomikoki errazago eskuratzeko moduan egongo dira eta jasangarriagoak izango dira lurzoruaren erabileraren ikuspuntutik eta efizientzia energetikotik begiratuta; pobrezia energetikoko egoerak ez dira sortuko, gainera.

2.1.4. Gazteentzako alternatiba: bizitokia izateko formula berritzaileak eta errotazio-bizitokiak

Etxebizitzaren arloan ere gauza berriak asmatu behar ditugu. Donostiako ezaugarri demografikoak kontuan izanik, esan nahi baita, gazteei bizitzeko leku bat eskaini behar zaie, etxebizitza gehienak jabetzan daude, etxebizitzak egokitu egin behar dira… Udaletik lan-ildo berriak ireki beharko ditugu, etxebizitza bizi-etapa bakoitzera egokitu ahal izateko. Hala, gure asmoa da:

- Bizitoki-formula berriak bultzatzea. Horretarako, gizarte-ekimenetan oinarrituko gara, zerbitzu komunitarioak lantzen badituzte betiere: lankidetzako edo kooperatibako etxebizitzak (cohousing) Udalaren partzeletan, erabilpenerako lagapen erregimenean.
- Alokairuko etxebizitza publikoak eskaintzeko modalitate berriak bultzatzea, gazteentzat; etxebizitza partekatuak, esaterako.
- Zuzkidura-apartamentuak eraikitzea auzo hauetan:
    - Alde Zahara: Kanpandegi
    - Gros: Manteo
    - Amara Zaharra: Amara kalea
    - Morlans
    - Loiolako Erriberak
    - Antiguo: Ondarreta kalea
    - Antiguo: Añarbeko Urak-en partzela
    - Altza: Eraikuntzaren Institutua
- Bizitoki horiek batez ere gazteengana bideratzea eta, helduentzako bizitokiei dagokienez (Kanpandegi, esaterako), haien etxebizitzak Etxegintzaren esku uztea bultzatzea, gazteei errentan uzteko.

2.1.5. Prozedurak hobetzea udal etxebizitzen adjudikazioetan eta erabilera-kontroletan

Gaur egungo errentako udal parkean dauden etxebizitzak eta gainerako bizitokiak (2.000 inguru), datozen urteetan eraikiko direnak, behar gehien duten kolektiboetara bideratu behar dira; horretarako, gaur egungo zozketa sistemaren ordez baremoen sistema bat erabiliko da. Beharrezkoa da, era berean, erabilera kontrola hobetzea eta esleipendunek beren betebeharrak betetzen dituztela hobeto ziurtatzea;

horrela, iruzurra saihestu egingo da eta errentako udal etxebizitzek beren funtzio soziala beteko dute eta zerbitzua jasangarria izango da. Hori guztia lortzeko, bi ekimen hauek proposatzen ditugu:

- Baremoen bidezko adjudikazio sistema inplementatzea, oro har, Udalarenak diren zuzkidura etxebizitza eta bizitoki guztien adjudikazioetan, etxebizitza kupoak ezarriz behar bereziak dituzten kolektiboentzat (35 urtez beheko gazteentzako kupoa, genero indarkeriaren biktimentzako kupoa…) eta eskaera egiten dutenen egoera sozio-ekonomikoa haztatuz.
- Errentako etxebizitzen eta bizitokien erabilera kontrolatzeko prozedurak mantentzea eta hobetzea, iruzurrezko erabilerak saihesteko (errenta turistikoa, esaterako) eta, era berean, iruzurrezko berankortasuna kontrolatzeko.

2.1.6. Irisgarritasuna hobetzea, igogailuak instalatuta

Donostian, 1.623 ezkaratz daude igogailurik gabe (%17) eta, horietan, 29.045 pertsona bizi dira 12.646 etxebizitzatan banatuta. Datuen arabera, 65 urtez goiko 5.034 pertsona eta 80 urtez goiko 1.782 pertsona bigarren solairuan edo goragoko solairuetan bizi dira, igogailurik gabe. Altza da egoera hori gehien nozitzen duen auzoa; ondoren, Intxaurrondo, Egia eta Erdigunea (Alde Zaharra) daude.

Birgaitze lanetarako laguntzei eutsiko diegu bizitegi eta etxebizitza eraikinak birgaitzeko diru-laguntzei buruzko Ordenantzako kriterio berriak aplikatuz; hala, igogailuak instalatzeko birgaitze lanek lehentasuna izango dute laguntzak ematerakoan.

2.1.7. Prezio itundua duten alokairuak bultzatzea: neurri fiskal eta legal berriak. Etxebizitza hutsa.

“Alokabide” programaren bidez, arrazoizko prezioa duen errentamendu pribatua bultzatzen da, eta horretarako Udalak eta bermeen establezimenduak bitartekari lanak egiten dituzte ez-ordaintzeen aurrean. Gure asmoa da horrelako alokairuen etxebizitzen poltsa eta, oro har, hiriko alokairu-eskaintza handitzea, alokairu arrazoizkoagoa lortzeko, etxebizitza hutsak eskaintzan jartzea bultzatuz. Hau da proposatzen duguna:

- Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean aritzea etxebizitza hutsak arautuko dituen dekretua prestatzen eta aplikatzen; xedea da duten funtzio soziala betetzea, halako etxebizitzak benetan okupatuta egon daitezen lortzea alegia. Asmoa da bultzatzea etxebizitza hutsaren aitorpena, etxebizitza hutsaren urteko kanona likidatzea eta kobratzea eta Eusko Jaurlaritzak etxebizitza hutsak mugitu edo errentan jartzeko asmoz onartzen dituen gainerako neurri legalak ezartzea.
- Aldi berean, etxebizitza hutsen titularrei “Alokabide” programa eskaintzea. Programaren helburua da titulartasun pribatukoak diren etxebizitza hutsak merkatuko prezioaren azpitik

errentan jartzea sustatzea, eta errentak kudeatu eta ziurtatu "Etxegintza" udal-sozietatearen bidez kudeatu eta ziurtatuko dira.

2.1.8. Etxebizitzaren zerbitzu publikoari beste orientazio bat ematea: bizitza osorako etxebizitza, laguntzarako zerbitzu berria.

Lan-ildo horiek guztiak garatuko badira, etxebizitzaren zerbitzuari beste orientazio bat eman behar zaio. Igogailuak instalatzeko edo etxebizitzak zatitzeko, birgaitzeko edo egokitzeko egin beharreko obrak kudeatzea lan konplexua da auzo elkarte askorentzat eta, bereziki, adineko pertsonentzat. Halako kudeaketak aholkularitza, orientazioa, babesa eta, askotan, laguntza ekonomikoaren programaz harago doan laguntza eskatzen du.

Hori horrela izanik, udal-zerbitzu berri bat sortzea planteatzen dugu, orientazio, aholkularitza eta laguntza zerbitzuak emateko beren etxebizitza bizitzan zehar izaten ditugun hainbat beharretara moldatzeko egin beharreko aldaketak behar bezala kudeatu ditzaten.

Bizi-ibilbideei buruz esandakoak eskatzen du konbinazio-formula berriak asmatzea, hain zuzen ere faktore hauek konbinatzeko: jabetza publikoa eta pribatua, alokairua eta jabetza araubideak, belaunaldien arteko elkarbizitza, legeriaren aldaketak eta lan horizontalagoa udalen artean.

2.1.9. Turismoaren hazkundeak etxebizitzan duen inpaktua kontrolatzea.

Sektorea garrantzitsua da gure hirian eta, aldi berean, komertzializazio-formula eta bizitoki-mota berriak sortu dira, eta haiek erabiltzeko moduan ere aldaketak izan dira. Faktore horiek guztiek presioa areagotu egin dute bizitegien merkatuan. Kontuan hartuz *1.5 Turismo iraunkorra* puntuan azaltzen den turismo jasangarriaren aldeko apustua, proposatzen dugu:

- Kontrol-sistemei eustea, turismo-etxebizitzei buruzko Ordenantza berria betetzeko.
- Mugatzea etxebizitzen eraikinei hirugarren sektoreko erabilera (hotelak…) ematea.

2.1.10. Esku-hartzea etxegabetze-kasuetan

Kalteberak diren zenbait familiari etxea kentzeko prozedurak aplikatzen zaizkie, izan hipoteka-kreditu bidez erositako etxebizitzak, izan errenta pribatu bidezko etxebizitza.

Halako egoerei aurre egiteko, proposatzen dugu:

- Justizia-administrazioarekin elkarlanean jardutea, etxea kentzeko prozeduretan kalteberak diren kasuak antzemateko protokoloa aplikatzerakoan, eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza lortzea, halako kasuetan daudenei etxebizitza alternatibo bat eskaintzeko.

- Udal-etxebizitzen parkea handitzea, Gizarte Ekintzaren Departamentuak larrialdi egoeretan etxebizitzak eskura izan ditzan.

2.2. HIRIA GIZA ESKALAN. PLANGINTZA INTERES OROKORRAREN ZERBITZURA.

Donostiak ezaugarri apartak ditu, naturaren eta hiriaren ikuspegietatik begiratuta; erabilgarri duen lurzorua, ordea, urria da. Donostiako populazioa neurriz hazi da azkeneko hamarkadetan (1990ean, 176.000 ginen eta, orain, 187.418). Dena den, etxebizitzen parkea gehiago hazi da. Beraz, jaitsi egin da etxebizitza bakoitzean bizi den biztanle-kopurua.

Gaur egun, udal-mugarteko lurzoru urbanizatuaren azalera lurzoru guztiaren %32,2 da. Horri gehitzen badizkiogu azpiegiturak, ekipamenduak, lurzoru ez-hiritarreko eraikuntzak eta ustiapenak, ikusten dugu lurzoruaren %42,2 artifizial bihurtuta dagoela.

Ingurune naturalaren eta hiri eraikiaren arteko orekari edo artifizialdutako lurzoruaren eta lurzoru naturalaren edo ukitu gabearen arteko orekari eusteko, komeni da lurzoru berria urbanizatzen ez jarraitzea edo, urbanizatu behar bada, alboetako lurzorua artifizialduta duten espazioak urbanizatzea. Hala, bereziki etxebizitza berrien inguruko beharrei edo lehendik eraikitako etxebizitzetako beharrei erantzuten saiatuko gara, haien erabilera optimizatuz edo hiri-lurzoruen poltsetako dentsitatea handituz, bai oraindik garatu gabe dauden bai birsortze-prozesuan dauden hiri-lurzoruen dentsitatea. Asmoa da, era berean, eremuak eta auzoak josita dituen hirigintza lortzea.

Alde horretatik, adierazi behar da hiriko lurzoru urbanizatuko hektarea bakoitzeko etxebizitzen batez besteko dentsitate netoa 63,9 etxebizitza dela. Hiriko eremu lauetan, hektareako batez beste 75-100 etxebizitzako dentsitatea lortzea komeniko litzateke.

Azpimarratu behar dugu Hiri Antolamenduko lan Orokor berrirako oinarriak lantzen jarraitu beharra dagoela, indarrean dagoen Plana 2010ean onartu baitzen. Plan berria onartzeko behar den adostasun zabalak lortzea, ordea, konplexua da, baina beharrezkoa; horregatik, legealdi berri honetan ekin behar zaio gai honi.

Azalpen horiek guztiak kontuan hartuta, Donostiako EAJ-PNVkook proposatzen dugu datozen urteetako hirigintzako jardueren xedetzat dagoeneko hiritarrak baina garatu gabe dauden eremuak hartzea; behar izanez gero, egin beharreko aldaketak egingo dira etxebizitzen dentsitatea hazi dadin eta, aldi berean, hirugarren sektoreko jarduera murriztu egingo da.
Kriterio horien arabera, hiriko eremu hauetan jardutea planteatzen dugu:

2.2.1. Urumea ibarra, hiri-berroneratzea eta etxebizitza berriak:

Donostia,Ugari dira ibaian eta ibaiaren ibarretan azken hamarkadetan gauzatzen ari diren jarduketak: isurketak gutxitu dira, ibilgua zabaldu, ibaian zeuden oztopoen ordez zubiak eta ibai pasabideak edo parkeak eraiki dira eta, horiei guztiei esker, Urumea hiriko paisaiako elementu natural aipagarrienetako bat bihurtzen ari da. Aldi berean, lehenago izaten ziren uholde-arazoak konpontzen ari dira.

Gainera, Urumearen ibarretan aukera onak daude: zenbait eraikin eta instalazio lekuz kanpo eta zaharkituak geratu direnez, hiri-garapen berriak egin daitezke, etxebizitza berriak alegia; horrela, etxebizitzak zona naturaletan (Atondegi gainean, esaterako) ez dira eraikiko. Hori horrela izanik, hau proposatzen dugu:

- **Loiolako lorategi-hiria.** Lorategi Hiriko Plan Bereziak xedatzen duena gauzatzea, hau da, dagokion HJP (hirigintzako jarduketa-plana) onestea. Partzelen permuta VISESArekin adostea, BOEk eraikitzeko. Adostasunari esker, entitate horrek garatuko lituzke etxebizitzak.
- **Loiolako kuartelak.** Udala gogotik aritu da Defentsa Ministerioarekin, bai Rajoyren garaian bai Pedro Sanchezen garaian, baina oraingoz ez du ezer lortu. Margarita Robles ministroarekin azkeneko aldiz egon ginenean, neurri bereko beste kuartel bat eraikitzeko eskatu zigun. Halako kuartela eraikitzea, ordea, 90 milioi baino gehiago kostatuko litzateke eta, beraz, ezinezkoa da inolako etxebizitza-jarduketarik gauzatzea kuartela gaur egun dagoen partzelan, eta are gutxiago babes publikoko etxebizitza-portzentaje minimo bat eraikitzea. Nolanahi ere, ondo pentsatzen jarriz gero eta kontuan izanik kuartelaren gaur egungo egoera, esan nahi baita, kuartelean gaur egun lehen baino askoz okupazio txikiagoa dagoela eta kuarteleko instalazioak ere lehen baino askoz gutxiago erabiltzen direla, arrazoizko konponbide bat aurkituko dugu eta kuartelak hartzen duen partzela hiritarra auzo berritzaile bat bihurtuko da, 1.600 etxebizitza baino gehiagorekin. Bide beretik jarraituko dugu lanean; legealdi berria hasten den une beretik, hain zuzen.
- **Txomin enea.** Txomin Enearen lehen eraikitze-fasea aurten amaituko da. Dagoeneko entregatu dira aurreneko etxebizitzak, ordezko etxebizitzak gehienbat, eta gainerako etxebizitzak denbora gutxi barru entregatuko dira. Zenbait zerbitzu martxan daude dagoeneko (District-heating, esaterako), urbanizazio-lanek aurrera jarraitzen dute eta ibai-parkea egiten ari dira. Auzo berria, gaztea, modernoa eta kalitatezkoa errealitate bihurtzen ari da. Dena den, espetxeak galarazi egiten du bigarren fasea gauzatzea; izan ere, Estatuko Administrazioak, izan PPren garaian izan sozialisten garaian, atzeratu egin du behin eta berriz espetxe berriaren eraikuntza edo espetxeak okupatzen duen partzela libre utziko lukeen beste edozein alternatiba. Hala eta guztiz ere, estu hartuko dugu Espainiako Gobernua, edonor dela ere gobernuburu, Udalarekin eta hiriarekin hartutako konpromisoak bete daitezen.

- **Antzieta.** Espetxearen alboan dago Antzieta. Antzieta poligono bat da, Urumeako autobiak eta Altzatik ospitaleetara doan bideak bat egiten duten gunearen alde banak hartzen dituena; hainbat enpresa daude bertan. Eremu hau bizitegi-eremu bat izateko bidean da. Gaur egungo aurreikuspenak aldatzea proposatzen dugu, bizitegi-eraikigarritasuna handitzeko eta 800 etxebizitza baino gehiago izateko, hirugarren sektoreko eraikigarritasuna murriztearekin batera.
- **Sarrueta eta Trinkete**. Aurreikusita dagoen legez, Martuteneko futbol-zelaian eta horren alboan dagoen Trinketearen partzelan etxebizitzak eraikiko dira, Etxarrienen futbol-zelai berria eraikitzen denean. Sarruetan eraikigarritasuna handitzea proposatzen dugu, dituen urbanizazio-kargak (ibaiko jarduketak, esaterako) bideragarriak bihur daitezen eta Trinketeko eremuaren garapena bizkor dezagun, antolamendu eta eraikigarritasun kriterioen arabera; eremua eremu atonomo gisa garatzea da asmoa. Eremuari Apostolutza/Portutxo eremua gehituko diogu, hau da, 42 etxebizitza gehiago izango dira; horietatik 16 babes publikoko etxebizitzak.
- **Ibai-parkea eta Urumeako jarduketak.** Ibai-parkea egiteko obrak martxan daude dagoeneko eta uholdeak saihesteko obra gehienak ere egin dira. Martuteneko zubia kendu zen eta Espartxo eta Astiñeneko zubi berriak egiten ari dira. Orain arte hartu diren neurriei esker, ikusi da ibaiak hobeto funtzionatzen duela. Proiektu hidraulikoko bigarren fasean aurreikusitako neurriak aplikatzea proposatzen dugu, neurri horiek aplikatzeko behar diren lursailak desjabetzeko prozesua amaitu eta gero. Jarduketak izango dira ibaiaren ibilgua zabaldu eta ibai-ertzak txukundurik, segurtasun handiagoa lortuko da eta errazagaoa izango da ibaira eta ibai-ertzetara iristea. Horrez aparte, Defentsa Ministerioari kuarteletara joateko zubia ordezteko eskatzen jarraituko dugu, ibaiaren zati honetako beste zubiak ordeztzeko aplikatu diren kriterio eta arrazoi berberak erabiliz.
- **Antondegi.** HAPOk xedatzen duenez, Antondegi gain osoa urbanizatuko da. Kontuan hartuz lehen azaldutako jasangarritasun-kriterioak eta, beraz, lurzoru natural gutxiago artifizialdu beharra, Antondegi gainaren zati handi bati sailkapen hori kentzea proposatzen dugu.

2.2.2. Tabakalera eta horren ingurunea, Egia balioan jartzea

Tabakalera eta autobusen geltokia martxan jarri dira eta erdigune berri bat sortu da hirian. Abiadura handiko trenarentzako geltokia eraikiko da, autobusen geltokia eta Tabakalera integratuz; horrek hiriko espazio berri hori osatuko du. Egia auzoko bizitza eta kultura dinamizatzen ari dira. Dena den, badira inguruan bi espazio, Mundaizeko eremua eta Aldakoneakoa, hiri-berroneratze proiektu bideragarriak behar dituztenak. Horregatik, hau proposatzen dugu:

- Aldakoneari dagokionez, San Bartolomen bultzatutako hirigintzako proiektuaren modukoa garatzea proposatzen dugu, Egiako hegalera eta gainera joateko irisgarritasun-baldintzak erabat aldatzeko ibilgailuentzat eta, batez ere, oinezkoentzat; horretarako, bi ibilgailu-sistema instalatuko dira. Hala, zona berroneratu egingo da; zenbait eraikin ordeztu egingo dira kriterio

honekin: aurrekoen antzeko azalera duten eraikinak kosterik gabe entregatzea, plaza zabal bat sortzea eta aparkalekuak jartzea eta eraikitzea Garai bateko Onkologikoko eta Villa San Antonioko partzeletan. Proiektuak, era berean, Egiara joateko Iztuetako zubibidearen ordez eraikiko den bide berrirako lotura bat egitea aurreikusten du.

- Mundaizi dagokionez, hiri-berroneratze jarduketa bat proposatzen dugu, proiektu arkitektoniko berezi baten bidez, hain zuzen ere bere inguruneak, hau da, Tabakalerak, Cristina Enea parkeak eta tren-geltoki berriak eskatzen duten moduko proiektu baten bidez. Proiektuak bideragarria izan beharko du eta, horretarako, aprobetxamendua areagotu egin beharko da, eta eraikinak bizitegitarako eta zerbitzu profesional aurreratuen jarduera ekonomikoetarako erabili beharko dira.

2.2.3. Bi auzo berri Ibaetako ibarrean: Infernua eta Illarra

Infernua izeneko auzoa errepide ertzean dago, Antiguo auzoaren eta Añorgaren artean, Añorgako errekastoaren arroan; errekastoak aurrealdean dauden Bidarte eta Oriamendiko hegaletako urak hartzen ditu. Sakonunearen hegoaldean dago zona industrial hau, plangintzarik ez du eta, gaur egun, hutsik dago. Zona hau leku egokian dago hiri-berroneratze proiektu baterako, etxebizitza-programa trinko baterako; izan ere, hiriaren mendebaldeko sarreran dago eta gertu ditu Lugaritzeko geltoki berria, unibertsitate-campusa eta Errotaburu auzoa.

Horregatik guztiagatik, hau proposatzen dugu:

- Indarrean dauden **Infernua** auzoari buruzko hirigintzako xedapenen aldaketa onartzea, bizitegi-auzo bat eraikitzeko, 46.025 m²-ko etxebizitza-eraikigarritasunarekin; beraz, lehen 224 etxebizitza eraikitzea aurreikusten zen eta, aldaketari esker, 540 eraikiko dira. Bestalde, murriztu egingo da jarduera ekonomikoetarako eraikigarritasuna: 19.055 m². Auzo berriak errekastoa berreskuratuko du, auzunea egituratuko duen elementuetako bat izango da.
- **Illarra** auzoa, berriz, dentsitate txikiko eremu moduan diseinatu zen. Dena den, kriterio berriek hirigintza jasangarriagoa bilatzen dute eta, hortaz, komeni da etxebizitza-programa handitzea. Hala, gaur egungo hirigintzako xedapenak aldatzea proposatzen dugu, bizitegi-aprobetxamendua areagotzeko eta, era horretan, aurreikusitakoak baino 262 etxebizitza gehiago eraiki ahal izateko. Bizitegi-aprobetxamendua handitu egingo dugu, aurreikusitakoak baino 262 etxebizitza gehiago eraikiko ditugu, erdiak babes publikoko etxebizitzak izango direlarik.

2.2.4. Altza: Jolastokieta eta Eraikuntzaren Institutua

- **Jolastokieta.** Altza auzoa hiri-berroneratze prozesu bat bizitzen ari da azken hamarkadetan: etxebizitzen artean zeuden industriak lekuz aldatu dira eta hiri-espazioa birkalifikatu egin da.

Horren adibide bat Harrobieta plaza da: lehen Nerecan-ek okupatzen zuen espazioan etxebizitzak daude eraikita. Beste adibide berriago bat Jolastokieta gaina da.

- Prozesu hauek gauzatzerakoan, ahaleginak egin dira enpresei hirian bertan edo hiri-inguruetan eusteko, enpleguari ere eusteko; horretarako, enpresen instalazioak eta, beraz, lehiakortasuna ere hobetu egin dira. Berroneratzeko falta den eremuetako bat Zardoya-Otis enpresak **Jolastokietan** hartzen duen eremua da. Enpresak partzela bat eroski du Eskusaitzeta industriagunean, instalazio berriak eraikitzeko asmoz. Jolastokieta gainean aplikatu ziren kriterio berdintsuak aplikatuz eta Zardoya-Otis enpresak hirian jarrai dezan, 38.700 m²-ko eraikigarritasuna proposatzen dugu, horietatik 36.500 etxebizitzetarako erabiliko direlarik.
- **Eraikuntzaren Institutua.** Altzaren erdi-erdian, Eraikuntzaren Institutu zaharra dago, gaur hutsik. Duela gutxi, gimnasio berri bat jarri da martxan eraikinetako batean. Gure proposamena da partzela horretako eraikigarritasuna eta etxebizitzetarako modukoak diren eraikinak etxebizitza-programa batera bideratzea, bereziki gazteentzat, formula berritzaileak erabiliz; esaterako, kooperatibak sustatuz erabilera-lagatzearen araubidearen pean.
- **Esnabide.** Duela gutxi onartu da Plan Orokorraren Aldaketa Puntuala eremu honi dagokionez, eta 249 etxebizitza eraikiko dira, guztiak babestuak, 173 babes ofizialekoak eta 76 tasatuak.
- **Auditz Akular.** Auditz Akular eremurako proposamenak berrikustea planteatzen dugu, eremu honetarako gaur egun aurreikusita dauden ezaugarriak alde batera utzita. Proposamenak berrikusi eta ezaugarri berriak onartu, Plan Orokor berriaren esparruan.

2.2.5. Erdigunea: Easoko trenbideetako hondartza

Euskotren-geltokiak Easo plazan eta alboko trenbideetako hondartzak hartzen duten espazioa libre geratuko da Topoaren pasabidea eraikitzea amaitzen denean. Egungo Easo plazatik Morlans-eraino hartzen du espazioak, eta aukera bat da hiriaren funtsezko pieza batean hiri-diseinu bat garatzeko; ingurune osoaren mesederako izango da.

Aukera bat da Amara Berriren eta Zabalgunearen arteko lotura hobeto antolatzeko eta Easo plazaren eta Amara Zaharraren arteko lotura beste era batera egiteko. Beste alde batetik, ekipamendu bat inplementatuko balitz, erdigune berri bat sortzeko lagungarri izango litzateke.
Zentzu horretan, Francisco Escudero Kontserbatorioa Easoko tren geltokia dagoen inguruan sortuko den gunera eramatea proposatzen dugu, baita Easo plaza zabaldu eta birgaitzea ere. Horrela, kontzertuetarako espazio ezin egokiagoa sortuko litzateke, Musikaren Plaza izan daitekeena.

2.3. KLIMA 2050 ESTRATEGIA. MUGIKORTASUN JASANGARRIA.

Hiri bat, zerbait bada, elkarbizitzarako espazio bat da. Definizioez harago, hirian paseatu egiten dugu, desplazatu egiten gara, besteekin harremanak izaten ditugu… Eta horretarako, espazio publiko bat behar dugu, jarduera horiek guztiak egin ahal izateko.

Espazio publikoa ona da, bertan ezinbestekoak ez diren jarduera asko egiten badira, jendea espazio publikora besterik gabe, gozatzera ateratzen bada. Ibiltzea, paseatzea, desplazatzea, mugitzea, hitz egitea, esertzea. Espazio publikoa nolakoa izan, jarduera horiek guztiak era batera edo bestera egingo ditugu; espazio publikoak markatzen du, gainera, hiriko bizi-kalitatearen maila.

Hala, energia eta ingurumen jasangarritasuna, hiri berdeago bat helburutzat edukitzea administrazioen agendan eta gure eguneroko bizitzako kontzientziazioan dago.

Nazio Batuek klima-aldaketaren inguruan emandako mezua oso argia da: “Oso-oso litekeena da pasa den mendearen ardialdetik gertatutako planetaren berotzea batik bat giza jardueraren ondorioz gertatu izana. Gainditu behar ez den berotze-muga honakoa da: 2ºC industrializazio-aurreko tenperaturekiko. Muga hori ez gainditzeko, ezinbestekoa da urteko isurketa globalak %40-70 murriztea 2050. urterako eta zero isurketa lortzea mendearen amaieran”.

2015eko abenduan, berotegi-efektuko gasen isurketa murrizteko lehen akordio globala sinatu zen Parisen, gertaera hura oso urrats garrantzitsua izan zen. Gure hiriaren isurketen murrizketarekiko konpromisoak hiri-jarduerako sektore guztietara hedatzen dira; bereziki, mugikortasunaren sektorera, hori baita isurketa guztien errudun nagusia, isurketen %40a eragiten duena. Hiriek bere egin dute klima-aldaketa eta, hain zuzen ere, Donostia alkateen Itunari atxiki zitzaion eta konprometitu da isurketak %30 murriztera 2030erako, oinarri moduan 2007ko isurketak hartuz.

Ibilbidearen erdia egin dugu eta %22 murriztu ditugu isurketak, baina azpimarratu behar dugu jaitsiera horretan krisi ekonomikoak eragin handia izan duelala.

Donostiak klima-aldaketaren aurrean duen estrategia bi dokumentutan biltzen da: Klima Aldaketara Egokitzeko Plana (2017) eta Klima 2050 Estrategia. Planak klima-aldaketatik eratorritako arriskuen eta kalteberatasunen azterketa bat egiten du aurrena, eta klima-aldaketara egokitzeko estrategia bat prestatzen du ondoren. Klima 2050 Estrategiak, berriz, datozen hamarkadetako jardunbideak jaso eta horientzako egutegi bat antolatzen du, ingurumen-jasangarritasunaren arloan.

Klima 2050 Estrategiaren helburuak dira:

- Lurzoruak okupatzea eta erabiltzea/Artifizialiazioari balazta jartzea. Lurzoru gehiagoren okupazioa mugatzea (2020an ezartzeko).
- Pertsonen mugikortasuna eta merkantzien fluxua/Gertutasuna. Zero isurketa garraioan.
- Ondasunen ekoizpena eta kontsumoa eta hondakinak sortzea/Ekonomia zirkularra. Zero hondakin.
- Eraikuntza, azpiegituren eta eraikinen erabilera eta mantentze-lanak/Efikazia eta autokontsumoa. Eraikinen %80 baino gehiago efizientzia energetiko handiarekin.
- Energia/karbonorik gabeko energia. Energia berriztagarrien %80 baino gehiago azken kontsumoa kontuan hartuz.

Donostia berdeago eta jasangarriago baterako, ezinbestekoa da herritarren sentsibilizazioa eta partaidetza; herritarrek, gainera, gero eta garrantzi handiagoa ematen diote ingurumen-jasangarritasunari.

Euskadiko beroetegi-efektuko gasen inbentarioaren arabera, Donostian biztanleko 8,8 t CO^2 isuri ziren 2014. Automobilen 3.300 litro gasoil inguru erretzen dute, gutxi gorabehera, biztanleko eta urteko.

Jarduera-sektoreak kontuan hartuta, hauek izan ziren sektore bakoitzak Donostian 2015ean isuri zituen berotegi-efektuko gas-kopuruak:

- Garraioa: %40,2
- Industria: %28,2
- Zerbitzuak: %13,5
- Bizitegiak: %12,6
- Hondakinak: %5,2
- Nekazaritza eta abeltzaintza: %0,4

Datua horiek ikusita, garbi dago inportantea dela mugikortasunaren alorrean lehentasunez jardutea.
Helburu nagusi horiek betetzeko, aurreikusitako ekintzak lau ekintza-arlo nagusi hauen baitan planteatzen dira:

- Mugikortasuna
- Lurraldea
- Ekonomia zirkularra
- Energia

2.3.1. Mugikortasun jasangarria

Donostian, denok erabiltzen dugun espazio publiko honetan eta bizi garen kaleetan, edozein desplazamendu-motak posible izan behar du, bai mekanizatuak bai oinezkoak. Gure hiriko kaleek, beste eginkizun askoren artean, ahalbidetu behar ditu azpiegitura jakin batzuek eskatzen dituzten desplazamenduak eta baita norberaren ahaleginaren ondorioz kontsumitzen den energia kontsumituz bakarrik egiten diren desplazamenduak ere.

"Garraio" hitza, "mugikortasuna" eta "irisgarritasuna" gehitu bazaizkio ere, leku batetik bestera mugitzea ahalbidetzen diguten garraiobideez hitz egiteko bakarrik geratu da. "Irisgarritasuna "eta "mugikortasuna" hitzetan, norbanakoek eta taldeek edozein lekutara iritsi ahal izateko eskubidearekin zerikusia duten kontzeptuak daude.

Eta eraiki dugun hiri-mugikortasunaren ereduak kezka eragiten digu une honetan ingurumen-kontuetan pentsatzen badugu. Eta donostiarrek badute zerikusia kezka horrekin.
"Jasangarritasuna" hitza, gaur egun hain hedatua dagoena, lotzen dugu energiarekin (orduan, azpimarra energia kontsumo gutxieneko desplazamenduetan jartzen du), ingurumenarekin (orduan, azpimarra isurketen murrizketan jartzen du) edo gizarte-integrazioarekin (orduan, azpimarra mugikortasuna eskura izaterakoan ekitate gehiagoan jartzen du).

Kontuan hartuta datu horiek guztiak, garraioak berotegi-efektuko gasen isurketan Donostian duen garrantzia eta hartutako konpromisoak, konprometitzen gara garraiobide mota guztietan (oinez, bizikleta, garraio publikoa, ibilgailu pribatua) lehentasunei eustera. Beharrezkoa da, beraz, mugikortasun-eredu berri bat kudeatzen hastea, helburu eta ezaugarri horiekin bat datorren mugikortasun-eredua hain zuzen.
Zenbait datu:

- dBus zerbitzuak 29.168.562 bidaia egin zituen 2018an. Donostiako bidaiei buruzko bigarren zifra historikoa da hori, 2012an erregistratu ziren 29.216.698 bidaien ondoren.
- Lan-egunetan, 91.638 bidaia egin ziren, batez beste, 2018an.
- Gaur egun, dBus zerbitzuko bidaiarien %70 emakumezkoak dira eta %30 gizonezkoak. dBus zerbitzuko biadaiarien ia erdiek 49-78 urte dituzte; beraz, dBus zerbitzuaren erabiltzailearen adina ertaina-altua da. Emakumezkoen artean, erabiltzaile-kopurua igo egiten da 49-58 adin-tartera arte; hortik aurrera jaitsi egiten da. Gizonezkoen artean, ordea, erabiltzaile-kopurua jaitsi egiten da adin-tarte horretara arte; hortik aurrera igo egiten da.
- Bizikletaz egunero, lanegunetan, 20.754 desplazamendu egiten dira. Bizikletentzako hirian dauden bideek 77 km dituzte.

Jardunbideak:

Hiri-mugikortasunaren eredu jasangarria garatzea, klima-aldaketari aurre egiteko, garraiobide jasangarriak bultzatuz eta motor bidezko desplazamenduak murriztuz. Garraio publikoa sustatzea, garraio pribatuaren aurrean, hiriko sarearen inguruko kontzientziazioa landuz eta sare hori hobetuz, eta ibilgailu pribatua mugatuz.

Oinezkoentzako hiria.

- Trafikoa baretzea eta 30 guneak zabaltzea.
- Bidegorri ziurragoak. Bidegorriak goi-guneetara hedatzea. Txirrinduentzako ardatz ikonikoa: Antiguo – Miraconcha – San Martin – Miracruz.
- Oinezkoentzako bideak jartzea.
- Garraio Bertikalaren Plana gauzatzen jarraitzea.
- Aukera paregabea hiria irabazteko, Pasabidea eraikita. Pasabideari esker, izan ere, paseorako bide berriak sortuko dira; esaterako, Kontxako pasealekua zabaltzea eta pasealeku horretatik doan bidegorria beste leku batera mugitzea, baita bidegorriak ere (esaterako, Kontxa, San Martin, Miracruz bidegorri handia).
- Easoko trenbideetako hondartza berreskuratzea.

Garraio publiko kolektiboaren kalitatea hobetzea, trenbideen testuinguru berria baliatuz.

Paradigma berri bati aurre egin beharrean gaude: AHT, Topoa, RENFEren aldirikoak. Paradigma berri hori baliatu egin behar dugu, ibilgailu pribatua erabiltzen duten hiritarrak garraio publikora erakartzeko. Garraio pribatuaren erabiltzaileak gizonezkoak dira gehienbat, gizonezko gazteak eta adin ertainekoak gainera.

- AHTaren eta “hirugarren haria” delakoaren lanak epe barruan amaitzea. Hala eginez gero, izan ere, Europarekiko “trenbide-muga” amaituta geratuko da eta Donostia abiadura handiko sare europarrari konektatuko den lehen euskal hiriburua izango da.
- AHT-geltoki berria eraikitzea, Tabakalerarekin eta autobus-geltokiarekin integratuta. Geltokiak inguruneko espazioa berroneratzea ahalbidetuko du.
- Loiolako aldageltokia. Aldageltokiak nabarmen hobetuko du RENFE eta Euskotren artean aldaketa egiteko geltokia eta, hala, askoz eraginkorragoa izango da gure garraio publikoa.
- Legealdi honetan amaituko dira Topoaren pasabide berriaren lanak eta Topoaren gaur egungo trazatua hobetzeko lanek jarraituko dute. Intxaurrondo eta Altzako geltokien ondoren, Bentaberri/Antiguo, Erdigunea/Kontxa eta Easo/Amara geltokiak irekiko dira. Lan horiek, mugikortasuna nabarmen hobetzeaz aparte, Easoko trenbideetako egungo hondartza libre utziko

dute, espazio berri bat sortuko da berrerabiltzeko hiriaren erdigunean. Lan horiei guztiei esker, gainera, bestelako desplazamendu-moduen trafikoa asko doituko da. Behin pasabidea amaituta, Altza eta Galtzaraborda arteko loturaren eraikuntza bultzatuko dugu.

- Lana GFA eta EJarekin koordinatuta egitea, Euskadiko garraio-txartela lortzeko.
- Integrazio erreala Lurraldebus, dBus eta Euskotrenen garraio-sarean.
- Eurohirian integratutako informazio-sistemak.
- Hiriko ekialde-mendebalde ardatzaren garrantzia, zentzu zabalean: Hendaiatik Zumaiara. Beraz, pasabideak asko lagunduko du desplazamendu hauek ibilgailu pribatuan egin ez daitezen.

Ekintzak auzoz auzo

Hiri osoan:

- Integrazio erreala Lurraldebus, dBus eta Euskotrenen garraio-sarean.
- Bidegorria: Kontxa – San Martin – Miracruz
- Trafikoa baretzea eta 30 guneak hedatzea.
- Isurketa eta zaratarik gabeko guneak.
- Azpiegitura elektrikoa hobetzea, ibilgailu elektrikoari zerbitzua emateko.

Ekialdeko barrutia

- Garraio bertikala: Altza Eskalantegi
- Garraio bertikala: Altza – Herrera - Larratxo

Antiguo:

- Garraio bertikala: Arriola
- Garraio bertikala: Lugaritz

Erdigunea:

- Kontxako pasealekua zabaltzea
- Kontxako pasealekuko bidegorria beste leku batera mugitzea

Amara:

- Easoko trenbideetako hondartzaren espazio publikoaren hiri-berroneratzea.

dBus flotako BEI sistema elektrifikatzeko plana:

- 28. Lineako eragiketa autobus elektrikoekin.

2.3.2. Energia:

- Energia-iturriei karbonoa kentzea, energia aurrezteaz eta efizienteki erabiltzeaz aparte: karbonoa kentzeko pizgarrien programa, efizientzia energetikoa industrian, hirugarren sektorean, ekitaldietan, etxeetan…

- Energia berriztagarrien sorrera bultzatzea: udal-instalazioen hornidura kontratatzerakoan, kontratatzen den energia berriztagarria dela ziurtatzea; inbertsio eta kudeaketa programa, udal-instalazioetan energia berriztagarriak izateko, iturri berriztagarri pribatuen instalaziorako kudeaketa eta sustapenerako; eta energia zerbitzuen udal-enpresa sortzea aztertzea.
- Energia efizientzia handiagoz erabiltzea: efizientzia energetikoari eta ingurumen kalitatearei buruzko ordenantza berria. Udal-eraikinak, etxebizitzak, dendak eta zerbitzuak birgaitzeko eta berroneratzeko programa.
- Sektore kalteberei laguntzea, oinarrizko behar energetikoak ase ditzaten.

2.2.1. Ekonomia zirkularra

- Jasangarritasuna eta karbonoa ezabatzea elikagaietan: elikadurako estrategia bat definitzea, dieta eta elikadura osasuntsuak sustatzea, bertako elikagaien ekoizpena bultzatzea, lagunduz, halaber, elikagaiak hirian bertan edo inguruan komertzializatzeko kateei, eta elikagaiak alferrik botatzea saihestuz.
- Kontsumoaren eta hondakinen jasangarritasuna eta karbonoa ezabatzea: prebentzio-programak, hondakinen murrizketa eta aprobetxamendua: jarduera turistikoaren eta, oro har, ekitaldien isurketak murriztea. Ondasunak eta materialak berreskuratzeko ekimenei laguntzeko programak. Inguruko produktuen eta zerbitzuen kontsumoa babestea. Jasangarritasun-kriterioak aplikatzea, klima barne, ondasunak eta zerbitzuak kontratatzerakoan.
- Jasangarritasuna eta karbonoa ezabatzea uraren zikloan: Udal instalazioetan eta zerbitzuetan erabiltzen den ura kudeatzeko programa. Kontsumoaren murrizketa, berrerabilpena eta horiei lotutako azpiegitura berdeak bultzatzea. Naturan oinarritutako arazketa-sistemei buruzko programa pilotoa.

2.3.3. Lurraldea

- Kriterio klimatiko jasangarrietan oinarritutako hirigintza garatzea: kriterio klimatikoak Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren berrikuspenean txertatzea. Kriterio klimatikoak udalerriz gaindiko plangintzetan txertatzea. Proiektuak eta plangintza bereziak berrikustea, jasangarritasun eta klima kriterioak aplikatzeko, eta baita lizentzien kudeaketan oro har ere. Neurri fiskalak eta ekonomikoak, trantsizio energetiko eta klimatikoarekiko koherenteak direnak, hirigintza eta etxebizitza definitzerakoan eta aplikatzerakoan.
- Azpiegiturak klima-aldaketara egokitzea.

Naturalizatzea eta azpiegitura berdeak. Ibaien arroak naturalizatzea eta azpiegitura berdeak garatzea. Azpiegiturak, eraikuntzak eta espazio publiko hiritarrak birnaturalizatzeko eta iragazkortzeko programa.

Nekazaritza ekologikoko jarduerak babestea eta halako jarduerak txertatzea espazio hiritarrean eta hiri-inguruetan, elikagaien estrategiaren babesean.

3. GUZTION HIRIA

Donostiako EAJk bizitzeko egokia izango den Donostia nahi du; hots, maila guztietan herritarron bizi-kalitatea bultzatzen duen hiria. Gizarte kohesioan aurrera egitea dugu helburu, donostiarron ongiizatea sustatzea inor bazterrean utzi gabe.

kohesiorako lan ildo garrantzitsuak dira komunitatean elkar zaintza ahalbidetzea, adineko pertsonak beren etxebizitzan edo inguruan artatzea, kirola (osasun, ongi izate eta kohesio lanabes gisa) sustatzea, hiri segurua izatea eta denontzat hiri irisgarria izatea. Baita ofizialak ditugun bi hizkuntzen arteko bizikidetza eta berdintasuna sustatzea ere, gure hirian hitz egiten diren gainerako hizkuntzak ahaztu gabe.

Bizitzeko hiri egokia izateko helburu horrekin bat datoz beste hauek ere: Donostia gero eta berdeagoa izatea, mugikortasuna, aldaketa klimatikoari aurre egiteko politikak, gune eta zerbitzu publikoen kudeaketa egokia. Politika hauek guztiek Donostia denontzako bizitoki egokiagoa egiten dute.

3.1. KOMUNITATEA EHUNTZEN. DONOSTIA LAGUNKOIA HIRI PLANA

Donostiak oso baldintza egokiak ditu hiri kohesionatuta izateko: tamaina egokia du eta baita eragile sozial asko ere. Eragile hauek publikoak -Udalarenak zein beste erakunde publikoarenak-, hirugarren sektorekoak eta ekimen pribatukoak dira.

Hirian hainbat arlotan beste pertsona batzuei laguntzen ari diren elkarteak ditugu eta arlo horietan adituak diren profesionalak zein kalitate handiko udal ekipamendu asko ere bai: kultur etxeak, kiroldegiak, zahar-etxeak, liburutegiak…

Hau da, sare sendoa eraikitzeko elementu baliagarri ugari ditugu hirian eta, hain zuzen ere, horiek denak saretzea dugu erronka; izan ere, gaur egungo zein etorkizuneko gizarte-eskakizunei erantzuteko bitarteko berri asko abian jartzea baino askoz eraginkorragoa da daudenak helburu jakinak lortzeko lerratuz komunitate sendoak sortzea.

Pertsonen bizitza-itxaropena luzatu izanak, familien estrukturak aldatu izanak, pertsonen bizi-ibilbideak dibertsifikatu izanak eta teknologiek egunerokotasunean duten eraginak erronka berriak ekarri dizkio gizarteari eta erronka horiei behar bezala heltzeko bide bat besterik ez dago: komunitatea ehuntzea. Udalak lan eremuak sortu behar ditu hori gauza dadin, eta lagundu behar du komunitatean proiektu ezberdinak errotu daitezen, horretarako, hasiera batean piloto moduan bultzatuz. Proiektuok auzoei edo zonalde jakinei lotuta egon behar dute nahitaez, horietako bakoitzean dauden beharrak edota bertako herritarren kezkak ezberdinak baitira; hala ere, denek xede bera izan behar dute: komunitate horiek sendotzea.

Donostiar guztiek zerbitzu publikoak baliatzeko aukera berdinak izatea da geure nahia –dagoeneko esan dugun bezala- ez baitugu inor atzean gelditzerik nahi, eta horrek zenbait talderi arreta berezia eskaintzea eskatuko digu.

Aspaldian hasi zen gune soziosanitarioa sortzen eta gaur egun berau hobetzen eta finkatzen dihardugu erakunde publikoek, hirugarren sektorearen partaidetzarekin.

Horren antzera, gune "sozioedukatiboa" sortu behar da, gizartearen etorkizuna diren gazteen beharrei aurre egiteko; hori, berriz diogu, komunitatea osatzen dugun guztion lana da, baina ez berez aktibatzen dena: aipatu ditugun bi gune horiek babesa eman behar diete herritar guztiei, baina, gune sozioedukatiboa bizitzaren lehen fasean dauden haurren beharrak asetzeari egokituko zaio batez ere, eta gune soziosanitarioak, berriz, adineko pertsonenak artatuko ditu, neurri handi batean.

Horiek abian jartzeko, baina, ezinbestekoa da hezkuntza eta osasun sistemekin elkarlan sendoa burutzea eta koordinazioa areagotzea. Horrela izan dadin lanean segituko dugu hurrengo lau urteetan ere.

Eta, dagoeneko, komunitatea egiten laguntzen duten proiektuak abian jarri ditugu azken legealdian; gehienak Donostia Lagunkoia Hiri Planaren baitan.

Donostian bizi diren pertsonen %23,65k -44.161 pertsonak, alegia- 65 urte baino gehiago dute, eta horietatik 7.877k (%4,21) 85 urte baino gehiago. Zahartze indizea Donostian 188,56koa da (emakumeen kasuan -231- gizonezkoen kasuan-147). Datu demografiko hauek agerian uzten dute gure hiria, munduko beste asko bezala, bizkor ari dela zahartzen. Fenomeno honek eragin zuzena du hiriaren bizitzan eta guztiz beharrezkoa auzi honi imajinazioz **eta planteamendu berritzaileen bidez** heltzea, hiri batek ezin baititu osatzen duten eskarmentu handieneko biztanleen aktiboak alde batera utzi, eta argi baitago zahartzeak planteatzen dituen erronkak hiri mailakoak direla, ez Udal mailakoak soilik.

Zahartzearena ez da fenomeno homogeneoa, izan ere, pertsona bat ez du duen adinak definitzen eta gero eta gehiago dira diskurtso estereotipatuei alde egiten dieten adineko pertsonak. Hiria **2009 urtetik aurrera ari da Donostia Lagunkoia plana sustatzen, eta etorkizunean ere sustatzen eta hedatzen jarraituko dugu.**

Donostia Lagunkoiak era integral eta sistemikoan erantzun nahi dio errealitate honi. Hori dela-eta, gaur egun hiria ahalik eta eragile publiko zein pribatu gehienen artean eraikitzen saiatzen ari da. Eragile publiko eta pribatu hauek zenbait helburu eta balore (parte-hartzea, autonomia, aniztasuna, genero ikuspegia eta adin guztientzako izatea) partekatzen dituzte, Hiri Plan honen xede nagusia oso argi izanik: gaur egungo beharrei erantzuna ematearekin batera, etorkizuna ere proiektatzea, etorriko direnentzako soluzioak planteatuz eta erronka hau hiriari aberastasuna eta aukera berriak ekartzen eta ekarriko dizkiola argi izanik.

Proiektu bizia da, beraz, Donostia Lagunkoia, gobernantza eredu horizontal bati jarraitzen diona, eta hauexek dira Planaren bitartez lortu nahi ditugu helburuak:

- Zahartzen ari den gizarte batean adin guztietako hiria eraikitzea. Egun, lau ardatzen inguruan ari da lanean Donostia Lagunkoia (gune publikoa eta mugikortasuna, bizitza osorako etxebizitza, zaintzen duen komunitatea eta adinaren kudeaketa) eta gobernantza eredu propioa dauka: horizontala eta eragile anitzak dituena. Baita erronka berriak ere: Donostia osoan hedatzea, partaideen artean aniztasun handiagoa lortzea, ikusgarritasuna areagotzea eta lidergoak horizontalagoak zein banatuagoak egitea eta horixe gure konpromisua, Udaletxetik Hiri Plan hori bultzatzen jarraitzea.

- Legealdian zehar Donostia Lagunkoia Hiri Planak bultzatuta abian jarri diren zenbait ekintzak –L-kaleak, erlauntzak…- komunitateak indartzea izan dute helburuetako bat eta, adierazi bezala, horixe da EAJ-ren iparrorratza. Alabaina, komunitate horietan zerbitzuak eskaintzen jarraitu behar dugu. Zenbaitetan daudenak hobetuz, eta beste zenbaitetan berriak abian jarriz: gizarte politiketan, kirolean, hezkuntzan, segurtasunean, irisgarritasunean eta mugikortasunean zereginak ditugu oraindik. Udal bati dagozkion zereginak, hain zuzen.

3.2. KOHESIORAKO GIZARTE POLITIKAK

Donostiarrok egiten dugu Donostia eta guztion ekarpenak beharrezkoak dira geure hiria aberatsagoa izan dadin. Herritar guztiek, ordea, ezin dute hiriaren bizitzan modu berean parte hartu: zaurgarritasun ekonomikoan, familia egoera zailean, mendekotasun egoeran edo mendekotasun arrisku egoeran dauden pertsonek eta sare sozialik ez dutenek, kasu, ezin dituzte maiz hiriak eskaintzen dituen aukera guztiak baliatu eta hiria ere ezin da haien ekarpenez aberastu.

Gizartea pobretu ez dadin, derrigorrezkoa da aipatutako egoera horiek gainditzen lagunduko dieten bitartekoak eskaintzea. Horixe da, beste sistema batzuekin batera, Gizarte Zerbitzuen sistemaren helburua.

Udal Gizarte Zerbitzuak dira donostiarrok Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistemara dugun sarrera, sistema honek eskaintzen dituen eta 2016ko abenduaren 27tik eskubide subjektibokoak diren baliabideak Udal Gizarte Zerbitzuetatik bideratzen baitira. Donostiako zortzi gizarte-zerbitzu zentro eta Gizarte Larrialdietarako Zerbitzuan, **arreta unibertsala** eskaintzen zaio herritarrari, pertsona horren adina edo jatorria kontuan hartu gabe eta beti konfiantzan oinarrituriko harremana ezarriz.

Gizarte Zerbitzu zentroetan 2015-2019 Legealdian zehar hobetu egin dira arretarako eredua eta organizazioa, (hitzorduen epeak zehaztu eta laburtu, interneten bidez eskatzeko aukera, tramitazioa erraztu, erantzuna azkartu, adierazleak definitu eta plantilla handitu dugu). Gainera, Loiolako Erriberetako eta Morlanseko gizarte zerbitzuetako zentroak zabaldu dira eta Egiakoa berritu da herritarrekiko hurbiltasuna areagotuz.
Hauekin guztiekin batera, ebaluazio-kultura ezarri behar dugu gizarte zerbitzu sozialen arloan, geure interbentzioen eragina neurtzeko gauza izan behar baitugu.

Gizarte bazterkeria egoerandauden pertsonei dagokienez, azpimarratzekoa da legealdi honetan Legearen eta Udal irizpideen araberako baldintzak betetzen zituzten eskaera guztiak erantzun izana.

Gizarte bazterkeria egoera dauden pertsonei dagokienez, –eta bazterketa egoeran edo bazterketa arriskuan daudenentzako dirulaguntzen arloan- nabarmentzekoa da legealdi honetan heldu diogula irizpideak betetzen zituzten pertsona guztiei zegokien dirulaguntza emateko konpromisuari. Laguntzaren kopuru ekonomikoa igo dugu gainera, eta, zorionez, azken urteetan eten egin da aurreko urteetako eskatzaileen kopuruaren goranzko joera.
Legealdian zehar, gainera, bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako beste errekurtso batzuk jarri ditugu martxan, edo hobetu ditugu: emergentziazko pisuetan plaza gehiago sortu, Gaueko hobetu, Hestian arreta hobetu, Intxaurrondon akonpainamendu programa abian jarri, Foru Aldundiarekin batera Housing First programa abian jarri dugu eta esklusio egoeran dauden pertsonentzako etxebizitza tutelatuen programa definitu eta abian jartzeko urratsak eman ditugu, besteak beste.

Dagoeneko argi utzi dugu zahartzearen erronkari heldu diogula eta heltzen jarraitzeko borondate irmoa dugula. Aspalditik ditugu hirian –eta Euskadi osoan- adineko pertsonak artatzeko zerbitzuak, eta horietako bat Etxez Etxeko Laguntza dugu. Aski ezaguna denez, zahartzearen ondorioetako bat bakardadea da. Dudarik gabe, Etxez Etxeko Laguntza da bakardadeari aurre egiteko dugun tresna garrantzitsuenetako bat.
Legealdi honetan, Donostian Etxez Etxeko Laguntza zerbitzua malgutu dugu eta 2018tik ordu gehiago jaso ditzake zerbitzu honen erabiltzaileak. Gainera, zerbitzuaren aldeko apustu sendoa egin du Udalak zerbitzuaren aurrekontua %10 handituz, alde batetik eta erabiltzaileentzako prezioa jaitsiz, bestetik (2015ean 18,76 € orduko eta 2019an 14 € orduko). 856 erabiltzaile ditugu (+%45).

Adinekoentzako bisita programarekin jarraitu dugu eta eta Goizaldiak gehitu (+39,3). (Goizaldiek, adineko pertsona ahulak haien ingurunean eta giroan bizitzen laguntzeko errekurtsoak eta gizarte harremanak estutzeko helburua dute. Bertan parte hartzen duten pertsonek, besteak beste, osasun

kognitiboa eta fisikoa mantentzeko jarduerak egiten dituzte) eta Egia, Altza eta Intxaurrondoko Zahar etxeak birgaitu ditugu.
Azpimargarriak dira etxebizitzetan irisgarritasuna hobetzeko lanetarako emandako diru laguntzak. Horrez gain, datorren legealdian martxan jarriko dira Kanpandegiko apartamentuak.

2018. urtean 14.883 familia (bizikidetza unitate) artatu zituzten Gizarte Ekintzako langileek (horietako 3.677 familia lehen aldiz) eta horien beharrak asetzeko 18.093 gizarte errekurtso erabili ziren.
Mota ezberdineko errekurtsoak izan ziren eta guztiek xede bera izan dute: jasotzen zituzten pertsonei harreman-sarea berreskuratzen, osatzen edo sortzen laguntzea.
Errekurtso horiek finantzatzeko 29.800.000 (29.799.318,52) euroko inbertsioa egingo du Donostiako Udalak 2019 urtean, hau da, 2015ean baino %20 gehiago.

Hau dena kontutan hartuta, EAJ-PNVek honako lan-lerro eta proposamenak bultzatuko ditu:

3.2.1. Hiritaren lehen arreta hobetzea

Adierazi dugun bezala, Udal Gizarte Zerbitzuak dira Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistemarako gure sarrera. 2015-2019 legealdian zehar egindako hobekuntza bideari jarraituz, honako ekimen hauek bultzatuko ditugu:

- Arreta integrala eskaintzen jarraituko dugu eta kasuaren arduradunaren figura ondo ulertzeko lanean jarraituko dugu.
- Gizarte zerbitzuguneak hobetzen jarraituko dugu: Antiguako zentroa berrituko dugu, Intxaurrondoko eta Alde Zaharreko zentroetarako proiektua bideratuko dugu. Txominenean zerbitzugune berria jartzea aztertuko dugu
- Hitzorduak**:** azkarrago eman eta iraupen luzeagokoak izango dira.
- E-mailezko bidea jarriko dugu martxan herritarrak gizarte zerbitzuetara errazago iristeko.
- Tramiteak erraztuko ditugu prozedurak sinplifikatuz, epeak laburtuz eta hizkuntza administratibo ulergarriagoa erabiliz, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz. Hizkuntza ofizialak ongi ulertzeko modu bateko edo besteko arazoak dituztenak ere izango ditugu gogoan hizkuntza administratibo ulerterrazagoa egiterakoan.
- AES tramitazioa arindu eta azkartuko dugu, aplikazio informatikoa hobetuz.Presentzia komunitarioa areagotuko dugu, jendeak zerbitzuguneetan egiten den lana ezagutzeko.
- Arlo sozio-sanitarioa hobetuko dugu, osasun arloko profesionalekin koordinazioa areagotuz, batez ere bi sistemen erabiltzaileei dagozkien kasuetan. Arlo sozio-sanitariorako praktika onen sistema landu eta ezarriko dugu.

- Esku-hartze komunitariorako esperientzia berriak bultzatuko ditugu: Intxaurrondoko laguntza programa baloratu ondoren, antzeko beharrak sumatzen diren beste zentroetan ere ezarriko dugu.
- *Otorduak* programari segimendua egin eta beharraren arabera beste auzo batera zabalduko dugu

3.2.2. Gizarte bazterkeriari aurre egitea

Oinarrizko beharrei erantzuteko nahikotasun ekonomikoa eta etxebizitza bermatu behar dira. Batak zein besteak bere garapenerako Legea dute eta ez dira Gizarte Zerbitzuetako esparruan kokatzen. Egun Euskadin Lanbidek kudeatzen duen Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI delakoa) da nahikotasun ekonomikoari eusteko dugun tresnarik baliotsuena. Honez gain, Udalak kudeatzen ditu beste bi laguntza ekonomiko ere:

- Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eta Lan Partekatuaren Plana sustatzeko laguntzak.

Laguntza ekonomikoez gain, udalak bizitegi-bazterkeria egoeran edo egoteko arriskuan dauden pertsonei edo familiei zenbait errekurtso eskaintzen dizkie: emergentziazko pisuak, Abegi Etxea eta Gaueko. Gainera, bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitzen diseinua egin dugu eta plaza batzuk 2019an martxan jartzeko dotazio ekonomikoa aurreikusi dugu.

- *Hestia* deritzan eguneko zentroa dugu beste errekurtso bat. Legealdian zehar proiektu berria diseinatu dugu eta dotazio ekonomikoa ere prest dugu 2019 urtearen amaieran lanak egiten hasteko.
- Hauez gain baliotsuak dira gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua bai eta arrisku egoeran dauden pertsonentzako programak ere. Lau ditugu une honetan martxan (Elkarrekin, Aurrera, Bidean eta Emakume Ijitoak).

Hau dena kontuan hartuz honako ekimen hauek bultzatuko ditugu datorren legealdian:

- Udalak kudeatzen dituen laguntza ekonomikoei dagokienez, legeak eta udal irizpideak betetzen dituzten Gizarte Larrialdietarako Laguntzen eskatzaile guztiei erantzuten jarraituko dugu.
- Emergentziazko pisuetan 16 plaza gehiago jarriko ditugu martxan, eta larrialdiko pisuetan dauden familiei egiten zaien segimendua hobetuko dugu.
- Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitzak, zorroak mugatzen dituen plaza guztiak jarriko ditugu martxan dagoeneko definitu dugun ereduari jarraiki.
- *Hestia* eguneko egoitza berria abian jarriko dugu.
- Eranskina hobetzeko aukerak aztertu eta landuko ditugu.

- *Gaueko* errekurtsoari dagokionez, legealdi honetako hobekuntzez gain, erabiltzaileei afariak ematen hasi gara eta 2019an urte osoan zabalik egongo da. Foru Aldundiarekin koordinazioa areagotuko dugu lehen eta bigarren mailako arreta zerbitzuak osatzeko, horrela bazterkeria egoeran dauden pertsonei arreta egokiena eskaintzeko.
- Osakidetzarekin koordinazioa areagotu: kale-egoeran dauden pertsonak artatzeko, eriondoa Abegian pasatzeko hitzarmena sinatuko dugu eta kale-psikiatria unitatea martxan jartzeko lan egingo dugu.
- Lantaldea osatuko dugu Foru Aldundiarekin esklusio egoeran dauden adineko pertsonentzako ostatu aukera berriak aztertu eta eskaintzeko.
- Hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko beste hiru tailer jarriko ditugu martxan.
- Gizarte Ekintza eta Donostiako Sustapenarekin elkarlanean, bezterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsonentzako lan aukerak aztertu eta horiek abian jartzeko hitzarmenak bultzatuko ditugu.
- Gizarte Ekintza, Donostia Kultura eta Donostia Kirolarekin elkarlanean, kale egoeran dauden pertsonentzako aisialdi programa pilotoa jarriko dugu martxan.
- Prostituten esklusio egoera aztertzeko ikerketa egingo dugu, datuak ezagutu ondoren arreta-plangintza egiteko.
- Gizarte bazterkeriari aurre egiteko jarduerei genero ikuspegia txertatuko diegu.

3.2.3. Haurtzaroa eta familia: arreta beharra izanik, berezko ahotsa ez duten herritarrak

Donostiako udalak urteak daramatza babesgabetasuna pairatzen duten adingabeak ahalik eta era egokienean artatzeko lanean.

Egoera hauek detektatzea ez da lan erraza, eskumena duten administrazioek eraginkortasunez aritu behar dute detekzio lan horretan eta, detektatu ondoren ere, interbentzio-estrategia egokienak aukeratu behar dira.

Donostiako Udalak duela urte dezente ekin zion gaiari buruz hausnartzeari eta hirian lan-lerro berritzaileak ezartzeari eta legealdi honetan ere bide horri ekin diogu: detekzio eta eskuhartze goiztiarra programa hedatzen jarraitu dugu eta interbentzio arloan ebidentzian oinarritutako zenbait programa jarri ditugu abian (ebidentzian oinarritutako programak interbentziorako programa mota bat dira, ezaugarri komunak dituzten pertsonentzako egokiak eta helburu zehatzak eta behagarriak ezartzen dituztenak).

Eta hauekin guztiarekin batera, gune sozioedukatiboa sortzen hasi beharra dugu. Hezkuntza Departamentua, Foru Aldundiarekin eta hirian ditugun Unibertsitateekin elkarlanean, mahai gainean jarri behar ditugu egun planteatzen diren eta haurren eta nerabeen bizi-kalitatea gutxitzen duten egoera ezberdinak, zenbait erronkari ezin baitiegu udaletxetik bakarrik erantzun: egoera ekonomiko kaskarrak,

enplegu baldintza ezegokiak, jatorri kultural ezberdina, sustantzia ezberdinen kontsumoen eragina, adikzioak –jokoarekiko, sustantzia ezberdinekiko- horiek denei heldu eta irtenbideak planteatzen hasi behar dugu; eta, jakina, irtenbideak planteatzean, komunitatea sendotzearen beharraz arduratu beharko dugu.

Hau dena kontuan hartuta, honako ekimen hauek bultzatuko ditugu datorren legealdian:

- Haurtzaro arloaren planifikazio berria: une honetan gizarte zerbitzuguneetan lanean diharduten 3 psikologoek talde tinkoa osatuko dute programa berriak ezartzeko eta horien ardura aurrera eramatean efizienteagoak izateko.
- Detekzio eta esku-hartze goiztiarra programari eutsi eta hezkuntza zentro publiko eta hitzartu guztietara iristeko ahaleginak egitea. Gaur egun, Donostiako eskolen 54 hezkuntza zentrotan (%90etik gora), haurreskola guztietan, hiriko osasun zentro guztietan, haurtxoko eta gazte-lekuetan, udal kiroldegietan eta udaltzaingoan unitate profesionalak ditugu martxan, eta horiei eustea da oraingo erronka.
- Safe Care (0-5 adingabeak eta familiak), AVI (gurasoen eta haurren arteko lotura emozionala) eta Incredible Years (4-8 bitarteko haurrak eta familiak) ebidentzian oinarrituriko programak finkatu.
- Koparentalitate positiboa lantzeko ebidentzian oinarritutako programa abian jarri, judizializatutako dibortzio eta banaketa kasuetarako.
- Seme-alaben gurasoenganako bortizkeriari aurre egiteko programa abian jartzea.
- Nerabezaro zaila duten nerabeei zuzendutako programa abian jartzea.
- Taldekako saioak egitea, ebidentzian oinarritutako programak aurrera eramateko lokal egokia zabaltzea.
- Inguruko unibertsitateekin batera elkarlanean aritzea abian ditugun programen segimenduan zein programa berrien diseinuan.
- Foru Aldundiarekin lanean jarraitzea, koordinazioa hobetzeko asmoz.
- Adikzioen prebentzioa adin txikikoengan. Gazteria eta Jaiak Sailekin batera sortutako *Quitamultas* izeneko programari eustea eta teknologia "berrien" erabilerarako tailerrak nabarmendu nahi ditugu; azken hau guztiz berria bada ere, arrakastatsua ari da gertatzen, eta segimendua merezi du.
- Teknologia berrien erabilera egokirako programa hezkuntza zentro gehiagotara hedatu eta gurasoentzako zein irakasleentzako on-line plataforma hobetzea.
- Emakumeen kontrako indarkerian adin txikikoen esku-hartzea eta detekzioa hobetzea.

3.2.4. Bortxakeria pairatzen duten emakumeei arreta eskaintzea

Bortxakeria hau pairatzen duten emakumeei informazioa eta laguntza ematen zaie Udalaren atal eta erakundeetatik. Legealdi osoan zehar hainbat koordinazio taldetan aritu dira langile hauek, bai udal mailako arreta hobetzeko, bai egoera hauek pairatzen dituzten emakumeei laguntzen diharduten beste erakundeekin. Hala, emakumeen indarkeriaren kontrako udal protokoloa berrikusi eta hobetu da eta talde teknikoa eta politikoa osatu; talde horretan Berdintasunak, Gizarte Ekintzak eta Udaltzaingoak dihardute. Horretaz gain, Foru Aldundiarekin, Ertzaintzarekin eta Justizia Sailarekin elkarlana areagotu da. Eta, arretarekin batera, prebentzioari ere ekin diogu eta emakumeen kontrako indarkeria pairatzeko arriskuan dauden adin txikikoentzako tailerrak antolatu ditugu. Hau dena kontuan hartuz honako ekimen hauek bultzatuko ditugu datorren legealdian:

- Emakumeen atala birdefinituko dugu: esku-hartze diseinuak birplanteatuko ditugu.
- Atalaren plantilla handituko dugu.
- Laguntza handiagoa emango diegu emakumeen kontrako indarkeria pairatu duten emakumeei (tramitazio garaian)
- Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin koordinazioa areagotuko dugu.
- Emakumeen kontrako indarkeria pairatzeko arriskuan dauden adin txikikoentzako tailerrak antolatuko ditugu: urtean bi talde osatuko ditugu.
- Emakumeen kontrako indarkeria pairatzen duten emakumeentzako emergentziazko pisuetako emakumeei akonpainamendu handiagoa eskainiko diegu.
- Haurtzaroko babesgabetasunaren esku-hartzeetan genero ikuspegia integratuko dugu.

3.2.5. Zaurgarritasun egoeran dauden adineko pertsonei beren bizi-proiektua garatzen laguntzea.

(Ikus 3.1 ataleko Donostia Lagunkoia Hiri Plana)

Dagoeneko adierazi dugun bezala, gure hiriko datu demografikoek agerian uzten dute gure hiria, munduko beste asko bezala, bizkor ari dela zahartzen. Datu horiek oinarri, adineko pertsonen balioa eta haiekin zerikusia duten zaintzan parte hartzeko eskubidea aitortzen duten zaintza-sistemak eraikitzen ari gara eta bide horri jarraitu nahi diogu.

2019 urteko Gizarte ekintzaren departamentuaren aurrekontuaren erdia (%50,27), hots, 14.980.383,67 €, adineko edota ezgaitasunen bat duten pertsonentzako arretari zuzenduko zaizkio. Ahalegin honek, Legealdian zehar Gipuzkoako Zerbitzu Sozialen Erakundeen Arteko mahaiak aurrera eraman duen eta, ondorioz, hartutako akordioetan du oinarria, eta horixe da aurrerantzean jarraitu beharreko ildoetako bat.

Zahartzearen ondorioetako bat bakardadea da Bakardadea ez da berez adinarekin soilik lotutako fenomeno bat, baina adineko pertsona askoren ezaugarriek bakardade sentimenduak edukitzera

eramaten dituzte: ezgaitasunen bat edukitzea, gizarte-sarea desagertzea, ingurua galtzea, bakarrik bizitzea… bakardadea eragin dezaketen faktoreetako batzuk dira eta horiek ekiditeko hainbat zerbitzu eta programa ditugu Donostian.

Hona hemen legealdi berrirako helburuak:

- Etxez Etxeko Laguntza isolamendua saihesteko eta komunitatean parte hartzeko lanabes eraginkor bihurtzea, Gipuzkoako Zerbitzu Sozialen Mailan hartutako akordioei esker, eskuragarri dena.
- 80 urtetik gorako pertsonei, bakarrik edo beste adin bateko pertsona batekin bizi direnei eta Gizarte Zerbitzuetatik pasa ez diren pertsonei, prebentziozko bisitak egiten jarraitzea (adina 85 urtetik 80 urtera jaitsi dugu).
- Goizaldiak: legealdi berrian beste bi *goizaldi* abian jartzea.
- Adineko pertsonentzako babespeko apartamentuen zorroa handitzea (pisuak erdialdean -Arrasate 41- eta Alde Zaharrean)
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin koordinazioa areagotzea emergentziazko kasuetan ahalik eta erantzun egokiena emateko.
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lantaldea osatzea esklusio egoeran dauden adineko pertsonei arreta egokiagoa eskaintzeko.
- Etxean bakarrik bizi diren pertsonei medikazioa kudeatzen jarraitzea.
- Adineko pertsonak bakarrik bizi diren edota dauden etxeetan ke-detektagailuak errebisatzea eta etxe gehiagotan jartzea.
- Nagusilan eta Gurutze Gorriaren bidez bakarrik bizi diren adineko pertsonei lagun egiten jarraitzeko hitzarmenekin aurrera egitea.
- Donostiako adineko pertsonen elkarteen egoitzak, Zahar Etxeak, berritzen eta egokitzen jarraitzea:
    - “Jatorra” egokitzea
    - Intxaurrondo Hegoko zentroa egitea
    - Grosen lokal berria aurkitzea
    - Erdialden soluzioa diseinatzea
    - Kaialden irisgarritasuna hobetzea
    - Antiguan La Sirenako lokalak egokitzea
- “Gure Bizitza”n egokitze lanak egitea
- Donostiako Zahar Etxeetan hasitako “Zahar Etxe Lagunkoia” programari segimendua ematea
- Antiguako Zahar Etxean abian jarri duten “Begirada Aktiboa” eta Amarako Egunsentian “Zaintzen duen komunitatea” egitasmoei babes handiagoa ematea.

- Etxean oztopo arkitektonikoak dituzten pertsonei etxeetatik ateratzen laguntzeko DYAren bidez ematen dugun zerbitzuarekin jarraitzea.
- Adineko pertsonen elkarteei babes teknikoa ematen jarraitzea eta babes hori areagotzea.
- Adinekoen parte-hartze aktibo, soziala eta kulturala sustatzen jarraitzea: +55 ekin aurrea egitea eta Donostia Kultura, Donostia Kirola eta Musika eta Dantza Eskolarekin zein beste udal sailekin koordinazioa sustatzen jarraitzea.
- Adineko pertsonen zaintzaileei laguntzak eskaintzea.
- Adineko pertsonekin lanean ari diren hirugarren sektoreko elkarteekin elkarren arteko kolaborazioa sustatzeko lan taldea sortzea.
- Alzheimerrak jota dauden pertsonentzako psikoestimulazio kognitiboaren programarekin jarraitzea.
- L-kaleak proiektua hiriko beste hiru auzotan abian jartzea: komunitatean sareak ehuntzea adineko pertsonak komunitateko eragile publiko eta pribatuak zaurgarritasun egoeren antena bihurtuz.

3.2.6. Beste eragileekin elkarlanean: hirugarren sektorea

Gure hirian zaurgarritasun egoeran dauden pertsonei sareak berreraikitzen edo sortzen laguntzeko, elkarte asko ari dira lanean.

Arlo sozio-sanitarioari dagokionez, gaixotasun baten eraginez gizarte bizitzan erraztasunez aritzeko zailtasunak dituzten pertsonen inklusioaren alde dihardute lanean; adineko pertsonen ingurukoek, berriz, adin talde honetan dauden gizon eta emakumeei bakardadeari aurre egiten laguntzen diete; bazterkeria egoeretan dauden pertsonekin lan egiten dutenek egoera hauetan daudenei aukerak eskaintzea dute jomuga; mendetasun egoeran dauden pertsonek bizitza erabat normalizatua eduki dezaten. Zenbait elkarte sekulako lana egitenari dira talde horiek ikusaraziz eta haiek gizarteari dakarzkieten onurak erakutsiz eta; haur eta gazteekin ari direnek, oster, bizitzaren arlo honetan planteatzen diren zenbait egoera gatazkatsu gainditzen laguntzen diete gazteei zein haien familiei.

Denak ditugu beharrezko, haiek dira gure hiriaren ikur eta askotan administrazioak iritsi ezin garen kasuetara iristen dira. Horregatik elkarlana bultzatzen jarraituko dugu eta horretarako:

- Gizarte Ekintzako Aholku Batzordearen dinamika berraztertuko dugu elkarte guztien lana ezagutu dadin eta haien artekoa eta administrazioarekikoa areagotzeko.
- Elkarteentzako diru-laguntza politikak berraztertuko ditugu

3.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISOA

EAJ-PNVn uste dugu gizarte kohesionatu bat, demokraziaren eta giza eskubideen balioekin konprometituta dagoen hiri bat, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekin konprometituta dagoen hiri bat dela, baina are gehiago zehaztu nahi dugu konpromiso hori.
Feminismoak ekarpen handia egin dio gizarteari, besteak beste, herritarren eskubideetara txertatu duelako biztanleriaren erdia, emakumeak.

Boto-eskubidea, lanerako edo hezkuntzarako eskubidea aldarrikatzen hasi ginen eta, orain, soldata-aldeaz, kristalezko sabaiaz edo genero-indarkeriaren kontrako konpromiso sendoaz hitz egiten dugu. Aurrerapausoak ematen jarraitu behar dugu gizonen eta emakumeen erabateko berdintasuna lortzeko. Emakume izate hutsagatik beldurrik ez sentitu behar izatea nahi dugu, gune kritikorik ez izatea edo erasoengatik protesta egin beharrik ez izatea. Hori da guk nahi dugun hiria. Pertsonaren sexua edo generoa desberdintasun-faktore bat ez izatea.

Berdintasunaren bidean aurrera egiteko konpromisoa zeharkako ardatz bat da eta Udalaren eta haren lan-eremu guztien gobernu-ekintzak zeharkatu behar ditu. Berdintasun-eremutik ekimenak dinamizatuko dira, baina genero-ikuspegia gure politika publiko guztietan txertatzea lortu behar dugu.
Lan-ildo horren adibide ditugu, esaterako, puntu beltzak ezabatzeko atarien ordenantza, genero-analisia udal-aurrekontuetan sartu izana, STMren 12+1 bekak, suhiltzaile-zerbitzuaren eskaintza publikoa eta emakumeek jaialdietan duten presentzia sendoa, Jazzaldian, adibidez.

Era berean, balio sinboliko handiagoa duten ekimenak gauzatu behar ditugu, gizon-emakumeei eta bereziki haurrei gero eta berdinzaleagoa izango den Donostia bat irudikatzeko. Zentzu horretan, oso garrantzitsuak dira kirol-arloan egiten diren ekimenak, hala nola Kontxako Banderaren sariak parekatu izana eta “Goazen neskak!” kanpaina.

Legegintzaldi honetan oso garrantzitsuak izan dira, halaber, erasoak eta genero-indarkeriako kasuak salatzeko egin diren ekimenak eta biktimei eman zaien babesa eta laguntza, baita informazio- eta prebentzio-programak ere.
Gaur egun inoiz baino handiagoa da berdintasunaren aldeko sentsibilitatea eta mobilizazio soziala, baina, aldi berean, dagoeneko gaindituta genituela uste genuen diskurtsoak entzuten eta jarduketak ikusten jarraitzen dugu. Guk genero-politikekin konprometituta egoten jarraitzen dugu.
EAJ-PNVtik honako lan-ildo hauek bultzatuko ditugu hurrengo legealdian:

- Tailerren bitartez, arrisku-egoeran dauden adingabeekin lan egingo dugu. Genero-ikuspegia berariaz txertatuko dugu haurren babesgabetasuneko esku-hartzeetan.
- Genero-ikuspegia udaleko lan-eremuetan txertatzea, Udaleko langileek prestakuntza handiagoa izan dezaten.
- Emakumeak lan-merkatuan sar daitezen sustatzea (1. konpromisoa, hiri aberatsa).
- Erantzukidetasuneko eta lana eta familia bateragarri egiteko ekimenak martxan jartzea.
- Kontratazio-klausulak (5.3.4. Ogasuna eta Finantzak) Eusko Jaurlaritzak aurreratutako irizpideetara egokitzea. Horrela, ordainsarietan diskriminaziorik ez izateko kontratu bidezko beharra ezarriko da eta kontratazioetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako esleipen-irizkideak txertatuko dira; horrek baremo osoaren % 5eko haztapena izango du gutxienez. Kontratuak esleitzeko orduan, mota honetako irizpideak hartuko dira kontuan: erantzukizun handiko, gerentziako edo kualifikazio altuko postuetan % 50 emakumeak direla bermatu beharko da kontratuaren prestazio osoan zehar; emakumeak kontratatu beharko dira enpresak kontratua betetzeko gauzatzen dituen kontratazio berri guztietan; edo berdintasun-politikak hartu beharko dira hura gauzatzen den bitartean.
- Emakumeen irudi historikoa berreskuratzea. Emakume garbitzaileak. Emakume baserritarrak. Kontadoreseko emakumeak. Emakume zigarrogileak.

Genero-indarkeriaren aurkako borroka eta sexu-askatasunaren kontrako delituak

- Erasoak salatzen jarraituko dugu, biktimei babesa eta laguntza eskainiz.
- Prebentzioan eta sentsibilizazioan lan egingo dugu, gazteen artean batez ere.
- Pertsonengan oinarritutako hiriari dagokion konpromisoan (3.8. Hiri Segurua) jasotzen den moduan, genero-indarkeriaren biktimei arreta eskaintzeko unitatea indartuko dugu Udaltzaingoan, eta etxera modu seguruan itzultzeko bide kontrolatuak planifikatu eta kontrolatuko ditugu. Horrez gain, sexu-askatasunaren kontra gauzatu daitezkeen delituen prebentzioa areagotuko dugu, Ertzaintzarekin elkarlanean.
- Pertsonengan oinarritutako hiriari dagokion konpromisoan (3.2.4. Kohesiorako gizarte-politikak: genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta) jasotzen den moduan, zerbitzua berrantolatu eta indartuko da, administrazioko izapideetan eta larrialdi-pisuetan dauden bitartean laguntza hobea eskainiz.

3.4. KIROLA: OSASUNERAKO ETA GIZARTE-KOHESIORAKO TRESNA

Azken lau urteetan igo egin da jarduera fisikoa edo kirola egiten duten donostiarren ehunekoa eta herrialde aurreratuenen maila berean kokatu gara. Kirol gehiago egiteak gizarte aktiboago eta

osasuntsuago bat sortzen du eta, beraz, bizi-kalitatea ere hobea da. Kirolak kohesio-funtzio garrantzitsua betetzen du adin, sexu, jatorri eta interes desberdinetako pertsonen artean, eta garrantzi handia ematen diogu.

Indize hori % 75etik gora kokatu dadila lortu nahi dugu, eta hori izango da, hain zuzen ere, gure hurrengo lau urteetarako erronka eta helburua, herritarrek jarduera fisikora bideratzen duten denbora gero eta handiagoa izan dadila batik bat. Atzera begiratuz gero, aldaketa zinez esanguratsua izan dela ikusiko dugu, baina oraindik ere egiteko asko dago ehuneko horretara iristeko.

Helburu hori lortzeko, kirol-zerbitzu publikoak sendotzearen aldeko apustua egin behar dugu, berrikuntza sustatuz eta horien kalitatea hobetuz. Erronka horretan, sendotu egin behar dugu hiriko kirol-eragileen sare osoarekin dugun harremana; horrela, kalitatea hobetu eta lehendik ditugun baliabideak optimizatuko ditugu.

Kirol Txartela tresnarik garrantzitsuena bihurtu da herritarren artean kirola sustatzeko. Azken lau urteetan, Kirol Txartelak 48.000 harpidedun baino gehiago izatea lortu dugu, eta horiei zeharkako kudeaketa egiten duten gainerako udal-instalazioetako harpidedunak gehituz gero, biztanleri osoaren % 30era iritsiko ginateke. Hurrengo lau urteetan, ehuneko hori % 33ra igotzekoa nahi dugu eta, beraz, Kirol Txartelak 52.000 harpidedun izatea lortu behar dugu.

Donostia EAJ-PNVtik honako lan-ildo eta ekintza hauek sustatuko ditugu:

- Atletismorako eta errugbirako miniestadioa berritzea.
- Alde Zaharreko kirol-ekipamendua, Bretxako *Pescaderia* eraikinean.
- Belar gaineko hockey-zelai berria Zubietan.
- Futbol- eta errugbi-zelai berriak Merkearren.
- Altzako kiroldegia eraikitzea; hark kirol-pistak, igerilekuak eta gimnastika erritmikorako gune zehatzak izango ditu.
- Loiolako Erriberetan piraguismoko zentroa eraikitzea teknifikazio-zentro gisa.
- Udal futbol-zelaiak berritzen jarraitzea.

3.4.1. Kirol Txartelak eskaintzen dituen zerbitzuak hobetzea eta areagotzea

- Gimnasioak hobetu eta handituko dira batez ere, eta zerbitzu berriak txertatuko dira (duela gutxi gehitu den Kirol Ekintzak Aukera bezala). Gaur egun ditugun gimnasioez gain, ekipamendu berriak ezarriko dira Loiolako Erriberetan eta Txomin Enean, lehendik daudenak handituko dira Paco Yoldi Kiroldegian, instalazio berri bat eraikiko da gaur egungo miniestadioan, kiroldegi berri

bat egingo da Altzan eta kirol-eremuak handituko dira Bidebietako kiroldegian. Horrez gain, 200.000 euroko zuzkidura bideratuko da, urtean, eremu horiek hornitzeko.

- Zerbitzuak digitalizatzen jarraituko dugu, izapidetze- eta kudeaketa-prozesuetan nahiz kirol-zerbitzuen online eskaintzan (entrenamendu-planak, osasun-azterketak, saio birtualak…), joera berrietara hobeto egokituz.

- Hurrengo lau urteetan 19.000 parte-hartzailetara iritsi nahi dugu Kirol Ekintzak Kanpainan, eta 15.000 parte-hartzaile baino gehiago izan nahi ditugu UDA kanpainan. Horretarako, gela berriak gehituko ditugu gaur egungo sarera (Txomin Enean, Alde Zaharrean eta Altzan), eskaintzen ditugun jarduerak berrituko ditugu (aukeren zerrenda handituko dugu) eta izapideak sinplifikatzeari ekingo diogu, jorratu beharreko beste gai bat dela uste dugulako.

3.4.2. Osakidetzarekin, Gizarte Zerbitzuekin eta beste erakunde batzuekin elkarlanean programa zehatzak ezartzea, honako helburu hauekin:

- Jarduera fisikoaren eta hark osasunean eragiten duen hobekuntzaren arteko harremana indartzea. Ildo horretan, honako hau izango litzateke jorratu nahi dugun proposamena:
- PIZTU programa osasun-zentro bat duten hiriko auzo guztietara zabaltzea, gaur egun eskaintzen dituen zerbitzuak areagotuz.
- Kirolak gizarteratzeko tresna gisa duen ahalmena sendotzea, batik bat desgaitasuna duten pertsonen, etorkinen, errefuxiatuen, gizarte-bazterkeria arriskuan dauden pertsonen eta abarren artean. Neurriak ezartzen jarraitu nahi dugu, Gizarte Kirol Txartelarekin eta familia gurasobakarren Kirol Txartelarekin egin dugun moduan; horrez gain, elkarlanean jardungo dugu harrera-etxeekin, Gurutze Gorriarekin (errefuxiatuen kasuan), kirol egokituko federazioarekin eta beste elkarte askorekin.

Gainera, 500.000 euroko balantze sozialera iritsi nahi dugu laguntza horiekin jasotzen ez diren diru-sarrerei dagokienez.

3.4.3. Eskola-kirolean eta kirol federatuan hobekuntzak egitea, kirol-arloan eremu horiek definitzen baitute gure hiria.

- Eskola-kirolari dagokionez, % 70etik gorako partaidetza-ehunekora iritsi gara. Zentzu horretan, aurrerapausoak ematen jarraituko dugu, haren helburu hezigarria sendotzeko eta kirol federatuarekin jarraitu ahal izateko. Horrez gain, ikastetxeekin elkarlanean jarraitu nahi dugu,

horiei dirulaguntzak emanez, instalazioak doan utzita eta ikastetxe publikoetako kirol-eremuak egokituz, besteak beste.

- Kirol federatuaren kasuan, Donostiak 10.000 lizentzia baino gehiago ditu gaur egun, eta ratio horiek honako neurri hauekin hobetu nahi ditugu hurrengo legealdian:

3.4.4. Kirol-ekitaldi garrantzitsuen antolakuntza sustatzea

- Gaur egun egiten diren kirol-ekitaldiez eta legegintzaldi honetan garatu diren jarduera berriez gain, egutegia zabaldu nahi dugu. Horrela, bada, autonomia-erkidegoaren mailatik gorako 50 kirol-proba baino gehiago antolatu nahi ditugu. Zentzu horretan, tokiko eta nazioarteko kirol-agenteekin lan egiten jarraituko dugu.
- J.A. Gasca Kiroldegia berritu nahi dugu, mota horretako ekitaldiak antolatzen direnean hark barne hartzen duen edukiera hobetu ahal izateko. Dena den, hark bere eginkizun nagusia betetzen jarraituko du, hiriko eliteko taldeei zerbitzu ematea, alegia.

3.4.5. Emakumezkoen kirola babestea

Donostia erreferentziazko hiria da goi-mailako emakumezkoen kirolari dagokionez, eta hari babesa ematen jarraituko dugu, emakumezkoen kirolari dirulaguntza zehatzak emanez eta horiek sustatzeko eta ikusgai egiteko kanpainak sustatuz. Une honetan, emakume federatuen ehunekoa % 33koa da. Azken lau urteetan, 9 puntuko igoera gertatu da eta, beraz, hartutako neurriak baliagarriak izan direla esan dezakegu.

- Hurrengo lau urteetan, kirol federatuan emakumezkoen fitxak % 40ra iristea lortu nahi dugu.

3.4.6. Herri-kirolak babestea eta garatzea

Honako hau da gure plan estrategikoaren beste giltzarri bat. Esparru honetan, eskola-lizentzien eta lizentzia federatuen % 25era iritsi nahi dugu hurrengo lau urteetan. Horretarako, honako ekintza hauek sustatuko ditugu:

- Sustapen-kanpainak ikastetxeetan
- Teknifikazio-ariketak
- Espezializatze horiek diruz laguntzeko irizpide lagungarriak
- Lehendik dauden instalazioen hobekuntza

3.4.7. Aire zabaleko kirola sustatzea

Izatez, Donostia aire zabaleko kiroldegi handi bat dela esan dezakegu, hiriak dituen hiri- eta natura-ezaugarriak direla eta. Legegintzaldi honetan, zenbait ekintza garatu ditugu (running-ibilbideak, kirol-kantxak…) kirol-jarduera hori sustatzeko eta, une honetan, kirola egiten duten herritarren % 58k aire

zabalean egiten dute. Hiria kirol-esparru gisa erabiltzen jarrai dadila nahi dugu. Horretarako, honako neurri hauek planteatu ditugu:

- Aire zabaleko hiri-gimnasioen sare bat gaitzea.
- Skate-gune berriak.
- Jolaserako kirol-pistak.
- Piraguismo-zentro berri bat Loiolako Erriberetan, Urumea ibaiak eskaintzen dituen aukerak baliatuz.

3.4.8. Kudeaketaren hobekuntza eta berrikuntza, ingurumenarekiko konpromisoa txertatuz

Lau urte hauetan zehar, **Kudeaketa Aurreratuari** Brontzezko Aintzatespena jaso duen lehen udal-erakundea izan gara.

- Kudeaketa-sistema hobetzen jarraituko dugu, horrek zuzenean eragiten baitu erabiltzaileen gogobetetasunean. Hurrengo lau urteetan, balorazio hori zerbitzu guztietan 8tik gora (10etik) kokatzea izango da gure erronka.
- Hiriko kirol-klubei lagunduko diegu, horiek ere kudeaketa-sistema aurreratua izan dezaten.

Berrikuntzari dagokionez:

- Hiriko kirol-eskaintza osoak eskaintzen diren zerbitzuen digitalizazioa hobe dezala lortu nahi dugu, online plataforma zentralizatuen bitartez.

Ingurumenarekiko konpromisoari dagokionez:

- Donostia Kirolaren konpromisoa garbia da. Azken lau urte hauetan erdira murriztu ditugu CO2 isurpenak. Zentzu horretan, neurriak ezartzen jarraituko dugu, isurpen horiek gutxienez beste % 20 murriztu daitezen.

3.4.9. Anoeta kiroldegia. Berrantolatzeko proposamena zehaztea

2015-2019 legegintzaldian, Anoeta kiroldegia birmoldatzen hasi gara. Estadioaren birmoldaketa-lanak errealitate bat dira dagoeneko Anoeta Kiroldegian, Errealarekin elkarlanean. Era berean, Miniestadioa birmoldatzen ari gara. Donostia EAJ-PNVn, honako lan-ildo hauetan lan egingo dugu kirol-hiria modernizatzeko:

- Gasca kiroldegiaren berrikuntza.
- Atano Frontoiaren berrikuntza.
- Ilunbe udal-guneari erabilera bat ematea.
- Beste erakunde batzuekin partzuergo bat sortzea, Anoetako kiroldegia elkarrekin kudeatzeko.

3.4.10. Illunbe

Donostia Arena askotariko erabilerak izango dituen pabilioi bihurtzea proposatzen dugu, Europako beste hainbat guneren eredura. Egin beharreko lanak eginda, hainbat eratako erabilera izan dezake etorkizunean: kultura, musika, kirol ikuskizunak... Horrek aparteko balioa emango lioke hiriaren ondareari. Inbertsio egoki bat egin eta izaera balioaniztuna bermaturik, askoz erabilpen handiagoa emango litzaioke gainera.

Illunbe Anoetako Kirol Hiriaren parte da, eta honen birmoldaketa ikuspuntu orokor batetik aztertu behar da, egungo kirol zein kultur azpiegituren premiei erreparatuta, bere osotasunean.

Illunbeko gainerako espazioei dagokienez, gure lehentasuna salmenta-akordioa ixtea da, erabilera mistoa izango duen proiektu bat garatu ahal izateko, merkataritza eta aisialdi-eskaintza osatuko duen egitasmoa garatzeko. Gaur egun, erdi abandonaturik eta hutsik dagoen ingurua da Illunbe, eta berau berpiztea da gure apustua. Proiektu horrek, gainera, inguru guztiko errepide eta sarbideak hobetuko ditu, Anoeta ingurutik nahiz ospitaleetatik.

Illunbeko kontzesio administratiboetan hobekuntzak egitea proposatzen dugu.

3.5. GAZTERIA. GAZTERIA-POLITIKAK.

Gazteria-politikez hitz egiten dugunean —batik bat Donostia azkar zahartzen ari dela kontuan hartuta—, politika publikoak behar ditugula ikusi behar dugu, gazte donostiarrek beren bizi-proiektua Donostian garatu ahal izan dezaten. Era berean, azpimarratu behar da zeharkako esku-hartze bat dela eta, Gazteria Departamentutik bideratu eta koordinatu arren, eraginkorra izateko udal-kudeaketako beste eremu batzuetan ere isla izan behar duela.

Gazteria Departamentuak bere funtzioak areagotu ditu amaitzen ari den legegintzaldi honetan, eta zentzu horretan lan egiten jarraitu behar dugu.
Donostia EAJ-PNVk honako lan-ildo hauek planteatu ditu hurrengo legealdirako:

3.5.1. Beste udal-politika batzuekin koordinatzea

Gazteria Departamentuko politikek gazte donostiarren benetako premiei erantzun behar diete, eta helburu hori lortzeko ezinbestekotzat jotzen dugu Gazteriaren eta gainerako udal-departamentuen arteko zeharkakotasuna sustatzen jarraitzea, baita beste erakunde eta elkarte publiko nahiz pribatu batzuekin ere, hala, gizarte- eta hezkuntza-eremu bat sortzen parte hartuz eta elkarrekin lerrokatuz, auzo

edo eremu bakoitzeko proiektuen inguruan komunitateak ehuntzen joateko. Horretarako, honako hau proposatzen dugu:

- Beste departamentu batzuetan garatzen diren udal-politiken eragina handitzea eta horiekin koordinazioa hobetzea.
- Erabakiak hartzeko orduan zeharkakotasun hori errealitate egitea, Gazteriaren bitartez, "gaztea" ikuspegia gero eta indar gehiagorekin txertatuz. Hori izango da gure helburu nagusia.

Garapen ekonomikorako eta enplegurako (1. konpromisoa), Etxebizitza bat izateko (2. konpromisoa), Kirol, Berdintasun, Hezkuntza edo Mugikortasunerako (3. eta 2. konpromisoak) eta Kulturarako (4. konpromisoa) politikak ezinbestekoak dira gazteek beren bizitza Donostian gara dezaten.

3.5.2. Haurtzaroaren, nerabezaroaren eta gazteriaren atalak egokitzea

Adin-tarte horiek zehaztea eta errealitate aldakorretara egokitzeko behar adina malgutasun izatea funtsezko alderdiak dira gazteenen premiei erantzungo dieten politikak garatzeko orduan, beraiek ere hala har ditzaten.

Gaur egungo gizartean, gazteen joerak oso azkar aldatzen ari dira inguruan ditugun teknologia guztien bilakaeragatik eta gazteek errealitate horietara egokitzeko duten gaitasun handiagatik.

Horregatik, etengabe zehaztu behar ditugu arestian aipatutako adin-tarteak, horien eskaerak oso desberdinak direlako.

3.5.3. Gazteriaren zerbitzua ikusgai egin dadila sustatzea

Gazteriaren zerbitzua ikusgai egin dadila sustatzea, egiten den lana gazte guztiengana irits dadin. Horretarako, eta arestian aipatu ditugun arrazoiak direla-eta, publiko desberdinen eskaeretara egokitu beharko ditugu erabiltzen ditugun komunikazio-kanalak, betiere horiek egiten duten komunikabide berrien erabilera sustatuz.

Ildo horretan, legegintzaldi honetan zehar bulego berri bat jarri da kalean, komunikazio hori are gehiago sendotzeko eta udal-politika publikoak ikusgai egiteko. Hurrengo urteetan, inbertsio eta ahalegin horien garrantzia azpimarratu beharko dugu, hari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko eta, hala, ahalik eta gazte eta nerabe gehienengana iristeko.

3.5.4. Haurtzaroaren, nerabezaroaren eta gazteriaren atalak sendotzea

Haurtzaroa:

- 0-5 urteko neska-mutilentzako eskaintza sustatzen jarraitzea.
- 5-11 urteko neska-mutilentzako haurtxokoen sarea sustatzen jarraitzea, sarea eta eskaintza errealitate berrietara egokituz.

- Gazteenei bideratutako aisialdi-eskaintza indartzea, horiek eskaintzen den programazioan parte har dezatela sustatuz.

Nerabezaroa:

- Gaur egungo gaztelekuen azpiegitura hobetzea, sarea auzo berrietara zabalduz.
- Gazteek eskaintzen den programazioan parte har dezatela sustatzea.
- Haurtxokoetatik gaztelekuetara igarotzeko prozesua erraztea.
- Nerabeei bideratutako aisialdi-eskaintza indartzea.
- Gazteen artean ohitura osasuntsuak sustatzea.
- Gaztelekuetan informazioa eta aholkularitza sendotzea, gazteen autonomia sustatuz.

Gazteria:

- Kontadores Gazte Zentroko eskaintza egokitzea eta hobetzea.
- 16 eta 25 urte arteko publikoarentzat programazio zabala eta erakargarria garatzea.
- Gazteentzako gune berriak egonkortzea eta sustatzea.
- Gazteei hiriko agente aktibo gisa laguntzea.
- Gazteentzako elkartruke europarren eskaintzak bultzatzen jarraitzea.
- Gazteei ekimen berrietan laguntzea eta sormena sustatzea.
- Tokiko Administrazioarekin duten harremanari dagokionez, gazteentzat sarbide gisa jardutea.
- Gazteen partaidetza-programak mantentzea eta areagotzea.
- Udalak utzitako lokalen sarea indartzea.

3.5.5. Hezkuntza-eragileekin koordinatzea

Hezkuntza-eragileek Gazteria Departamentuarekin duten koordinazioa sendotzea, gazteei mota guztietako prestakuntza-aukerak eskaintzeko plataforma egoki bat bihur dadin.

3.6. HEZKUNTZA

Donostiako Udalak herritarrekin etengabeko harremanak sortzen ditu eskaintzen dituen zerbitzuen bitartez. Ugariak eta askotarikoak dira egunerokotasunean konturatu gabe Udalarekin izaten ditugun harremanak. Harreman horrek, eskaintzen diren zerbitzuek, guztion bizi-kalitatea hobetzea dute helburu, eta, bidebatez, komunitatea eraikitzea.

Hezkuntza arloa da hiriko gaztetxoenek txikitatik eta ia egunero jasotzen duten zerbitzua. Argi dago, beraz, hezkuntza atalean hartzen den edozein erabaki biziki garrantzitsua dela, donostiar askorengan eragingo du eta. Bai eskolako haurrengan, bai familiengan.

Komunitatea eraikitzeko ezinbestekoa da hiria ere hezitzailea izatea. Udalak eta hiriak eman behar dute lehen pausoa, eta eredugarri izan. Helburu hauek lortzeko, Donostiako Udalak hezkuntza atala du tresna. Horrela eragiten dugu Hezkuntza arloan.

Hezkuntzaren eskumen gehienak Eusko Jaurlaritzari dagozkion arren, Udalak ere zeresan handia du eskola eraikinen mantentze-lanetan, inbertsioetan, eguneroko konponketa eta kudeaketetan, eta baita proiektu berrien diseinuan ere.

Hainbat proiektu gauzatu dira azken 4 urteotan. Batzuk aipatzearren:

- Hiriko haurreskolen sarea indartu da
- Aieteko haurreskola zabalik da jada
- Jolastokieta prest izango da 2019 urtea amaitzerako
- Amara Berri-Urbietan sindikatuek okupatzen zituzten gelak eskuratzea lortu dugu eta horrek haurreskola handitzeko aukera emango digu
- Haurreskolen III. Protokoloa sinatu dugu Udalak eta Eusko Jaurlaritzak.

Beste hainbat lan ere egin dira:

- Altzako San Jose Kalasanz eskolako estalkia
- Harri Berri Oletakoa uda honetan egingo da
- Amara Berri Urbietako fatxada historikoa berritu
- Orixe Ikastolako fatxada
- Jakintza eta Zuhaiztiko teilatuak
- Orixen 1.500.000 € inbertitzeko konpromisoa
- Harri Berri Oletan margotu ziren horma-irudiak...

Datozen 4 urteetarako ardatz nagusi hauek izango ditugu:

3.6.1. Udalarekin harremana eta koordinazioa

Donostiako Udaleko Hezkuntza Atala da eskola askok duten erreferentea beren egunerokotasunean. Ezinbestekoa da erantzun azkarrak ematea eta Udal barneko koordinazioa eraginkorra izatea. Orain arteko arreta eredugarria izan da, baina are gehiago zaindu eta finduko dugu.

3.6.2. Donostiako Haurreskolen Sarea

2018 urte bukaeran Haurreskolen III. Protokoloa sinatu zen Udala eta Jaurlaritzaren artean. Bertan, hiriko haurreskola sarea zabaldu eta indartzea jasotzen da. Hiru haurreskola berri eraikiko ditugu:

- Altza Jolastokieta
- Loiolako Erriberak
- Gros

Horrez gain, Intxaurrondon, Aieten eta Txominenean beste haurreskola bana eraikitzeko aukera aztertuko dugu, auzo bakoitzaren eskariaren eta bilakaera demografikoaren arabera.

3.6.3. Eraikinen mantentzea eta inbertsioak

Udalak etengabeko berrikuntza eta mantentze lanak burutzen ditu hiriko eskoletan. 50 eraikin baino gehiagotan gauzatzen dira hobekuntza horiek, beharren eta lehentasunen arabera. Erantzun egokiagoa emateko, datozen urteetan aurrekontuetan diru kopurua handitzeko konpromisoa hartzen dugu.

Bestalde, tamaina handiko inbertsioak Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean burutzen ditugu. Hala ere, Jaurlaritzarekin dugun elkarlana areagotzeko ahaleginak egin behar ditugu. Hori dela eta, datozen urteetan Donostian dauden eskoletan burutu beharreko inbertsio eta hobekuntzak aurrera eramateko hitzarmen bat sinatzeko helburua jarriko dugu. Horrek segurtasuna eta bide-orri bat jarraitzea ahalbidetuko digu.

Datozen urteetan, besteak beste, lan hauek burutuko ditugu:

- Orixe Ikastola (Urgull) berritzeko Jaurlaritzak bideratutako 1,5 milioi euroak exekutatu
- Intxaurrondo, Mendiola eta Morlanseko eskoletako jolastokiak estali
- Amara Berri Urbietako barruko patioak berritu...

3.6.4. Aniztasunaren balioa

Gaur egungo gizartea zabala eta askotarikoa da. Donostiako eskoletan dauden haurrek ez dute soilik euskara edo gaztelania ekartzen etxetik. Ugari dira askotariko jatorria duten haurrak eta familiak.

Eskolak topagune dira, eta guztiok dugu lekua. Eskolak elementu oso garrantzitsua dira aniztasuna kudeatzeko eta gizarte kohesionatu bat eraikitzeko: Beraz, hezkuntza atalak ere badu bere ardura.

Argi dago gizartearen bilakaerak aniztasun gehiago ekarriko digula hirira, eta, ondorioz, eskoletara. Eta Eusko Jaurlaritzarekin batera programa berriak diseinatzea beharrezkoa izango da errealitate berrietara egokitzeko.

3.6.5. Irakurzaletasuna sustatzea

Donostiako Udalak ardura bikoitza dauka irakurzaletasuna sustatzerako orduan. Alde batetik, Donostia Kulturak hiriko liburutegien sarea kudeatzen du, eta bestetik, Hezkuntza Atala Donostiako eskola askoren erreferente da.

2018 urtean ''DK Liburuka'' programa helburu horrekin jaio zen, eta emaitza onak eman dizkigu. Asko izan dira izena eman duten eskolak, eta programa hauekin jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu aurrerantzean ere.

Beraz, datorren legealdian irakurzaletasuna bultatzeko helburuarekin honakoak egingo ditugu:

- ''DK Liburuka'' proiektua indartzeko ahalegina.
- Donostia Kultura eta Hezkuntza Atalaren arteko elkarlana sustatu

3.6.6. Zeharkako proiektuak

Hezkuntza ataletik haurren garapen pertsonalean ere sakontzen dugu. Haur bakoitzak etorkizun bat du bere barnean, proiektu bat, esperantza bat. Guk beraien egunerokotasunean dugun eragina kontuan hartuta, konpromiso bat dugu: haurrak pertsona gisa heztea, bere osotasunean.

Horregatik, ezinbestekoa da edukietan sakontzea. Eragileekin elkarlanak bilatuz lortzen ditugu horrelakoak. Esate baterako:

- Bullying-ari aurre egiteko programak
- Oroimen Historikoa lantzeko edukiak, Bakearen Etxearen eskutik.

Egiteko modu berriak ere bideratu behar ditugu. Horren adibide da 2018an Harri Berri Oletako muralak marrazteko bideratu zen proiektua, non eskolak, Altzako auzoak, kultur etxeak eta artistek bat egin zuten ikasleen heziketa lantzeko.

Horregatik, etorkizunean ere zeharkako proiektuak diseinatzeko konpromisoa hartzen dugu.

3.6.7. 3.6.Hiri Hezitzailea

Aurrerantzean ere Donostiak Hiri Hezitzaileen sarean parte hartzen jarraituko du, gainerako hiriekin elkarlana bilatuz eta programa berritzaileak identifikatuz.

3.6.8. Musika Kontserbatorioa

Francisco Escudero Musika Kontserbatorioa ez da Donostiako Udalaren eskumena. Baina egun Udalarena den egoitza batean kokatua dago, Easo kalean, eta begien bistakoa da eraikina zaharkituta dagoela eta honek irtenbide bat eskatzen duela.

EAJ-PNVren apustua Easoko trenbideak desagertzearen ondorioz sortuko diren gune berrietan oinarritzen da; sortuko diren espazio horietan egin nahi diogu lekua kontserbatorioari. Eta horretarako, Eusko Jaurlaritzarekin batera irtenbide bat diseinatzeko konpromisoa hartzen dugu datozen 4 urteetan.

3.7. ETORKINAK DONOSTIAN

Migrazioa errealitate bat da gure hirian ere, kudeatzeko gai izan behar dugun erronka berri bat eta aukera bat. Migrazioaren hedadura ez da udal-eskumenekoa, baina etorkinek (arrazoi ekonomikoengatik, asilo politikoa eskatzen dutenek, bakarrik dauden atzerriko adin txikikoek, iragaitzazko etorkinek edo zaurgarritasun-egoeran daudenek) behar bezala bideratu behar diren eskubideak eta betebeharrak dituzte. Migrazioak izaera etiko eta demokratiko nabarmena du, baina, horrez gain, aurrerapenaren isla da, eta herrialde aberatsenek modu egokian txertatu ahal izan dituzte migrazio-fluxuak eta aniztasun kulturala. Donostiako errealitate demografikoari ere eragiten dio alderdi horrek.

Migraziorako Euskal Itun Soziala honako hiru premisa hauetan oinarritzen da, guk guztiz partekatzen ditugunak: premisa politikoa (pluralismoa), premisa etikoa (elkartasuna) eta premisa pragmatikoa (beharra). Migrazioen erronkak gainditu egiten du udal-esparrua, baina ezinbestekoa da etorkinak modu egokian gizartera daitezen, eta guk gure hirian eta auzoetan ezarri beharko dugu gure ekintza. Donostiak etorkinak hartzeko eta gizarteratzeko estrategia bat prestatu beharko du, batik bat gure etorkizuneko proiektuan parte hartzea erabaki dutenen kasuan.

Biztanleria egonkorra du Donostiak, baina gero eta zaharragoa da eta bizi-itxaropena ere gero eta luzeagoa; gaur egun 133 lurraldetako baino gehiagotako pertsonak bizi dira Donostian.

Etorkinen kopurua % 1,7tik (2001ean) % 7,7ra (2018an) igo da; 2018ko abenduaren 31n, 14.375 atzerritar zeuden bertan erroldatuta.

Erkidegotik kanpoko biztanleak dira gehienak; 2018an, pertsona erroldatuen artean jatorri atzerritarra zutenen % 70 EB-28 kanpokoak ziren, Donostiako biztanleriaren % 5,3, alegia. Erkidegoko biztanleek, berriz, etorkin guztien % 30,12 osatzen dute.

Donostian bizitzea erabaki duten jatorri atzerritarreko pertsona gehienak Erdialdeko Amerikakoak eta Hego Amerikakoak dira (% 49,92) —Honduraskoak eta Nikaraguakoak batez ere—, baina baita EBkoak (% 30,12) ere. Dena den, badira Afrikakoak (% 10,68) —batik bat iparraldekoak (% 6,84 Marokokoak)—, Asiakoak (% 8,8) —Txina da nagusi (% 3,53)— eta Europako beste herrialde batzuetakoak ere (Ukraina, % 3,6).

Biztanle etorkinak tokikoak baino zertxobait gazteagoak dira oro har; % 83,5 biztanle potentzialki aktiboak dira eta % 12,6 hamasei urtetik beherakoak. 65 urtekoek edo hortik gorakoek % 3,9 baino ez dute osatzen (iturria: INE, Udal Errolda).

Ikuspegia oso bestelakoa da etorkinak generoaren arabera aztertuz gero. Jatorri atzerritarra duten emakumeen artean oso esanguratsua da jatorri latinoamerikarra dutenen kopurua; horiek zaintza-lanetan eta etxeko lanetan egiten dute lan nagusiki. Erkidegotik kanpoko Europako beste herrialde

batzuetatik datozenen artean ere handiagoa da emakumeen presentzia; jatorri afrikarreko biztanleen artean, ordea, gizonak dira nagusi.

Banaketa ez da batere homogeneoa hirian, eta hala, Sustapeneko 2016ko iturrien arabera: Erdialdea (% 9,1), Gros (% 8), Amara Berri (% 7,7), Loiola (% 7,3), Egia eta Altza; azken auzo horietan bizi dira gehienak (% 6,8).

Donostia EAJ-PNVk honako lan-ildo eta ekintza hauek sustatuko ditu:

- Donostiak modu aktiboan parte hartuko du Lehendakariak 2018ko abenduaren 18an aurkeztu zuen Migraziorako Euskal Itun Sozialaren eginkizunetan. Itun horrek pluralismoaren, elkartasunaren eta premiaren ikuspuntutik jorratzen du migrazioaren erronka.
- Donostiako migrazioaren errealitatea aztertzea. Ondo ezagutu behar ditugu Donostiako migrazioaren ezaugarriak (immigrazio erregularizatua edo ez erregularizatua, asiloa eskatzen duten eta larrialdi humanitarioetan dauden pertsonak, edo arrazoi ekonomikoek eragindako emigranteak). Era berean, horien perfilak ezagutu behar ditugu (adingabeak eta gazteak, familiak, bakarrik dauden emakumeak edo familia gurasobakarrak…), baita horien bizitzeko eta lanerako asmoak, gaitasunak eta aurreikuspenak ere, udal-esparrutik guri dagozkigun erantzun egokiak artikulatu ahal izateko.
- Hirian bizikidetasunaren kultura sustatzea. Elkartasunean, erantzukidetasunean, pluralismoan, giza eskubideetan eta berdintasunean oinarritutako bizikidetza-kultura bat sustatzea, eta mota guztietako arrazismoei edo diskriminazioei uko egitea.
- Arreta berezia eskainiko diegu gure hirira iritsi berri diren ikasleei edo gure ikastetxeetan denbora gutxi daramatenei. Hezkuntza-sistema da gizarte-kohesioaren bermatzaile nagusia eta, hori Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren erantzukizuna izan arren, hark elkarlanean jardun behar du Foru Aldundiekin eta Udalekin.

  Gizarte- eta kultura-aniztasun handiko ikasleen igoera dela eta (ikastetxe batzuetan batez ere), ikastetxeen eta Udalaren arteko jarduketa-plan partaidetuak sustatu behar dira, honako helburu hauekin:

- “Harrera” tratamendua gelaren barruan eta kanpoan.
- Testuinguru eleaniztunen tratamendu berritzailea, hizkuntza ikasteko murgiltze-eredu berriak.
- Prestakuntza-ibilbideak eta eskaintza egokitzea (LHIK, eskaintza arautura sartzeko aldez aurretiko prestakuntza/egokitze-prestakuntza eta abar).
- Proiektu pilotuak martxan jartzea, komunitatearen ikuspuntutik, gazteenen premiei erantzun ahal izateko.
- Ikus 3.1, 3.2.3 eta 3.5. atalak.

3.8. HIRI SEGURUA

Herritarrek hiri seguru bat —gero eta seguruagoa— izateko ekintzak eskatzen dizkiote gobernuari. Herritarren segurtasuna ezinbesteko neurgailua da hiriaren bizi-kalitatea baloratzeko orduan.

Udalak, beste Administrazio batzuekin batera, behar bezala bermatu behar du gune publikoak bizikidetza-eremu seguruak direla. Horretarako, hiriko eremuez erabat eta beldurrik gabe gozatu ahal izateko ekintzak hartu behar dira politika publikoen bitartez.

Dagoeneko hainbat urte igaro dira ETAren jarduna amaitu zenetik eta hori sekulako aurrerapausoa izan da herritarren segurtasunari dagokionez. Dena den, gure erosotasuna mehatxatzen duten fenomeno berriak agertzen dira etengabe, eta EAJ-PNVn uste dugu errealitate horietara egokitu behar dugula uneoro.

Donostia hiri segurua da. Azken urteetako datuak aztertuz gero, eta hirian gertatzen diren delituen kopurua ikusita, poztasunez esan dezakegu, une honetan, Donostia gero eta seguruagoa dela; izan ere, % 11ko beherakada gertatu da azken urteetako delitu kopuruan.

Beherakada hori orokorra izan da, mota guztietako delituetan gertatu da, baina bereziki etxebizitzetako lapurretetan. Urteko datuetan argi eta garbi ikusten da hobekuntza, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko koordinazio hobeari esker, hein handi batean. Azken urteetan lan handia egin dugu zentzu horretan, eta aurrerantzean ere hala egiten jarraitu nahi dugu. Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren ahaleginak bateratzea ezinbestekoa da zerbitzu hobea eskaini ahal izateko eta, horregatik, bi segurtasun-indarren arteko elkarlana sendotzen jarraituko dugu.

Bi polizien artean prebentziorako jarduketa-plan bateratuak ezarri direla azpimarratu behar dugu; plan horiek legegintzaldi hasieran jarri ziren martxan eta indartzen joan dira urtez urte.

Segurtasunaz hitz egitean, ezin dugu ahaztu espazio publikoaren erabilera desegokiak segurtasunik eza sortzen duela pertsona ahulenen artean. Espaloietan eta plazetan bizikletak, patinete elektrikoak eta beste ibilgailu batzuk erabiltzea gizalegearen aurkako jokabide bat da, eta arriskuan jartzen ditu leku horietan ibiltzen diren pertsonak. Kontzientziazio-kanpainak antolatzen eta araudia betearazten jarraituko dugu.

Horregatik guztiagatik, eta segurtasun-arloko errealitate berrietara egokitzen jarraitzeko, EAJ-PNVk honako proposamen eta lan-ildo hauek garatu nahi ditu hurrengo legegintzaldian:

3.8.1. Herritarren segurtasuna

- Hiriko segurtasuna zuzentzen jarraitzea, alkate jauna buru dela, Udaltzaingoaren buru izanik, hari baitagokio uneoro erantzule izatea.

- Eguneroko premien aurrean, Ertzaintzarekin koordinazio bateratuko planak egiten jarraitzea eta elkarrekin prebentzio-planak garatzea, hautematen diren tipologiei aurre egin ahal izateko.
- Informazioa berehala trukatzea ahalbidetzen duten polizia-hitzarmenak hobetzea, ikerkuntzaren nahiz prebentzioaren arloetan.
- Hiriko auzo guztietan Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren presentzia areagotzea, modu koordinatuan eta gertuko eta prebentziozko polizia-eredu bat sustatuz.
- Udaltzaingoaren eta herritarren arteko harremana indartzea, elkarteekin eta kolektiboekin etengabe harremanetan egongo diren poliziako arduradunen bitartez, hala, sortzen diren premiak askoz lehenago hautemateko.
- Udaltzaingoaren antolaketa-eredua hobetzea, kasuan kasuko barne-prozesuak garatu eta, horrela, giza baliabideak ustiatu ahal izateko, horiek beren lanpostuetan finkatuz. Horrez gain, gaur egungo bitartekotasun-tasa maila baxuenetara jaitsi nahi da, langileei egonkortasun handiagoa emateko eta, hala, horien lanarekiko ezagutzari etekin handiagoa ateratzeko.
- Udaltzaingoari elementu teknologikorik modernoenak hornitzeko elementuak erosten jarraitzea, horiek garatzen duten lana optimizatu ahal izateko.
- Ekialdeko barrutian polizia-baliabideak areagotzea, eremu guztian gertuko udaltzainen presentzia handiagoa izateko.
- Itsasaldean polizia-unitate gehiago jartzea, herritarrei beharrezko izapideak egiten errazteko; berehalako arreta-puntuak.
- Udaltzainei ingurumen-arloko prestakuntza handiagoa eskaintzea, ingurumen-kalteekin lotuta sortzen ari diren errealitate berriei aurre egiteko.
- Udaltzaingoaren komisaria berria eraiki da Morlansen; bigarren unitateko garapenarekin jarraituko dugu, herritarrei arreta hobea eskaintzeko.
- Bideozaintza-sistemen presentzia handitzen jarraituko dugu hiriko hainbat puntutan, batik bat sexu-askatasunaren kontrako delituen arrisku-puntuetan.
- Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko unitatea sendotzea.
- Ertzaintzarekin elkarlanean, sexu-askatasunaren kontra egin daitezkeen delituen prebentzioa handitzea.
- Etxera modu seguruan itzultzeko ibilbide kontrolatu gisa ezarri diren bideen plangintza eta kontrola areagotzea.
- Gainerako udal-departamentuekin koordinazioa hobetzea, udal-ordenantzak hobeto eta modu eraginkorragoan betetzeko.
- Krisi-mahaiaren bitartez, sor daitezkeen egoeren aurrean jarduteko planak koordinatzea, Donostiako hiriaren erresilientzia hobetu ahal izateko. Horrez gain, simulakroen kopurua handitu nahi dugu, sor daitezkeen egoera kritikoei hobeto erantzuteko.

3.8.2. Herri-babesa eta Suhiltzaileak

Herritarren segurtasun-arloan eskaintzen den zerbitzuarekin hertsiki lotuta, PSISZen zerbitzuak ditugu. Amaitzen ari den legealdi honetan nabarmen aldatu dira PSISZ zerbitzuak.

Hura osatzen duten langileei dagokienez, karrerako funtzionario egin dira profesional asko (62, hain zuzen ere). Legealdiaren hasieran, bitartekotasun-tasa % 50ekoa zen eta, legegintzaldiaren amaieran, % 5etik beherakoa da. Gai horrek zuzenean eragiten dio eskaintzen den zerbitzuaren kalitateari eta gaitasunari.
Ildo hori sendotzen jarraitu nahi dugu, langileen kasuan kasuko hautaketa-prozesuak eginez, langile egonkorragoak eta prestatuagoak izateko, lan-ingurunearen ezagutza askoz hobea izango dutenak.

Ondasun materialei dagokienez, ahalegin garrantzitsua, baina, zalantzarik gabe, guztiz beharrezkoa egin dugu. Sei ibilgailu berritu dira, 1,5 milioi euroko gastua eginda. Horiekin aurrerapen garrantzitsua egin da gaitasun operatiboari, herritarren segurtasunari eta egokitzapen teknologikoari dagokienez.
Zentzu horretan, ildo horretatik jarraitu nahi dugu eta jarraituko dugu, gainerako ibilgailuak berrituz eta flotaren batez besteko adina nabarmen murriztuz.

Horregatik guztiagatik, honako jarduketa hauek planteatu ditugu:

- Suhiltzaileen eraikinean ingurumen-arloko teknologia hornitzea, energia berriztagarria ekoitzi eta, hala, instalazioaren jasangarritasun energetikoa handitzeko.
- Foru- eta udal-suhiltzaileen arteko koordinazio operatiboa handitzea, eta larrialdietarako zentral bateratua Garberako udal-suhiltzaileen etxera eramatea. Legegintzaldi honetan abiarazi dugun lanarekin jarraitzea, Foru Suhiltzaileekin koordinazio bateratuko zentral bat egiteko.
- Herri Babesari dagokionez, Udal Larrialdi Plana eguneratu da (1997tik zegoen landu gabe) eta, zentzu horretan, eguneratzen jarraitu beharra ikusi dugu, sortzen ari diren premia berriak direla eta.
- Igeldoko Baso Suteen Protokoloa eguneratzen eta egokitzen jarraitzea, eta hura udalerriko beste landa-ingurune batzuetara hedatzea: Ulia, Lau-Haizeta…
- Haizeen protokoloa jarri da martxan. Hari esker, segurtasuna hobetu ahal izango da, hiriko ingurune askotan hartzen diren neurrien bitartez. Tresna hori hobetzen jarraitu behar dela uste dugu, hiriko beste ingurune batzuetara eta horien ezaugarri berezietara egokituz.

- Lehendik dauden sentsoreen kopurua handitzea (Urumea, Igarako erretena, mareografoa…), denbora errealean eman behar diren erantzunak hobetzeko, legegintzaldi honetan zehar egin den modu berean.
- Ibaiaren mailak jasotzen dituen aplikazioa ordeztea eta hobetzea planteatzen da, datu gehiago barne hartuko dituen beste aplikazio osatuago bat erabiliz.
- Larrialdietarako protokoloak egitea, udalerrian zehar salgai arriskutsuak trenez garraiatzeak eragin ditzakeen arazoei aurrea hartzeko.
- Urumea ibaiko lanak amaitu ondoren, uholdeen plan osoa berregitea, hura egoera berrira egokituz.
- Suhiltzaileen departamentuak jakinarazi behar dituen espedienteen izapidetze-prozesua bizkortzea, horien izapidetze-egoeraren inguruko informazioa denbora errealean hornituz.
- Udal-eraikinak babesteko plan guztiak eguneratzea.

3.9. HIRI IRISGARRIA

Pertsona batek leku batean egoteko, bertan sartzeko eta hark barne hartzen dituen edukiekin harremanetan jartzeko duen aukerari deitzen zaio irisgarritasuna, pertsona horrek mugikortasun-arazoak edo zentzumen-pertzepzioarekin lotutako arazoak izan ala ez. Pertsona guztiei ingurunera —kasu honetan, gure hirira— sartu, hura erabili eta hartaz modu normalizatu, seguru eta eraginkorrean gozatu ahal izateko aukera ematea da kontua.

Helburu horrekin lan egin dugu 2015-2019 legealdian zehar eta, horrela, Hiri Zerbitzuetatik esku hartzeko irizpideak zehaztu eta prozedurak argitu ditugu. Hirigintza Departamentuarekin batera lan egiten hasi gara, auzoen arteko loturak aztertzeko eta aurreikusteko, baita Donostia Lagunkoia planarekin ere, erakundeekin eta bizilagunekin elkarlanean, eremu publikoetan ditugun irisgarritasun-premiak identifikatuz.

2019-2023 legegintzaldi honetan, aurrerapauso kualitatibo bat eman behar dugu. EAJ-PNV guztiz konprometituta dago Donostiako hiri-inguru eta eraikin publikoen irisgarritasunerako gida-planean egiten ari diren lanekin.

Plan horrek Donostiako irisgarritasun orokorra lantzen du lehenengoz, eta irisgarritasuna kudeatzeko elementu nagusietan oinarrituz lan egiten da: eremu-planak (lurraldea) eta plan sektorialak (garraioa, udal-eraikinak, semaforoak, lur gaineko aparkalekuak, hiri-altzariak, mugikortasun bertikala eta udal-langileen prestakuntza).

Gure ustez, benetako komunitate bat egiteko behar-beharrezkoa da pertsona guztiek eremu eta zerbitzu guztietara irisgarritasuna izan dezatela bermatzea eta, zentzu horretan, Udalak hertsiki lan egingo du gai hori jorratuko duen Gobernantza-eredu bat martxan jartzeko.

Horrela, honako ekimen hauek planteatzen ditugu:

- Donostiako hiri-inguru eta eraikin publikoen irisgarritasunerako gida-plana onartzea.
- Plana ezartzea, zenbait urtetarako aurrekontu batean oinarrituz.
- Planaren azken lanketan eta hura ezartzeko irizpideetan, eragileen eta elkarteen partaidetza, ekimena eta konpromisoa erraztea eta sustatzea. Parte-hartze hori ezinbestekoa izango da haren bideragarritasuna eta arrakasta lortzeko.
- Desgaitasuna duten pertsonek beren etorkizuna aukeratu ahal izateko ereduak aztertzea eta erraztea.
- Donostia irisgarritasun unibertsalaren esparruan erreferente izan dadila lortzeko eta Udalak hori eskaini ahal izateko lan egiten jarraitzea, ekimen publikoetan eta pribatuetan irisgarritasuna errealitate bat izan dadin.

3.10. GUNE ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

Hiriko gune publikoa gizarteak erabil dezakeen espazioa da, guztiona. Bai donostiarrena, baita kanpotarrena ere. Horregatik, espazio publikoari garrantzi handia eman behar zaio, lehenik garbia eta txukuna nahi dugulako; bigarrenik elkar erlazioa ahalbidetzeko balio duelako, hirugarrenik, aisialdirako eremu bezala ulertzen dugulako.

Gauzak horrela, hiria herritar guztientzat **irisgarri** izatea betebeharreko baldintza da, oinarrizkoa; Irisgarritasuna 3.9 atalean propio garatu dugu

Hiria bere osotasunean bizitzeko Udalak ematen ditu **hainbat oinarrizko zerbitzu**, hala nola: garbitasuna, hondakinen bilketa eta kudeaketa, zuhaitz eta jardinen zaintza, bide eta errepide mantenu eta konponketak, argiteria, hondartzen garbiketa eta kudeaketa, ura eta saneamendua, komun publikoak, e.a.

Asko dira Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak, eta hiritarrek garrantzi handia ematen diete; Udaleko postontziaren datuen arabera, jasotako iradokizunen %20 Gune eta Zerbitzu Publikoei dagozkie.

- 2018an postontzian jasotako iradokizunak: 17.269 - %100,00
- Zabor ontziak 1069 - % 6,18
- Parkeak eta zuhaitzak 793 - %4,59
- Argiteria 588 - %3,40
- Bide publikoko garbiketa 561 - %3,24
- Ordain –agiriak 433 - %2,50
- Besteak .

Gune eta Zerbitzu Publikoen alor honetan hauek dira EAJ-PNVek bultzatzen dituen lan-lerroak:

Bideetako garbitasuna eta **bide publikoen mantenua.**

Azken 4 urteotan egindakoaren lana jarraikiz, auzoz auzo jarraituko dugu hiriko garbitasuna eta mantenua hobetzen.

Bideetako **garbitasunari** dagokionez, garbiketa intentsiboaren sistema inplementatu eta sistematizatu da (irizpideak zehaztu, gunenak zerrendatu, frekuentziak eta beharrak zehaztu.

Orain egindako lanaren ebaluazioa aztertuko da jarraibideak zehaztu ahal izateko.

Bide publikoen **mantenuarekin** jarraituko dugu, hiriak behar duen eguneratzea posible egiteko esfortsu handiagoa eginez, urtez urteko zolatu eta bide-zoruen programekin.

Hondakinen bilketa eta kudeaketa.

Hondakinen tratamenduan eta herritarren kontzientziazioan hobekuntzak antzematen diren arren, bide luzea dugu aurretik. EAJ-PNVren iritziz, Zubietan, Gipuzkoako Ingurumen Gunea (GIG1) burutzean eta martxan jartzean etapa berri bati ekingo diogu hiri hondakinen tratamenduari dagokionez.

Egiazta daitekeenez, sortutako HHS kopuruak behera egin du oro har, 2003an biztanle eta eguneko 1,29kg sortu ziren, baina 2012tik murrizketa hori minimoa da. Horrela 2017an 1,20 kgkoa izan da. Aintzat hartutako aldian (2003-2017) murrizketa globala soilik %0,09 puntukoa izan da.

Biztanle bakoitzeko sortutako hondakinen %37,5 solik biltzen dira gaika eta ehuneko hori egonkor mantentzen da 2015 urteaz geroztik. 2017an gaika bildutako HHSen banaketak adierazten duenez, %39,9 papera et a kartoia dira, %23,5 beira, ontziek %14,9 hartzen dute eta materia organikoak %16, zurek eta hondakin berdeek %6,5 eta gainerako %5,2ak hainbat hondakin (arropa, pilak, apartu elektronikoak..)

Biohondakinen bilketa borondatezkoa da, 2011n hasi zen eta dagoeneko hiri osora hedatuta dago. 24.184 familia (%31) eta era askotako 1627 enpresa eta saltegi hartzen ditu sistemak. Horri auzo konpostajea (114 familiak) eta autokonpostaje jarduera (773 etxe) gehitu behar zaio.

Argi dago ehuneko hauek oso urruti daudela posible eta beharrezkoak diren ehunekotik, bide honetatik aurreratze aldera, Udalbaltzak 2018ko abenduan onartu zuen txiparen sistema hondakinaren ontzira zabaltzeko azterketa egitea. Azterketa honen emaitzen arabera neurriak hartuko ditugu.

Bilketa neumatikoa berraztertuko dugu, bereziki auzogune berrien kasuetan. Sistema hau interesgarria da eta asko hobetu da azken urteotan baina, aurreikusi behar da urbanizazio lanei ekin aurretik eta baita proiektuan jaso ere. Hasierako inbertsioa handia da, baina geroko bilketa-gastuak asko murrizten dira.

Tamaina handiko hondakinen programari dagokionez, Intxaurrondon eta Amaran ezarri da 2015-19 legealdian. Emaitzak onak izan direla ikusi ondoren, datorren legealdian auzo horietan zerbitzua erabat ezarri eta zabalduko dugu. Zerbitzua beste auzoetara zabaltzen joango gara, Parte Zaharrera ….

Bide publikoan dauden paperontziei begira, ekologikoak diren paperontzi berrien hedapena bultzatuko dugu hiri mantenuko zerbitzuen kokaleku-proposamen teknikoa jarraituz. Paperontzi hauen kasuan, kokapena guztiz erabakigarria baita eraginkorrak izan daitezen.

Parke eta lorategiak Azken legealdi honetan zuhaitz eta gune berdeen barne Araudia landu du hiri mantenu zerbitzuak (gune berdeen distantziak, zuhaitz eta airearen erresistentziak, zuhaitz motak eta abarrak aztertuz). Datorren legealdian, udaleko beste lan sailekin kontrastatu ondoren, Plan Zuzendaria indarrean jarriko dugu.

Kaleko iturriak. Ura edateko erabiltzen ditugun iturrien berritzea egingo da

Ura eta saneamendua.

Donostiako Uraren kalitatea gogobetagarritzat jotzen da hornidura urari dagokionez. Biztanleko ur kontsumoa etengabe jaitsi da, nahiz eta azken urteotan beherakada mantsotu egin den. Bilakaera -%39,2 izan da 2001 eta 2017 artean, neurri handi batean hornidura-sarean egin diren hobekuntzen ondorioz.

Alor honetan, kontsumoa gutxitzearen erronkari eutsiko diogu, instalazioak -eta hoditeriak hobetuz eta eguneratuz.

Zentzu honetan aktuazio nabarmenena ur-kontagailu guztiak aldatzea da, teknologi berria eta teleirakurketa egingo duten kontagailuak. Berri hauek denbora errealean gertatzen ari denaren datuak emango dute, horrela ahalbideratuz erabaki zehatzak denbora errealean ere hartzea. Gainera, datu hauen ustiaketak informazio baliotsua emango digu: bai hoditeriaren arazoak ezagutzeko, baita gizarte mailako hainbat datu ezagutzeko ere, (adibidez bakarrik bizi diren pertsonen kontsumoa edo kontsumo eza…)

Saneamenduari begira, 2015-2019ko legealdian, hodien aldaketa egin da bai Kolon pasealekuan, baita Egian ere (urteetan konponketak handietan bakarrik egiten ziren eta txikietan estaldurak)..

Orain, Egiako 2. fasean ari gara eta datorren legealdian ondorengoak egingo dira:

- Antiguan – Zumalakarregi hiribidea.
- Amarako ubide nagusiak (Carlos I, José Mª Salaberria, Corsarios Vascos, Felipe IV, Pescadores de Terranova, Eustasio Amilibia, Plaza de Irún, Avda Madrid, Plaza Pio XII eta Bizkaia pasealekua).

- Intxaurrondoko Suhiltzaile eraikineko eremuko euri-urak jasotzeko sarea berritzea
- Txingurriko errekaren ura hobetzea
- Herrera Pasealekuko ur zikinen sarea berritzea
- Gainezko bideen adaptazioa eta erreka naturalen hobetzea

Hiri altzariak.

Legealdi honetan, inbentarioa egin da, oinarrizko lan garrantzitsua. Aipatzekoa da, halaber, partaidetzazko aurrekontuetan hiri altzariek izan duten garrantzia. Herritarrek proposaturik, oinezkoen babesa eta barandak hobetzeko 150.000eruko aurrekontua onartu zen .

Datorren legealdirako Inbentarioa egoki mantendu eta eguneratzea izango da helburu. Eta bankuen pintatzako kanpainarekin jarraituko dugu.

Komun publikoak. Hau ere gai garrantzitsua da. Hiritarren iradokizunei erreparatzen badiegu, kokaleku berriak aztergai daude eta dagoeneko dauden komunen seinaleak hobetuko dira.

Hurrengo urteei begira:

- Urgull mendian jarriko da. Kokapen honetan lan handiak egin behar dira ura eta saneamendua bertaratzeko.
- Vinuesa aita plazan

Hondartzak. Ondarretako kabinetako konponketak egingo dira bertako hezetasunak ekiditeko.

Hilerriak. 2015-2019ko legealdian Polloe eremuko plangintza landu da. Hurrengo legealdiari begira, mantenu lanak egiteaz gain, guneak berritzeko proiektuak eta lanak martxan jarriko dira, Polloeko zerbitzu eskaintza zabalduz:

- Errautsen lorategia egiteko irizpideak lantzen ari gara
- Hileta zibilak egiteko aurrerapausuak emango dira, anatomiko forense eraikina aztertuz. Era berean, hileta zibilak ospatzeko Cristina Eneako Mandas Dukearen jauregiaren ondoko eraikina erabiltzeko erabakia hartu da.

Udal eraikinen eguneratzea. Legeak eskatzen dituen arauak betetze aldera udal eraikinen zerrenda landu da dagoeneko. Datozen urteetan, eraikinak suteen lege, ITE eta sistema elektrikoaren aldaketen arabera, eguneratu behar dira. ITEaren kasuan, nahiz eta eraikin batzuek derrigorrezkoa ez izan, lan honi ekingo diogu eraginkortasun energetikoa hobetze aldera.

Hiri mantenuko zerbitzu ataleko gune publikoko unitatea, kontsolidatu egin da. Hiriko gune desberdinetan egiten diren, lanak eta baimenak kudeatzeko eta beraien lana optimizatzeko eta hiritarren zerbitzu integrala eskaintzeko hobekuntza prozesua landu da (langile estruktura, aplikazio informatikoa.), eskaintzen diren zerbitzu guztiak era batera integratuz. Orain, unitateak hiritarren eskaerei modu sinplifikatu eta errezagoan erantzutea da helburua.

Bide publikoen erabilera ona sustatzeko, **gizatasun eta erabilpen ona egiteko kanpainiak bultzatuko** ditugu Udaletik. Cristina Enea Fundaziorekin elkarlanean, gizatasun kanpainiarako 180.000€ko aurrekontua onartu da. Azken finean denen ardura delako hiria txukun, eta errespetuz erabiltzea

Gune estalien programarekin jarraituko da, gune berriak ere aztertuz. Kataluinako Plaza, Amara Berriko plazaren bat.

4. ERREFERENTZIAZKO HIRIA

Donostiako EAJ-PNVren helburua da hiri lehiakor gisa finkatzea, erreferentziazkoa dena, etorkizuneko erronkei kalitatezko irtenbideekin aurre egingo dien hiria.

Lehenik eta behin, Zientzian eta Teknologian (ikusi 1. atala, hiri oparoa) erreferente izatearen aldeko apustua egin dugu.

Gainera, Donostia euskararen hiriburu izatea lortu behar dugu eta Donostia euskal kulturaren eta sormenaren hiriburu gisa indartu. Munduari kulturaren bidez begiratzen dion hiria, irekia, eman eta jasotzen duena.

Donostia jada bada gastronomiaren arloan erreferentziazko hiria, eta izen hori ez galtzeko lanean jarraitu behar dugu, lan-esparru hori garatuz eta berrituz.

Halaber, defendatzen ditugun oinarrizko balioekiko konpromisoan erreferentziazkoak izan nahi dugu; bizikidetzaren oinarritzat Giza Eskubideak hartuz, iragana ahazten ez duen hiri gisa eta etorkizunari begiratzen diona elkar ulertuz. Bere ondarea eta tradizioak zaindu eta zabaltzen dituena, baina eboluzioari eta aldaketei ere ateak irekitzen dizkiena. Elkartasunezko hiria eta garapenaren alde lan egiten duena.

4.1. EUSKARAEN HIRIA

“Donostia, Euskararen hiria” lelo hutsa baino zerbait gehiago izan dadin jardun dugu lanean lau urte hauetan. Eta bide beretik jarraitzeko asmo osoa dugu hurrengo lauretan ere. Baina benetan eraginkorrak izango diren pausoak eman nahi badira, ezinbestekoa da jakitea zer egin den eta zertan gauden orain. Beharrezkoa da, beraz, aztertzea a) zein den gaur euskararen egoera Donostian, b) zein izan diren lau urte hauetako ekimen garrantzitsuenak eta c) zein emaitza izan duten.

Euskara Donostian

Ezin esan daiteke egoera nabarmen aldatu denik 2015etik hona. VI Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, Donostian % 35,4 dira euskaldunak eta % 21,5 elebidun hartzaileak (beraz, % 43,1 erdaldun elebakarrak). Eta donostiarren % 60,7 euskara sustatzearen alde dago. Ikastetxeetako hizkuntza-ereduei dagokienez, etengabekoa da D ereduaren aldeko bilakaera 3 urteko haurrentzat eskaintza egiten duten 19 ikastetxe publiko eta 26 pribatu edo hitzarmendunetan: adin horretako haurren % 87,63 D ereduko ikastetxeetan matrikulatu dituzte gurasoek. Eragin nabarmena du horrek haur eta gaztetxoen hizkuntza-gaitasunean: 15 urtetik beherakoen artean % 88 da euskalduna, eta % 97k ulertzen du euskara (elebidun hartzaileak dira).

Bestalde, Donostiarako datu zehatzik ez izan arren, VI Inkestak berretsi egin du aurretik ere argi zegoena: gaurko gazte elebidunen artean egunetik egunera gehiago dira erdaraz jarduteko erraztasun handiagoa

dutenak (erdal elebidunak). Elebidunek etxean zein hizkuntza jasotzen duten kontuan hartuta, Gipuzkoan % 32,9k euskara jaso du lehen hizkuntza, eta % 7,9k bai euskara eta bai gaztelania. Baina oraindik ere % 59,2k gaztelania baino ez du jaso etxean.

Azkenik, Soziolinguistika Klusterrak 2016an egindako kale-neurketaren emaitzen arabera, donostiarren % 15,2 aritu ziren euskaraz kalean neurketa egin zen egunean. 2008an baino 3 puntu gutxiago. 2001eko portzentaje bera izan da 2016koa ere.

2015-2019 legealdiko ekimen nabarmenak

Donostiako Euskararen Plan Orokorra 2015-2019 garatzea izan da, nagusiki, urte hauetako eginbidea: euskararen jabekuntzan, erabileran eta euskararen elikaduran eragitea. Helburu estrategiko horietako bakoitza lortzeko ekintzak lantzea. Nolanahi ere, aipatutako datuak kontuan hartuta, argi zegoen zein zen lehentasuna, helburu nagusia: euskararen erabilera indartzea, Donostian: erabilera sustatzea, bereziki 24 urtetik beherakoen artean. Eta horretarako, azken urteetako ikerketek erakutsi bezala, batetik eskolatik kanpo euskaraz jarduteko aukerak eman behar zaizkie haur eta nerabeei; eta, bestetik, gizartean ere helduen arten euskararen erabilera sustatzeko ahalegina egin behar da, haur eta gazte horien ingurunea euskaldunagoa izan dadin.

Hiru ekimen dira aipagarriak Udalak berak sustatu dituenetatik: 1) Ekolingua saioak; 2) Merkataritzan eta Ostalaritzan ere euskaraz kanpaina; 3) Kirol Entrenamenduetan Euskara Sustatzeko egitasmoa.

- Ekolingua saioak. Soziolinguistika Klusterraren eskutik, bi urtez. hizkuntza ekologia eta hizkuntza aniztasuna gizarte mailan ezagutarazteko eta zabaltzeko tresna gisa diseinatu zen. joko hau. Euskararen Aholku Batzordearen barruan sortutako azpibatzorde batek gaztetxoen jarrera eta praktikak landu zituen. Hortik sortu zen Gu gazteok argitalpena. Bide beretik, Batxilergoko ikasleen jarrera eta praktikak landu nahi izan ditugu Donostian egindako saioetan, 17-18 urterekin gai baitira horrelako gaiez gogoeta egiteko. EHUko adituekin lan egin da datuak interpretatzeko. Horretaz gain, ikastetxeetako euskara batzordeen topaketa ere antolatu zen.
- Merkataritzan eta Ostalaritzan ere euskaraz. 2014an hasitako proiektu pilotua garatu eta Donostiako auzo guztietara hedatu da. 5.242 establezimendu bisitatu dira legealdi honetan eta horietatik 1434 atxiki ziren programara. Horrek esan nahi du langileen erdiak, behintzat, bazekitela euskaraz; prest zeudela establezimenduak programan parte hartzen duela identifikatzen duen pegatina jartzeko; eta, batez ere, bezeroei lehen hitza euskaraz egiteko. 2017ko udazkenean egin zen jarraipenaren lehen fasea eta ebaluazio txiki bat.

Bigarren faseari hasiera eman zaio 2018ko udazkenean, helburu berarekin: Donostian euskaraz zerbitzua emateko gaitasuna eta nahia duten establezimenduak identifikatu eta parte hartzera animatzea.

- Kirol Entrenamenduetan Euskara Sustatzeko (KEES) egitasmoa. Kirolak gaztetxoen aisialdian duen garrantziaz jabeturik, proiektu bat landu eta garatu dugu ingurune horretan euskara modu naturalean entzun eta erabil dezaten. Hau da, eskolako gelatik kanpo ere euskarak baduela lekua

eta erabilera jabetu daitezen. -Haur eta gazteen hizkuntza-ohiturak modu naturalean aldatzea. Horrekin batera, jakina, eta helduen inguruneari loturik, beste helburu hauek ere lortu nahi ditugu: batetik, Donostiako kirol elkarteetan entrenatzaile euskaldunen kopurua igotzea eta entrenamenduak euskaraz egitea. Eta, bestetik, Donostiako kirol elkarteetan euskararen erabilera eta presentzia areagotzea.

KEES metodologiak entrenatzailea du ardatz, bera baita entrenamendu-saioak euskaraz gidatzeko gaitasuna duena. Haur eta gaztetxoei beti euskaraz egingo die, ulermena ziurtatua dagoela baieztatu ondoren. Denboraldian zehar hiru neurketa egiten dira eta, neurketa bakoitzaren ondoren emaitzak aztertu eta aurrera begirako neurriak zehazte dira.

Añorgako Kultur eta Kirol Elkartearekin egin zen proiektu pilotua lau talderekin. (2015). Gaur egun 11 Kirol Elkartek bat egin dute proiektuarekin eta 115 taldetan aplikatzen da KEES metodologia. Orain arteko esperientziak erakutsi du haur eta gaztetxoek hobetu egiten dutela beren hizkuntza-erabilera.

Hiru ekimen horietaz gain, badira aipagarriak diren beste batzuk ere, horien artean Parkean euskaraz – Parketarrak egitasmoa. Lehendik zetorren egitasmoari jarraipena eman eta auzo gehiagotara hedatu da euskaraz jolasteko baliabideak ematea helburu duen egitasmoa. Gaur egun Donostiako hamaika auzotako parke eta jolaslekuetara iristen da. Bi adin-tarte bereizten dira: 3-5 urte artekoa (Zabu Zibu programa) eta 6-9 urte artekoa (Txirrintxon izenekoa). Oso balorazio ona egiten dute parte hartzen dutenek.

Bestalde, ahalegin handia egin da gizarte-eragileekin batera, auzoetako euskara batzordeak antolatzen. Hori ere bazen Plan Orokorraren helburuetako bat: auzoetako plan integralak ugaritzen eta indartzen joatea.

Eta, azkenik, esan berri dugunaren harira, bereziki aipagarriak dira Donostiako hainbat auzotan, auzotarrek antolatuta, egin diren euskaraz bizitzeko saioak (Egian, Añorgan, Altzan, Intxaurrondon…). Donostian eta beste hainbat lekutan ere egindako saio hauetatik sortu da Euskaraldia, euskararen erabilera aktibatzeko saioa, erakunde, elkarte eta norbanakoek egina. Oso garrantzitsua da beste leku askotan bezala, oso harrera ona izan du ekimenak donostiarren artean. Eragile publiko eta pribatuan arteko elkarlanak ilusioa piztu du eta parte hartu dutenak asebete ditu.

Udalari begira

Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko 6. Plangintza aldia landu eta onartu da, 2018-2022. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

Bestalde, 2016ko Kultura Hiriburutzaren harira, euskararen eta gaztelaniaren ondoan frantsesa eta ingelesa erabili nahi edo behar direnean nola jokatu aztertu, landu eta adostu zen horretarako Euskaren Kontseilu Sektorialean berariaz sortu zen lantaldean. Irizpide horiek argitaratu dira eta zabalkundea eman zaie.

2019-2023 legealdiari begira, Euskararen arloan, helburu nagusia euskararen erabileran alde lanean jarraitzea da. Bai hiriari begira, eta bai Udalaren barruan ere. Donostiarrei begira, herritar guztiak kontuan harturik,D ereduan ikasten dutenak zein gainerakoak, denek izan ditzaten euskara entzun eta erabiltzeko guneak.

Eta horretarako funtsean legealdi honetako ekimen nagusiei jarraipena ematea da helburua, eta beti ere, gainerako erakundeekin eta gizarteko eragileekin batera jardutea, Izan ere, Batera Bagera. Hala izan da legealdi honetan eta hala nahi dugu izatea hurrengoan ere. Zehazki, hauek dira oraingoz 2019-2023 legealdirako aurreikusten ditugun ekimen nagusiak:

- **Donostiako Euskararen Plan Orokorra 2015-2019 aurten amaituko denez**, plan horren ebaluazioa egin eta hurrengoa lantzea. Plan Orokorrak eman du esparrua orain arteko egitasmoak, baita berriak ere, landu eta garatzeko. Malgutasun bera izango duen plana landu nahi dugu, elkarlana oinarri izango duena. Elkarlan horretan Auzoetako Euskara Batzordeak izango dira giltzarrietako bat, baita Euskararen Kontseilu Sektorialeko kideak ere.
- **Ekolingua saioak**. 2015-2019 legealdian bezala, aurrerantzean ere ikastetxeekin eta Soziolinguistika Klusterrarekin batera jarraitu nahi dugu lanean Batxilergoko gazteen artean gogoeta eragiteko eta, ahal den neurrian, hizkuntza-praktiketan eragina izateko. Ikastetxeetako euskara batzordeekin ere jardungo dugu lanean; oraingoan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan, girotze-lana egiteko, Batxilergo aurreko etapan, alegia. DBHkoei antzerkia euskaraz ere eskainiko zaie, aurreko urteetan egin bezala.

- **Merkataritzan eta Ostalaritzan Euskaraz** programari jarraipena eman. Berriro ere auzoz auzoko bisitak egin eta ikusi zer aldaketa gertatu den (zenbat establezimendu itxi diren, berriak zein diten) eta merkatari eta ostalariak lehen hitza euskaraz eginik, euskararen erabilera sustatzera bultzatu. Euskaraldiaren hurrengo edizioetan ere parte aktibo izan daitezen animatu.

Horretaz gain, bi proiektu pilotu jarriko dira abian: lehena, Donostiako establezimenduen hizkuntza paisaia euskalduntzeko, diru-laguntza lerro berri bat. Deialdia egiteko, zer kontzeptu diruz lagundu eta zein kopurutan, eragileekin batera landu da. Bigarrena, Erraza da proiektu pilotua, ostalaritzan euskararen erabilera areagotzea helburu duena.

Hori guztia kontuan harturik, Euskararen Kontseilu Sektorialaren barruan Merkataritza eta Ostalaritza azpibatzordeak jarraitzea proposatuko dugu.

- **KEES egitasmoa eta metodologia**. Lau urteko ibilbidearen ondoren, Kirol Elkarte eta talde gehiagotara eta talde gehiagotara zabaltzea da helburua. Legealdiaren amaieran egindako ekitaldiaren ondoren, dagoeneko badira interesa erakutsi duten Kirol Elkarteak.

- **Euskaraldia.** Donostiak bat egingo du hurrengo edizioarekin ere. Belarri-prestak ardatz izan nahi dituen ekimen horretan, eskuz esku jarraituko dugu lanean bai Hizkuntza Politikako Sailburuordetzarekin eta gainerako erakundeekin, bereziki Gipuzkoako foru Aldundiarekin, baina baita gizarte-eragileekin ere. 2020an Euskal Herri osoan saioa egin aurretik, pilotajeak egin nahi dira hiru lurraldeetan, belarriprest eremua nola landu daitekeen ikusteko, nola eman garrantzia, batez ere, ulermenari. Gipuzkoari dagokionez, Donostiak hartuko du eta erakunde eta gizarte-eragileekin batera antolatuko hiru pilotaje horietako bat.
- Lau urte hauetako beste egitasmoei ere jarraipena eman eta hedatzeko asmoa dugu, hala nola Parkean euskaraz –Parketarrak egitasmoari, Auzoetako Euskara Batzordeak indartu daitezen laguntzen jarraitzekoa eta, ahal den heinean, berriak sor daitezen sustatzekoa.
- **Plangintza aldia garatzea** izango da, Udalari begira, 2019-2023ko erronka nagusia: herritarrei zerbitzu guztiak euskaraz eskaintzen zaizkiela bermatzea; euskara administrazioen arteko harreman-hizkuntza izatea; euskara udal barruko lan-hizkuntza bihurtzeko aurrerapausoak ematea; hizkuntzaren kudeaketa udalaren kudeaketa orokorrean txertatzea. Horretarako Plangintza aldian zehaztuta dauden Hizkuntza Jarraibideen liburuxka argitaratu dugu eta horren zabalkundea egingo da, bilerak egin zuzendaritzaz zuzendaritza eta, batez ere, arreta berezia eskaini sartzen diren langile berriei, ahal dela hasieratik has daitezen euskara eguneroko lanean txertatzen.

4.2. DONOSTIA KULTURAREN ETA SORMENAREN EUSKAL HIRIBIRUA

Donostiak beti izan du kultur berezitasuna. Orain dela 100 urte baino gehiago egin zuen mundura kulturaren bidez irekitzeko apustua. Horren adibide argia dira Antzoki Zaharra (1843) edo Victoria Eugenia Antzokia (1912). Gerora jaio ziren, adierazpen kultural horren adibide argi gisa, Musika Hamabostaldia (1939), Donostiako Zinemaldia (1953) eta Jazzaldia (1966).

Urteetan zehar, Donostiak lan egin du kultur indar hori ez galtzeko, hartutako erabakiek argi islatzen dute hori. Horri esker, 2016an Europako Kultur Hiriburu izendatu zuten. Izendapen horrek aurreko hamarkadetako hiriburuaren ibilbide historiko guztia bermatu zuen, eta hiriburuan beraien tokia hartzen ari diren kultur joera eta mugimendu berrien aldeko apustua egiteko bultzada izan zen.

Donostiak bere kultur erakargarritasuna gordetzen jakin du, San Telmo museoa erreferentzia gisa, Sert-en margolanen estudioak hartuz edo bisita gastronomikoak antolatuz.

Azkenik, urte hauetako ekintza garrantzitsua izan da Cristina Iglesias eskultore donostiarraren aldeko apustua. Berehala, Santa Clara irlako itsasargian eskultura berri bat jarriko dute, Chillidak (Haizearen Orrazia), Oteizak (Eraikuntza Hutsa) eta Basterretxeak (Bakearen Usoa) itsasertzean egin duten bidearen ildo beretik.

Hori dela eta, Donostia euskal kultura hoberen ordezkatzen duen hiria dela esaten jarraitu dezakegu, etengabe eboluzionatzen ari dena, kultur adierazpen berriei tokia uzten.
Donostiako kultur esparruko erronka eta helburu berriak zehazteko, nahitaezkoa da aztertzea 2015-2019 legealdian gertatutakoa. Izan ere, azken lau urteotan hirian kultur gertakari garrantzitsuak gertatu dira, hiriaren kultur profila indartu dutenak.

Tabakalera 2015eko irailean ireki zen. Hainbat urtez konponketa lanak egin ostean eta ikusmina sortuz, 2016ko Europako Kultur Hiriburutzaren urtea heldu zen eta, bertan, kultura eta hiria egiteko modu berriak ikasi genituen.
Aurtengo apirilean berriz ireki zituen bere ateak Chillida Lekuk eta kultur hiriburuaren eskaintza zabaltzeko berri ezin hobea izan zen.
Legealdi berriari begira, Kursaala handitzea da helburuetako bat.

Halaber, hirian formazio eta profesionalizazio zentro eta aukera gehiago daude orain kultur esparruan. Hain zuzen, eskaintza auzoetara zabaldu zen: Musika eta Dantza Eskola, Musikene Musika Zentro berria Antiguo auzoan eta Elias Querejeta Zinema Eskola Tabakaleran.

Kultur kontsumoari dagokionez, gorantz egin du. Kultur Etxeek milioi bat bisitari baino gehiago izan zituzten urte batean eta 100.000 bazkide-kopurua ere gainditu da Donostia Kulturan. Aste Nagusiko programazioa ere hiriko auzoetara zabaltzen hasi da eta liburutegia martxan jarri dugu Kontxa hondartzan, Eguzkiteka izenpean.

Beste behin, sarean egindako lana indartu da, beste erakundeekin edo/eta eragile pribatuekin elkarlanean. Izan ere, hiriko kultur eskaintza aberatsa askotariko eragileekin egindako elkarlanari esker sortu da. Horren adibide dira jaialdiak antolatzeko eman diren laguntzak, eta horiekin honako hauei lagundu zaie, besteak beste*: Dock of the Bay, Mojo Working, Donosskino, Dantz! edo Donostia Belle Swing. Bai* eta kultur eskaintza berria martxan jartzea ere, hala nola *Poesialdia, Korner edo Musikalega Fest.*
Badakigu genero ikuspegia zeharka sartzea esparru honetan beharrezkoa dela: kultur ekintzetan parte hartzen duten pertsonen kopurua, arlo honek udal ekintzetan duen pisu espezifikoa eta, batez ere, emakumeek gure gizartean duen papera ikusarazteak dakartzan konpromisoak:

- Eszenatokietan emakumeen programazioa indartzea.
- San Telmo Museoa. Artistei zuzendutako funtsak lortzea, 12+1 diru-laguntzak, *Desafioak* programako gaiak.

- Langileen arteko berdintasunari buruzko barne-ikastaroak
- Kultur Etxeetan berdintasun-jardunaldiak sustatzea
- *MDE programa*, emakume musikagilea ezagutzera ematea.
- Hiriko kultur sarien bitartez ikusaraztea.
- *Gure Ahotsak* programa martxan jartzea Emakume gazte kantautoreak.

Honako lan-ildo hauek landuko ditugu:

4.2.1. Donostia Kultura. Donostiako kultur jardueren ardatza

Donostia Kultura erakundea da Donostiako kultur jardueren ardatz nagusia. Azpiegitura trinkoa dauka eta kultur etxeak, museoak, antzokiak, liburutegiak edo/eta erakusketa aretoak kudeatzen ditu.

Erakunde honi esker daukagu hirian eskaintza zabal hori; izan ere, kultur programazioko eskaintza zabala antolatu eta eskaintzen du: Kultur etxeetako eguneroko ekintzak, Antzoki Zaharra, Victoria Eugenia, San Telmo museoa, *Jazzaldia, Dferia arte eszenikoen azoka, Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea, Giza Eskubideen Zinemaldia, Literaktum, Poltsiko Antzerkia, Olatu Talka, Poesialdia edo Korner.*

Kultur ekintza biziez hitz egiten ari gara, programazio finkoa, askotarikoa, harrera ona duena eta jende guztiarentzat. Herritarrengana gerturatzeko apustua egiten duen eredua; izan ere, hiriko eskaintzak gertutasunarekin batzen ditu. Ikertaldek 2014an egindako azterketaren arabera, Donostia Kulturak 132.090.606,72 euroko eragin induzitua sortzen zuen. Donostia Kultura gizarte, ekonomia eta enplegu arloan hirian eragin handia duen erakunde bat da.

Alabaina, Donostia Kulturak eboluzionatu eta etorkizuneko erronka berriak finkatu behar ditu.
Hobetu egin behar dugu, eboluzionatu eta Donostia Kulturan ditugun baliabideak egungo gizartera egokitu. Halaber, lan egiteko tresna berriak lortu behar ditugu eta hirira iristen diren joera berriak aztertu, kultura kontsumitzeko modu berrietara egokituz, esaterako, kulturaren kontsumo digitala.
Azkenik, ongi lan egiteko eta proposatzen ditugun aldaketei aurre egiteko, azpimarratu behar da Donostia Kultura 234 langile profesionalez osatzen dela, eta lanpostuak hobetu eta langileak formatzeko apustuarekin jarraituko dugu.
Honengatik guztiagatik, EAJ-PNV alderdiak, egiten dakiguna indartu eta hobetuz, honako hau proposatzen dugu**:**

- Donostia Kulturak egiten duen lana babestu eta indartzen jarraituko dugu, Kultur Etxe eta liburutegi saretik hasita, hirian dagoen eskaintza zabaleraino.

- Casares Irratia sustatuko dugu eta udal irrati honen maiztasuna eraldatuko dugu DK Irratian. Hiriko kultur ekintzen bozgorailu nagusi izan nahi duen irratia.
- Irakurketa sustatzen duen “DK Liburuka” programak emaitza onak eman ditu. Hortaz, helburu hori duten programak sustatzen jarraituko dugu, bai eta Hezkuntza Sailean aliantzak bilatzen ere.
- Kontxa hondartzan dagoen “Eguzkiteka” liburutegiaren, eta Urgulleko liburutegia edo Intxaurrondokoa (abuztuan) irekitzearen aldeko apustua eginez jarraituko dugu.
- “Udako gau baten ametsa” hobrarekin lorturiko arrakastaren ostean, Antzerkia Hirian ospatzea sustatuko dugu, lau urtez behin.
- Auzoetara helduko den Aste Nagusi baten aldeko apustua egiten jarraituko dugu, parte hartze handiagoa lortzeko helburuarekin.

Donostia Kulturaren etorkizunari buruz hausnartuz. Kontsumo joera eta ohitura berriak aintzat hartuta, honako hau proposatzen dugu:

- DK Harrera arreta eta kultur informazio zerbitzua sortzea. Bertan, hiriko erreferentzia-puntu kultural bat martxan jarriko dugu.
- Kultura kontsimutzen duten pertsonekin dugun harremana berriz zehaztuko dugu. Harremanak hasteko eta kontsumitzeko modua aldatu dira.
- Donostia Kulturak hirian ibilbide garrantzitsua izateko ezinbestekoak diren tresnak sortzea, eskaintzak adin guztietara egokituz. Zehazki, 0-16 adin-tarteari zuzendutako politikak indartuko ditugu, erabiltzaile bakoitzaren unerik garrantzitsuenak kontuan hartuz.
- Donostia Kulturak donostiarrekin duen lehen kontaktua indartzea, fideltasun gehiago lortzeko.
- Kultura digitalak eskaintzen dizkigun aukerak eta kontsumo-mota berriak aztertzea, eskaintzen duguna eguneratuta egoteko helburuarekin.

4.2.2. Kultur etxeen sarea

Donostia Kulturaren "ordezkariak” dira auzoetan eta oso garrantzitsuak izan dira doako kultura bermatzeko. Gaur egun, Kultur Etxeen sareak 11 eraikin ditu eta, horietan, askotariko zerbitzuak eskaintzen dira. Ez du inork zalantzan jartzen eredu hau arrakastatsua izan denik Donostian. Kultur Etxeek urtero jasotzen dituzten bisitak milioi batetik gorakoak dira jada.

Alabaina, etorkizunean Kultur Etxe horiek zehaztu eta beraien funtzioak zeintzuk diren finkatzeko garaia ere bada. Ekipamendu horiek erreferentziazko puntuak dira auzoetan, eta ez dituzte soilik kultur zerbitzuak eskaintzen. Bertan, Gaztelekuak, Haurtxokoak edo Donostia Lagunkoiaren jarduerak aurki ditzakegu. Hortaz, ikus dezakegu kultur etxe horiek belaunaldien arteko topaketa gunea direla, baita zenbait udal zerbitzu biltzen diren tokia ere. Kultur Etxea eredua gero eta gehiago hurbiltzen zaie zentro

zibikoei. Hori dela eta, kultur etxeen etorkizunari eta hurrengo hamarkadetan izango dituzten funtzioei buruz hausnartzeko prozesu bat irekiko dugu, zertarako sortu ziren ahaztu gabe.

Kultur Etxeak gerturatu nahi ditugu kokatzen diren auzoetako idiosinkrasiara, inguruan erakargarritasuna sortzeko. Adibidez, Okendo Kultur Etxean surfari buruz eskaintzen den programa berria.

Pio XII helbidean dagoen Gobernu Zibileko eraikinaren udal titulartasuna lortzeko negoziatzen eta presioa sartzen jarraituko dugu, Amara auzoko kultur zerbitzuak bertan eskaintzeko toki gisa bilakatze aldera.

4.2.3. Kalitatezko kultur ekipamenduak

Hiriko kultur ekintza biziek ekipamendu kulturaletan inbertitzera behartzen gaituzte, egoera onean egon daitezen eta kalitatezko programazioa eskaintzen jarraitu ahal dezagun. Kultur ekipamenduak hiri osoan zehar banatuta daude eta, hori dela eta, oreka eta eta lehentasunak ezartzeko hausnarketa egin behar dugu.

Donostian bi antzoki dauzkagu. Victoria Eugenia eta Antzoki Zaharra. Biak ehun urtetik gorakoak dira eta egunero antolatzen diren ekintzei erantzuna eman behar diete, baita ere. Victoria Eugenian berritze-lanak egin ziren eta 2007an amaitu ziren, baina nahitaezkoa da eszenatokiko hainbat elementu eguneratzea.

Aurreko atalean aipatu dugu hiriko Kultur Etxeen etorkizunari eta funtzioei buruz hausnartzea beharrezkoa dela. Ekipamendu hauek ere eguneratu egin behar dira egungo eskariari erantzuna eman ahal izateko. Hori dela eta:

- Victoria Eugeniako tramoiak eguneratzeko inbertsioa egingo dugu, ikuskizunetan azkartasuna eta eraginkortasuna eskainiko duen sistema bat edukitzeko. Horren ondorioz, Donostia Kulturako langileen osasun eta segurtasunean ere inbertituko dugu.
- Victoria Eugenian oskol akustikoa jarri nahi dugu. Hala, musika klasiko gehiago eskaini ahal izango dugu bertan.
- Antzoki Zaharra berritzearen aldeko apustua egin nahi dugu, instalazioak eta irisgarritasuna hobetuz. Betiere, ekipamendu honen bereizgarri den xarma hori gordez.
- Loiola Kultur Etxea eguneratuko dugu, eraikineko barne-irisgarritasuna hobetuz. Halaber, ekipamendua handituko dugu auzoan beste udal zerbitzu batzuk eskaini ahal izateko, hala nola Gaztelekua.
- Antiguo auzoko Lugaritz Kultur Etxea eguneratu nahi dugu, Gaztelekua eta Haurtxokoa gehituz, auzoko bizilagunek asko eskatzen baitute.

- Martutene auzoan kultur etxe berri bat irekitzeko aukera aztertuko dugu, Urumearen birsorkuntzaren ostean, aintzat hartuta egun eskaintzen diren zerbitzuak: Arantzazuko Aman dagoen liburutegia eta Etxarriene zentroa.
- Donostia Kulturak Bidebieta auzoko Kontadores eraikinean dituen zerbitzuen kokapena aztertuko dugu. Kultur etxeen eredu berri bat martxan jartzeko aukera ona da, Gaztelekuekin, Adsis-ek eskaintzen duen lanbide heziketarekin, auzoaren idiosinkrasiarekin, muraletako proiektuekin edo portu industrialaren gertutasunarekin koherentzia izango duena.
- Kultur zerbitzu asko ehun urte baino gehiago dituzten eraikin historikoetan eskaintzen dira, balio arkitektoniko handikoetan. Esaterako: Victoria Eugenia antzokia, Okendo kultur etxea, Casares, Tomasene, Larrotxene, Antzoki Zaharra eta San Telmo Museoa. Eraikin horien zaintza berezia da. Hori dela eta, Donostia Kulturaren titulartasunekoak diren eraikinetako aurrealde historikoak babeste plan bat martxan jarriko dugu.

4.2.4. San Telmo Museoa

San Telmo Museoa hiriko eta lurraldeko museoetara sartzeko atea da. Hiriko museo honek, azken urteotan, erakusketa eta ekitaldi bikainak hartu ditu. Besteak beste, honako hauek dira aipagarrienak: Bake-itunak (2016), El Pradoko jainkoak (2018), Ikimilikiliklik – Joxean Artzeri omenaldia (2018) edo Black Is Beltza (2018). Halaber, martxan jarri dira San Telmo Pil-Pilean bisita gastronomikoak, erakargarritasun handiagoa eskaintzeko eta bertako ikusleak museoko erakusketetara gerturatzeko.

Aipagarria da museoko funtsak handitzea Sert-en pinturen zirriborroak lortu ostean. Berriki San Telmoko fatxada historikoari balioa eman zaio, erliebe historikoa nabarmentzen duen argiteria berria jarrita.

San Telmo Museoa gure iraganeko historia erakusten duen erreferentziazko puntua da. Baina, aldi berean, oraina zalantzan jartzen digu eta etorkizuneko erronkei buruzko galderak proposatzen dizkigu. Eta horrek hausnarketa toki bihurtzen du. Museoak iraganari, orainari eta etorkizunari begiratzen dio. Horregatik guztiagatik,

- Gipuzkoako museoekin batera lan egingo dugu, Donostia eta San Telmo izanik eskaintzaren gakoa eta Gipuzkoako gainontzeko museoetara sartzeko atea.
- Erreferentziazko museoekin elkarlanean jarraituko dugu: El Prado, Museo Nacional de Escultura...
- Europako erreferentziazko Museo Sozialekin lan egiteko bideak ireki eta finkatzeko lan egingo dugu. Besteak beste, Tropen Museum (Herbehereak), Eskoziako Museo Nazionala, Lyongo

Musée des Confluences, Deutsches Historiches Museoa, eta Kanadako Canadian Museum of Civilization edo Musée de la Civilisation (Québec).

Hainbat urtetarako partida ekonomiko bat gaitzen jarraituko dugu, Museoko funts berriak lortzeko programa orekatu bat edukitze aldera.

4.2.5. Kultura elkarlanean

Donostia Kultura da hiriko kultur ekintzen ardatz nagusia, baina Donostian aspalditik sortzen dugu eskaintza kultural zabala gainontzeko eragileekin elkarlanean, erakunde publikoak zein eragile pribatuak edo diru asmorik gabeko elkarteak.

2015-2019 legealdiko gertakari garrantzitsuenetako bat izan da Tabakalera irekitzea. Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa martxan jartzea jauzi kualitatiboa izan da hiriko kulturaren aldeko apustuan, abangoardiazko profil bat gordetzen jarraitzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesa duen apustua. Kultur apustu bat hiri-birsorkuntzaren elementu bat izan daitekeenaren adibide ona da Tabakalera.

Aurten, 2019an, 20 urte betetzen dira Kursaal ireki zenetik. Gaur egun, inork ez du irudikatzen Donostia Rafael Moneok diseinaturiko bi kubo horiek gabe Urumea ibaiaren bokalean. Kursaalak argi erakusten du Udalaren eta Foru Aldundiaren erakunde arteko elkarlana. Gaur egun, Kursaalean ekitaldi ugari antolatzen dira eta nabarmentzekoa da bere kultur eskaintza, Donostia Kulturak eskaintzen duenarekin ezin hobeki osatzen dena. Are gehiago, Kursaala egutegiko kultur ekitaldi handienekin oso ongi elkartzen da: Zinemaldia, Musika Hambostaldia edo Jazzaldia.

2019an Chillida Leku berriz ireki zen eta etorkizunari begira elkarlanean aritzeko bide garrantzitsua ireki du. Eduardo Chillidak eta bere lanek nazioartean duten dimentsioa eta artista honek hiriarekin duen lotura, oinarrizkoa elementuak dira Donostia aipatzen dugunean kultur erreferente gisa.

Kursaal

- Kursaalak eskaintzen digun nazioarteko proiekzioen izaera gordetzen jarraitzeko apustua egiten dugu, bere kultur agendan zein ekitaldiak ospatzen eremuan.
- Kursaala koordinatzen eta berarekin elkarlanean jarraituko dugu, Kursaaleko ekintza hiriko interesarekin batera joan dadin.
- Kursaal handitu nahi dugu, askotariko ekitaldiak bertan antolatzeko edukiera handitzeko helburuarekin.

Jaialdiak

Heineken Jazzaldia, Musika Hamabostaldia eta Donostia Zinemaldia erakunde arteko lankidetzaren, eta hiriaren izaera erakargarri eta kulturala finkatzeko erakundeen apustuaren adibide garbia dira. Hiru jaialdi hauek dira Donostiaren aurkezpen gutuna, hiriko jaialdi eta ekitaldi garrantzitsuenei dagokienez. Hori dela eta:

- Hiru jaialdi horiei babes instituzionala eta ekonomikoa ematen jarraituko dugu.
- Enpresa eta erakundeen babes eta laguntza gehiago lortzeko lan egingo dugu, eskaintze honen jasangarritasuna eta etorkizuna bermatzeko.
- Musika Hamabostaldiaren finantzaketan Kultura Ministerioaren laguntza lortzen jarraituko dugu.
- Gure konpromisoa da jaialdi hauetan berdintasun irizpideak kontuan izatea, emakumeearen presentzia handituz.
- Donostia Zinemaldia erabiliko dugu babesa eta hazkuntza bilatzen duten ikus-entzunezko proiektuak batzeko plataforma gisa.
- Ikus-entzunezko esparruen arteko lankidetza sustatuko dugu Zinemaldiarekin batera: Larrotxene, Tabakalera, Andoaingo Zinema eta Bideo Eskola.

Koldo Mitxelena

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekipamendua den arren, koordinazio eta erabakiak hartu behar ditugu bertan antolatzen diren jarduerei dagokienez. Kultur zentro hau hirigunean kokatzen da eta beste kultur etxe bat gehiago da; izan ere, kultur etxe batek eskaintzen dituen antzeko zerbitzuak ditu. Orain, Koldo Mitxelenaren etorkizunari buruzko hausnartzeko prozesua martxan da. Zerbitzuak eta esparruak nola hobetu pentsatu behar dugu. Eta, horretarako, nahitaezkoa da Udalaren eta Foru Aldundiaren arteko lankidetza. Hori dela eta:

- Koldo Mitxelena eta Donostia Kulturaren arteko koordinazio foro bat sortzeko apustua egiten dugu, kultur eskaintza bikoiztu ez dadin eta zerbitzuak beraien artean osagarriak izan daitezen.

Arte-aretoak.

Hiri eragileen artean, aretoek egiten dute artisten komertzializazio eta komisariotza lanik handiena. Orain dela gutxi arte, ez zegoen harreman arinik aretoen eta Udalaren artean, baina legealdi honetan hainbat pauso eman ditugu gerturatu eta elkarrekin lan egiteko hainbat ekintzetan.

Adibidez, ''Artea Donostian / Art in San Sebastian'' lehen liburuxka editatu da eta, bertan, hirian kokatzen diren aretoak aipatzen dira. Arte Up Arte aretoarekin lan egin dugu Altzoko Harri Berri - Oleta ikastetxeko

muralak egiteko eta Ekain aretoarekin koordinatu dugu San Vicente atarian Eduardo Chillida-Belzunceren eskultura erakusketa. Hasitako ibilbidea aintzat hartutako, honako hau proposatzen dugu:

- Donostiako arte-aretoekin lankidetzan aritzea.
- ''Artea Donostian / Art in San Sebastian'' liburuxkako informazioa editatu eta eguneratzen jarraitzea, eta honako hauekin lan egitea: Altxerri, Arteko, Arte Up Arte, Cibrián Gallery, Ekain Arte Lanak, Echeberría, Iñigo Manterola edo Kur Art Gallery, besteak beste.
- Aretoak museoen egunera gehitzea proposatzen dugu, beraien ikusgaitasuna handitzeko.

Beste eragile batzuk

Erakunde publikoek sortzen duten kultur eskaintzaz gain, beste eragile batzuek antolatzen duten kultur eskaintza osagarri eta erakargarria ere badago. Donostia Kulturak tradizio handia du askotariko eragileen arteko lankidetza eta ulermena bilatzen. Legealdi honetan, jaialdiak ospatzeko diru-laguntzen deialdia martxan jarri dugu. Berari esker, batetik, horrelako ekintzen sustatzaileen segurtasun ekonomikoa bermatzen da eta, bestetik, batera lan egin eta eskaintzan osatzen da.

Argi dugu askotariko kultur eragileekin harremanetan jarraitu behar dugula, Donostiaren bizia aberasten baitute. Adibidez: Dabadaba, Undermount, Bukowski, Convent Garden, Kutxa Kultur, Donostia Lindy Hop, Kresala, Orfeón Donostiarra, Coro Easo o Get in producciones, besteak beste. Ondorioz,

- Donostia Kulturak sustatzen dituen jaialdiak ospatzeko diru-laguntzen deialdiak ateratzen jarraituko dugu.
- Hiriko kultur programatzaileekin dugun harremanean sakonduko dugu eta lankidetza mota berriak aztertuko ditugu.

Lankidetza proiektu berriak

Nahitaezkoa da oraindik pausoak eman ez diren tokietan lanean hastea. Donostian kalitatezko Musika eta Dantza Eskola sare bikaina dago. Legealdi honetan ahalegin handia egin da eskaintza hori eta eskolaren erakargarritasuna indartzen. Batetik, Dantza eskola inauguratu zen Blas de Oteroko lokaletan eta, bestetik, eskolen eskaintza zabaldu da hiriko hainbat auzotara: Amara, erdigunea, Herrera, Bidebieta, Intxaurrondo, Martutene... Horrela, Musika eta Dantza Eskolak dira musika edota dantza mundura sartu nahi duten pertsonentzat erreferentziazko tokia.

Donostian dago Francisco Escudero kontserbatorioa, Easo kalean, hain zuzen. Alabaina, ez dago zalantzarik lokal horiek ez direla kalitatezko Musika Kontserbatorio bat edukitzeko tokirik egokiena. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari dagokion arren, Udaletik horiek hobetzea sustatu behar dugu.

Musikaren ibilbide formatiboaren azken fase gisa, Donostiak 2016an ireki zuen Musikene Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia Ibaetan. Hori dela eta,

- Musika eta Dantza Eskolaren, eta Francisco Escudero Kontserbatorioaren arteko harremanean lan egingo dugu.
- Easoko trenbideak lur azpira mugitu ostean, Francisco Escudero Kontserbatorioa bertan kokatzeko apustua egiten dugu. Hala, ekipamendu egokia edukiko dugu.
- Hiru zentro horien arteko lankidetza sustatuko dugu, Donostiako musikarien formazio prozesuan balio-katea sortu dezaten.

4.2.6. Etorkizuneko gertaerak: Cristina Iglesiasen proiektua Santa Clara irlan eta Urgull mendian

Donostiari abangoardiako hiri izaten jarraitzen lagunduko dio Cristina Iglesiasen eskulturak Santa Clara irlan. Donostiako eskulturagile honen apustuak, batetik, azken modan egoteko gogoa erakusten du eta, bestetik, nazioarteko ezagunak diren tokiko artisten alde egin den apustua.
Horregatik guztiagatik,

- Cristina Iglesiasen eskultura Santa Clara irlako itsasargian egia bihurtzeko lanetan jarraituko dugu.

Donostiak duen beste bitxi historiko eta kulturala Urgull mendia da, *Gaztelu* izenarekin ezaguna askoren artean. Urgullek hiriaren historia eta iragana irudikatzen ditu, baina, aldi berean, Donostian gertatzen ari diren aldaketa eta aurrerapenen lekukoa da, duen kokapenari esker.
Urgullek berariazko zaintza eta arreta pertsonalizatua merezi ditu. Bere harresiek, begiratokiek, gotorlekuek eta bitxi arkitektoniko txikiek gehiago merezi dute. Hori dela eta,

- Urgull Mendirako Plan Integral bat eratzeko apustua egiten dugu, bai eta mendiaren ingurua egokitzeko behar diren baliabideak erabiltzea ere.

4.2.7. Hiri-nortasuna: Hiri-ondarea eta ondare arkitektonikoa babestea

Ondare arkitektonikoa:

Arkitektura da hiri baten nortasunaren ezaugarrietako bat. Donostiaren kasuan, arkitekturak eta bere ingurune naturalarekin duen lotura harmoniatsu horrek (ibaiarekin eta mendiarekin), eremu berezi bat eratzen dute.

Donostia Urgull mendiko gazteluaren azpian jaio zen, ibaia eta itsasoa batzen diren tokian. 1813ko suteak hiriko egitura aldatu zuen. Alde Zaharra berreraiki behar izan zuten, baina, batez ere, 1863an harresiak botatzeko erabaki horrek hirigintza modernoari hasiera eman zion Donostian, zabalguneei ateak irekiz eta hiriaren izaera aldatuz.

Cortazar zabalguneak erabat aldatu zuen hiri-egitura eta, aldi berean, Donostiako ekonomia eta gizartea ere aldatu zen. Ondorengo zabalguneek, bi ibaiertzetan kokaturikoek, hiriaren garapenean lagundu zuten, balio handiko eraikinez beteriko hiri-paisaia osatuz. 1813an erre ez ziren eraikinekin batera (San Vicente eta Santa Maria elizak nabarmenduz), garai hartan hartan eraikitako eraikinek (XIX. mendea) eratzen dute hiriko eraikitako ondare nagusia, XX. mendean zehar kalitate eta balio handiko eraikinak alde batera utzi gabe. Esaterako: Haizearen Orrazia edo Kursaala.

Ondarea babestean, hiriko arkitekturarik baliotsuenaren nortasuna eta berezitasuna gordetzen da, bai eta bere hiri-egiturarena ere. Oinarrizko tresnak erabiliz lortzen da hori: Euskal Kultur Ondareari buruzko Legean jasotzen diren bi babes-kategorien bitartez: batetik, ondasun kultural kalifikatuak eta, bestetik, inbentariaturiko ondasun kulturalak. Halaber, udal antolamenduaren bitartez, horretarako egokituriko tresnen bitartez (normalean, plan orokor edo bereziren bat). Euskal administrazioari dagokion zehaztea zein ondasun hartzen diren kultur ondaretzat, eta udalei dagokie udal antolamendurako tresnak onestea. Donostiaren kasuan, tresna hori da Hirigintzako eta eraikitako ondarea babesteko Plan Berezia (HEOBPB).

Gure hiri-ondarea eta arkitektura zaintzeko beharra dagoela denek uste dute. Donostiar gehienek partekatzen dugu Donostiak bere oinarri historikoa ez galtzeko asmo eta nahia.

Edonola ere, gai honetan ere muturreko iritziak daude. Batetik, gogor babestu nahi dutenak daude eta, bestetik, mugak kentzearen alde daudenak, liberalismoa gogor defendatzen dutenak. Lehenengoen iritzia gailendu izan balitz, hiri zaharreko harresiak ez zituzten botako, eta ez zuten Cortazar zabalgunea eraikiko. Aldiz, besteen iritzia nagusitu izan balitz, Alde Zaharrak ez luke izango daukan nortasuna..
Bide horietatik ez joateko, nahitaezkoa da eragile guztiek batera lan egitea (erakundeak, elkarteak, profesionalen elkargoak, unibertsitatea...), zehaztasun tekniko eta historikoan, eta segurtasun juridikoan oinarrituta, eraikitako ondarea egokituz gizarteak eskatzen dituen behar eta erabilera berrietara. Horregatik guztiagatik, Donostiako EAJ-PNVk proposatzen ditu ekimen eta jarduketa ildo hauek:

HEOBPB plana zabaldu eta berrikustea

Hirigintzako eta Eraikitako Ondarea Babesteko Plan Berezia 2014 onetsi zen, aho batez, eta 1.057 elementu babesten ditu, gehienak eraikinak, sei kategoriatan bereizita.

2016an, Udalak, ondarea defendatzen duten elkarteen eskaerak aintzat hartuta, berriz aztertu zituen jada aurkeztuak ziren proposamenak, bereziki, Ondarretako Lorategi Hirikoak. Zegozkien azterketak egin ostean, 2018an, Udalak ohiko bilkuran onetsi zuen 47 elementu berri gehitzea HEOBPBan. Gehienak Ondarretako etxeak ziren.

Aldi berean, eta azterketa berriak egin ostean, martxan jarri da HEOBPBren berrikusketa, herritarrek egindako hainbat proposamen aztertzeko helburuarekin. Aztertzen ari diren proposamenen zerrenda horretan dauden elementuak eraisteko lizentziak eten ditu Udalak.

Berrikusketa prozedura hau gardentasun osoz eta zehaztasun teknikoarekin egin behar da, iritzia guztiak eta kaltetutako pertsona eta erakundeak aintzat hartuz. Modu horretara, oreka eta segurtasun juridikoa eskainiko duen Babesteko Plan bat adostuko dugu.

Ondare Batzordea:

2017ko apirilean eratu zen Ondare Foroa. Foro hau osatzen dute udal talde guztiek, ondarea babesten duten elkarteek, EHU eta Arkitektoen Elkargoak. Foro honen helburua da HEOBPBaren jarraipena egitea bere osotasunean eta ondarea babesteari buruzko gaietan aholkua ematea.

Foro honen lan garrantzitsuaz gain, Udalak organo berezitu bat eduki beharko luke ondare arkitektonikoko gaietarako, gai horretako eta kultur arloko tekniko eta adituez osatua. Nahitaezkoa da kultura babesteko ikuspegi hau gehitzea orain arte udal administrazioan soilik hirigintzari lotuta egon den esparrura.

Alde Zaharra: Ondasun kultural kalifikatua, Monumentu Multzo kategoriarekin.

Ikuspegi arkitektonikoa aintzat hartuta, Alde Zaharrean daude hiriko eraikin garrantzitsuenetako asko, hala nola San Vicente eliza, Santa Maria baseliza, San Telmo edo Konstituzio plaza. 1813ko sutearen ostean, abuztuak 31 kaleko hainbat eraikin gelditu ziren zutik (garai hartan Trinitate kalea) eta berreraikitze-lanak Ugartemendia arkitektoak egin zituen. Aurretik zegoen Erdi Aroko itxura arrazionalizatu zuen eta, aldaketa askoren ostean eraikitze-ordenantzak zehaztu zituzten, diseinu batera bat errazteko, batez ere fatxadetan.

1995an onetsi zuen udalak Alde Zaharreko Plan Berezia. Plan Berezi horrek zehazten duen bezala, bere helburua da “hiriko alde historiko hori degradaziotik babestea...”.Alde Zaharra birgaitzeko arauak proposatu ziren, arkitektura tradizionala babestu eta kontserbatzeko irizpideak jarraituz. Udalak Alde Zaharra birgaitzeko martxan jarri zuen plan hori (horretarako, PARVISA elkartea sortu zuen), Plan Berezi horretako hiri-zehaztapenetan oinarritzen da.

Alabaina, Alde Zaharrak balio historiko, arkitektoniko eta urbanistikoak ditu, kalifikazio eta babes gehiago merezi dutenak. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak eta Udalak adostu zuten -eta horretarako izapideak abiarazi zituzten- Alde Zaharra aitortzea Ondasun Kultura Kalifikatu gisa, Monumentu Multzo kategorian.

Babes-espediente honen helburua Alde Zaharraren morfologia kontserbatzea eta, era berean, ingurune horretan bizi diren 4.000 biztanleen beharren kudeaketa malgutzea da.

Babes-espedienteak arautzen ditu birsortzearen, eraispenaren, erabileraren edo jardueraren gaineko aspektu guztiak. Bestetik, babes-maila ezberdinak ezartzen ditu, balio arkitektonikoaren arabera, babes-maila arruntetik babes-berezia izango duten ondasunak arte bereiz egiten dira. Eta guztira sei babes-maila ezarri dira: berezia, babes-ertaina, oinarrizkoa, morfologikoa, hiriguneak eta diskordantzia. Babes berezia izango dutenen artean, besteak beste, San Bizente eta Santa Maria elizak, San Telmo, Santa Teresa edo liburutegia daude. Babes-ertaina dutenen artean segidakoak daude: Konstituzio plazako etxe-multzoa, Antzoki Zaharra, Kaiko Ermita, Trinitate plaza, Aquarium-a edo Itsas Museoa.

Dekretu honek babes-araudiaren oinarrizko baldintzak zehazten ditu eta udaleko hiri antolamenduak zehaztuko ditu honako aspektu hauen arauak: horniduretarako, eta energia sortu eta kontsumitzeko beharrezkoak diren instalazioak, telekomunikazioa, seinaleak, kanpoko publizitatea, hiri-altzariak (toldoak barne), mahaitxoak, kioskoak eta bestelako elementu analogoak, hiri-hondakinak biltzeko elementuen kokapena.

Zentzu horretan, babesa osatzeko, Alde Zaharreko Plan Berezia Alde Zaharreko Monumentu Multzoaren babes-araudira egokitzeko eta hori lantzeko konpromisoa hartu dugu. Eta, aldi berean, toldo, errotulu, telekomunikazio instalazio, eta abarrak kontrolatzeko zehaztapenak garatuko ditugu, honako irizpide hauek haztatuz: fatxaden gain duten eragina, segurtasunarekin harremana duten zehaztapenak eta auzoko zerbitzuen beharrak.

Gure itsasertzeko hiru hiri-mugarri: Haizearen Orrazia, Santa Clara itsasargia eta Sagues,

Donostiako ezaugarririk nabarmenena da eraikitako hiriaren eta ingurune naturalaren arteko bizikidetza harmoniatsua, hiria eta itsasoaren artean. Alde batetik bestera, Santa Clara irla badiaren erdian dela, hiru hiri elementu garrantzitsu daude: Haizearen Orrazia, Santa Clara itsasargia eta Sagues.

Haizearen Orrazia

Multzo hau Luis Peña Ganchegui arkitekto donostiarraren plazak eta Eduardo Chillidaren hiru eskulturak, "haizearen orraziek", osatzen dute. Bere ibilbidea hasi du Eusko Jaurlaritzak Ondasun Kultural Kalifikatu izendatzeko, Monumentu Multzo kategorian.

Eskultura horien kalitate artistikoak, eta beraien arteko erlazioak sortzen duen efektu estetiko horrek (paisaiarekin, plazaren eta inguruan dagoen naturarekin), multzo honi mundu mailako balioa eman dio. Hori dela eta, UNESCOren Gizateriaren Ondare kalifikazioa lortzeko bideari ekitea proposatzen dugu.

Santa Klara itsasargia

Santa Klara irla da hiriko erreferentziazko beste paisaia-mugarrietako bat. Itsasargia, bere garaian farozainaren etxea izan zena, bere eraikin nagusia da. Udala proiektu bat garatzen ari da itsasargiaren barruan Cristina Iglesiasen lan bat jartzeko, ingurune natural horrekin lotuko dena, bereziki, itsasoarekin, badiaren erdian eta Eduardo Chillidaren Haizearen Orraziarekin eta Pasealeku Berriko Jorge Oteizan "Eraikuntza Hutsarekin" *elkarrizketan*.

Sagues

Itsasertz honen beste muturrean, hiria amaitu eta natura hasten den tokian, Sagues zabaldegia hiriari amaiera emateko aukera bikaina da. Arkitekturako Goi Mailako Eskolak jarduketa irizpideak landu ditu eta, horien artean, ingurune naturalera sartzeko ate gisa lantzeko ideia atera da, hiria, mendia eta itsasoa lotzen diren hutsune bat, begiratoki izaera aintzat hartuta eta hiriko eskala erabilerak izango dituena. Erabilera anitzeko esparru bat eta, ondorioz, malgua. Proposatzen da bateratzea erabilerak auzoko bizitzarekin. Nazioarteko taldeei irekitako lehiaketa bat proposatzen dugu, aipaturiko irizpideen gain plan berezi bat landuko duena.

4.3. GASTRONOMIAREN ERREFERENTE

(ikus. *1. Hiri Oparoa: 1.1. Tekonologia eta Berrikuntza, 1.5 Turismo iraunkorra eta 1.6 kalitatezko Ostalaritza).*

Donostiako gastronomia hiriaren kulturaren eta nortasunaren garrantzia handiko osagaia da. Gastronomiaren garranziak eta ospeak nazioarteko ezagumendua merezi izan dute eta Donostiak mundu osoan duen erakargarritasuna finkatzen laguntzen dute.

Donostian eta inguru gertuan aurkitu daiteke mundu osoko biztanleko Michelin izarren konzentrazio handienetakoa, 18 Michelin izar (hiru izarreko hiru jatetxe) eta Basque Culinary Center (Espainiako lehenego Gastronomia Zientzien Unibertsitateta).
Gaur egun Donostiak duen posizionamendua "euskal sukaldaritza berriaren" parte izan ziren sukaldari belaunaldi handi horren ondoriozkoa da.

Donostian sukaldaritza establezimendu eta zerbitzuek 1.164 establezimendu biltzen dituzte 2017an (hiriko establezimenduen %6,2);468 jatetxe eta janari postu, 699 taberna eta kafetegi eta beste zerbitzu batzuetako (otordu-zerbitzuak…) 27 establezimendu. 2008an eskaintza 1.238 establezimendutakoa izan zen eta bilakaera negatiboa da 2008 eta 20017 artean, 2014tik aurrera eten gabe gora egin duen arren.

Faktore ugarik eragiten dute dugun posizionamenduan, (Caterwings enpresak egindako 2017ko helmuga gastronomiko onenen analisian , Donostia da 100 hirien sailkapenaren buru) eta ondoko faktoreak azpimarra ditzakegu: sukaldaritzako agertokia, zerbitzuaren kalitatea, sukaldaritza eskaintzaren dentsitatea, sukalde aniztasuna, aukera begano eta begetarianoak, goi mailako lokalen janariaren kalitea, kaleko janariaren kalitatea, bertakontzako zein kanpotarrentzako eskuragarritasuna (errentaren arabera)…
Faktore hauei, berebiziko garrantzia duen tokiko nekazaritza eta arrantzaren produkzioa eta merkaturatzea erantsi behar diegu, produktua baita gure gastronomiaren oinarria.
Arestian aipatutako faktore eta egoera hauek guztiak dira Donostia hiri gastronomiko gisa finkatzen lagundu dutenak, eta, hauetxek dira zaindu beharko ditugunak posizionamendu horri etorkizunean eusteko.
Gastronomia da erakargarritasun faktore oso garrantzitsua turismo garatze prozesuan. Alor honetan erreferente izateak eskaria segmentatzen eta atzerriko bisitariak erakartzen lagundu digu eta lagunduko digu etorkizunean ere Turismo eredu iraunkorra garatzeko ahaleginetan.

Azken urte hauetan gastronomia izan da hiriaren arrakastaren zutabeetako bat baina jakin badakigu, sallbuespen ezagunak izan ezik, ez dagoela txandakatzerik eta sukaldartiza tradizonaleko jatetxeen eskaintza galtzen ari dela.

Donostiako EAJ-PNVek sektoreak hirian dituen etorkizuneko erronkei eranzuteko honako lan-lerroak proposatzne ditu:

- Egoeraren diagnostiko sakona egitea eta etorkizuneko estrategia gastronomikoa formulatzea.
- Goi mailako sukaldarien erreleboari begira eragileekin batera neurriak hartzea: formakuntza berezia eta aholkularitza hobekuntza prozesuan aurrera egiteko.

- Digital Gastronomy LABe berrikuntza –laborategia sustatzea. Gastronomiaren eraldaketa digitalerako gune hau Basque Culinary Centerrek kudeatuko du. Gipuzkoako Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzaren eta Donostiako Udalaren lankidetzan sustatuako egitasmoa da hau. Tabakaleran kokatua egongo den LABek ekosistema gastronomiko guztien gaitasunak indartu nahi ditu: enpresa espezializatuak, ostalaritzaren sektorea, elikagaien eraldaketan eta banaketan diharduten konpiania berritzialeak et I+B+G-aren esaparruko eragileak. Aldi berean, gastronomiaren eraldaketa digitalean espezializatutako laborategia izan nahi du, nazioarteko erreferentzia bat.
- *"Portaviones"* eraikinean bertako arrantza eta bere ekarpena balorean jartzea.
- *Bretxa Berriaren* proiektuan, bertako produktuari emango zaion garrantzi eta ikusgarritasunaz gain, 1go solairuan ekimen bereziak martxan jarriko dira (taillerak, ikastaroask, aurkezpenak, etab.) bertako porduktuak balioan jartzeko.
- GuztiOna Klusterra sustatzea. Erakunde honek Tokiko nekazaritza eta arrantzaren ekoizpen sektorea merkataritza, ostalaritza eta turismoarekin lotzea bultzatzen du. Honez gain, sektorearen berrikuntza teknologikoa du helburu (RIS3 berrikuntza estrategia) Klima 2050 Estrategiak tokiko elikagaia sustatzeari ematen dion garrantzia ahaztu gabe

4.4. GIZA ESKUBIDEEKIKO KONPROMISOAREN ERREFERENTE, BIZIKIDETZAREN OINARRI GISA

Donostian giza-talde desberdinak bizi dira batera, bakoitza bere izaera, sinismen, eta abarrekin.

Gainera, iraganak oraina markatu duen hiri bat da, bertako biztanle eta giza-taldeek bizi izandakoa, eta gertakari horiek utzitako arrastoa ikus liteke. Iragan horretan, Giza Eskubideen urraketa larri horiek gure errealitatea izan dira denbora askoan zehar. Urraketa batzuk jarri izan dira aurrez egon diren beste urraketa batzuen justifikazioa gisa eta, ondorioz, urraketa batzuen legitimizazioa bilatu nahi izan da, edo beste kasu batzuetan biktima diskriminatu da segun eta kaltegilea zein den. Horregatik guztiagatik, garrantzitsua da Giza Eskubideen urraketa jasan duten pertsonak gogoratu eta ohoratzea, bai eta Giza Eskubideen errespetuan oinarritzen den kultura bat sustatzea ere.

Alderdi honek ezin gaitu izaera pedagogikotik urrundu, belaunaldi gazteenei begira; memoria bizirik mantentzeko horrela egin behar da. Helburu horrekin, dantza, antzerkia, musika, pintura, eta abar tresna bikainak dira emozioak eta balioak transmititzeko.

1947ko Adierazpen Unibertsalean jasotzen diren Giza Eskubideak egungo eta etorkizuneko bizikidetzaren oinarririk onena dira.

Hori dela eta, eskubide eta eduki hori ezagutzera ematea, eta horiek sustatu eta errespetua bultzatzea dira gure apustua hiri anitz, ireki, inklusibo eta adeitsu bat eraikitzeko.

Halaber, azpimarragarria da Donostiak duen konpromisoa garapenarekin eta, horren adibide da, hainbat elkartasunezko proiektutan parte hartu izana. Orain dela 30 urte heldu diren Saharako haurrak lehen aldiz Donostiara eta, gaur egun, Euskal Fondoren GGKEren eta Udalaren bitartez, beste hainbat herrialdetako proiektuetan ere parte hartzen dugu: India, Mozambike, Guatemala, Bolivia edo Palestina.

Hori dela eta, Donostiako EAJ-PNVk lan-ildo eta ekimen hauek proposatzen ditu:

Giza Eskubideen ezagutza sustatzea bizikidetzaren oinarri gisa.

- ESKURA proiektuarekin (Bakearen Etxeko Giza Eskubideei buruzko pedagogia baliabideen zentroa) egindako apustua gordetzea. ESKURAk nazioarteko bokazioa du eta Euskal Autonomia Erkidego guztia ordezkatzen du.
- Giza Eskubideen arloan lan egiten duten elkarteen artean lankidetza sustatzea, bai eta beraien eskubideak urratu zaizkien kolektiboen ere, hala nola LGTB kolektiboa.
- Gertuko edo urruneko urraketak ezagutzera ematea erakusketa, mintegi, eta abarren bitartez.
- Erakunde politiko eta akademikoekin parte-hartu eta lan egitea, ekintza eta estrategiak batera garatuz.
- Europar Batasunak, ONUk edo bestelako erakundeek Giza Eskubideen arloan antolatu dituzten nazioarteko egunak ohoratzea.
- Giza Eskubideen sustapena lotzea kultur ekimenekin eta askotariko sormenezko munduekin, zehazki, Giza Eskubideen Nazioarteko Zinemaldia, estatua maila erreferentziazkoa dena.

Gure hiriko Giza Eskubideen urraketa larria ezagutzera ematea.

Gaur egun, Donostia esperantzazko hiria da, 1960 eta 2010 artean hilketa politiko gehien jasan dituen euskal hiria izan arren. Gehienak, 107, ETAk, ETA pm, ETA militarrak eta komando autonomoak eragindako hilketak izan dira. Beste 4ak ATE, GAL, GAE edo BVE (Batallón Vasco Español) taldeek eragindakoak izan ziren; 11 hilketa segurtasun indarrenak eta 4 hiltzaile ezezagunenak. 186.000 biztanleko hiri bat izateko, hilketa asko dira.

Errealitate hau, eta honen ondorioak, iragan horri buruzko hausnarketa sakona merezi dute, oso gertukoa baita, baina zorionez gaur egun jada historia da.

2018ko maiatzean ETAk adierazi zuen bere desagertzea. Jada zazpi urte igaro dira atentatu eta biktimarik gabe, 2011. urtean su behin betiko su etena adierazi zuenetik. Bake une honetan, bizikidetzaren bidean pausoak eman ahal izan ditugu, oraindik ibili eta eraikitzeaz geratzen denaz jabetu oraina eta etorkizuna besarkatzeko, elkarren artean ulertuz eta iraganari ihes egin gabe.

Bide horretan aurrerapausoak emateko, honako hauek proposatzen ditugu:

Giza Eskubideen urraketa jasan duten biktimak babestea (terrorismoa eta bestelako indarkeria motak), ahotsa emanez eta martxan jartzen diren ekintzetan parte hartzeko aukera emanez.

Memoria, oroitzapenak eta duintasuna arte eszenikoekin batzen dituen proiektuak gorde eta sortzea. Adibidez, Adiorik Gabe proiektua.

Memoria-esparruak gorde eta handitzea, terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen eskura jarriz beraien senideak gogoratuko dituzten esparru publikoak.

Irailaren 13a gordetzea Memoriaren Egun gisa. Izan ere, orain dela lau hamarkada, egun horretan hasi zen gur hirian diktadura, askatasuna eta demokraziaren printzipioak kenduz.

Garapen bidean dauden herrialdeetan lankidetza-proiektuak martxan jartzea eta horiek babestea. Donostian lankidetza arloan ibilbide luzea egiteaz gain, hezkuntza eta balioak sustatzeko ekimenak garatu dira: elkartasuna, berdintasuna defendatzea, duintasuna eta munduko beste tokietako giza eskubideak.

Esparru honetan proposatzen duguna honako hau da:

- Diruz lagundu behar diren proiektuetan eta udaleko lankidetza-planean aintzat hartzea pobreziaren adierazlea edo/eta gure laguntza eragingarriagoa egingo duten beste irizpide batzuk.
- Udal taldeen artean akordioa sustatzea, kooperazioaren arloan baliabide gehiago jartzeko, % 0,7a gerturatzeko helburuarekin.
- Garapenerako laguntza eta hezkuntza programaren baliabideak handitzea, lankidetza proiektuak diruz laguntzeko. Hala, erkidegoetara iristen diren laguntzak gehiago izango dira.
- Sentsibilizazio eta hezkuntza proiektu berriak sustatzea, ekimen sozialean eta hiritartasunean oinarrituta; autofinantzaketa maila altua dutenak babesle edo bestelako formulei esker, edo baliabideak sortzeko gaitasuna dutenak. Udaleko baliabideen erabilera zuzen eta eraginkorra kontrolatzea, eta memoria eta txostenak argitaratzea.
- Errefuxituei laguntzeko gizarte-ekintzak sustatu, Mediterraneoko krisi humanitarioari aurre egiteko martxan jarri denaren antzekoak.

5. KUDEAKETA ERAGINKORRA eta GARDENTASUNA

EAJ-PNVk aurreko konpromiso guztiei eutsiko die: erakundea modu eraginkor, ireki, zorrotz eta gardenean kudeatzea; hainbat sentsibilitate, erakunde eta agente ekonomiko eta sozialekin adostutako aitzindaritzari eustea; eta hiritarren partaidetza eta hiritarren eta Udalaren arteko harremana sustatzea.
Egoki kudeatzeko ezinbestekoa da plangintza eta ikuspegi estrategikoak izatea; hirietan, gainera, adostasun politikoak handia izan behar du eta hiritarrek asko parte hartu behar dute. Gizarte Kontseiluak 2017an onarturiko E2020DSS Estrategia eguneratzea oso garrantzitsua da, eta izan da, erabakiak hartzeko. E2030DSS Estrategiaren lanak oso aurreratuta daude eta Gizarte Kontseiluan orain arteko adostasun- eta partaidetza-irizpideen arabera amaitzeko hitza eman dugu.

5.1. GOBERNANTZA

Azken urteetan mendebaldeko gizartea asko aldatu da, eta gure hiria ere bai.Aldaketa kultural, teknologiko, ekonomiko eta politikoak gertatu dira eta, ondorioz, “gobernantza egokia” zer den berriz definitu behar izan dugu. Hainbat pertsona eta erakundek iraultza teknologikoak eragin handiak izan dituela adierazi dute, besteak beste hirietako esparru politiko, ekonomiko eta sozialean. Gauzak horrela, “gobernantza onak” zer izan eta eduki behar duen berriz aztertu da. Hausnarketa horren ondorioz hainbat araudi sortu dira Europan, estatuan eta autonomia-erkidegoan, gobernantza ona osatzen duten elementuak zehazten eta lantzen dituztenak. Halaber, araudi sektorialak zehazten joan dira, honako esparru hauek aintzat hartuta: gardentasuna, informazioa eskuratzeko eskubidea, herri-administrazioetako langileen jarduera, eskubideak erabiltzea errazteko eta administrazioan eraginkortasuna hobetzeko teknologia berriak aplikatzea eta abar.
Orobat, administrazioaren eraginkortasuna hobetzeko harian, administrazioaren egokitzapena jorratzen duten kudeaketa publiko aurreratuko ereduak landu dira. Alde horretatik, Eusko Jaurlaritzak sortutako eta EUDELek onetsitako euskal eredua da nabarmengarria.

EAJ-PNV erabakigarria izan da aipaturiko berrazterketa egiteko, araudiak sortzeko eta kudeaketa-eredu berriak lantzeko, ez bakarrik herrialdean, baita udalerrietan ere, zehazki Donostian.
2015-2019 agintaldian Kudeaketa Publiko Aurreratuko euskal ereduan ezarritako ardatzei jarraikiz lan egin dugu: estrategia, zerbitzuak, pertsonak, berrikuntza, gizartea eta emaitzak.

Donostiarako gure eredua hiritarrentzat **zabaldutako gobernu bat** da, **kudeaketa egokia** eta **berrikuntza** oinarritzat dituena eta **ekintza eta zerbitzuei balio publikoa** ematen diena. Hori guztia **zuzentasun profesional eta instituzionala** aintzat hartuta.

5.1.1. Herritarrei irekitako gobernua: gardentasuna, informazioa eta partaidetza

Erronka nagusietako bat herritarrei irekitzea da, bi zentzutan:batetik, udal-gobernuak zer egiten duen, baliabide publikoak zertarako erabiltzen diren, martxan zer proiektu dauden eta abar jakitea; eta bestetik, herritarrak esparru horretan engaiatzea.

Informazioa (datuak, datu-multzoak, mekanizatzeko aukera, ustiapen digitala eta abar) hiru zerbitzu hauek elikatzeko oinarrizko bitartekoa da:gardentasuna, udalaren kudeaketa eta datu irekiak.

Horregatik guztiagatik, hauek dira gure proposamenak:

- **Datu irekien politika** sustatzen jarraitzea, sortzen diren edo udal-jardueran (zentzurik zabalenean) eragina duten datu guztiak hiritarren eskura jartzeko moduan tratatzeko. Horretarako, Donostia Data proiektuan aurrera egiten eta egungo Gardentasun Ataria lantzen jarraituko dugu.
- **Donostiako Udal Behatokia** lantzen jarraitzea, datuak bildu, landu eta aztertzeko tresna gisa, gero informazioa kudeatzeko eta zabaltzeko, udal-sailek eta hiritarrek eskatzen dutenean.
- Hiritarrekin **komunikatzeko kanal berriak** lantzea eta daudenak indartzea.Halaber, informazioaren publizitate aktiboa sustatzea, hau da, publizitate segmentatu, irisgarri, erabilgarri eta noranzko bikoa.
- **Kanal anitzeko komunikazio-eskaintzari** garrantzia ematea, nola komunikazio elektronikoari nola beste formatu berritzaile eta tradizionalei.
- Hiritarrei **kontu ematea** bultzatzea, dagoeneko martxan dauden proiektuak landuz (adibidez, Hitzak - Ekintzak).
- Hiritarrek informazioa errazago eskuratzea, **Udal Informazio Unitatealanduz**.
- **Hiritarrei** zer premia dituzten **galdetzea** eta konponbideak bilatzen **parte har dezaten** bultzatzea (*5.2. hiritarren partaidetza).*

5.1.2. Zerbitzu publikora bideratutako gobernua

Hiritarrek, udal-administrazioarekiko harremanari dagokionez, zerbitzu zuzen, irisgarri eta kaudimenduna jaso behar dute, hainbat komunikazio-formaturen bitartez bideratua. Horretarako, ezinbestekoa da, Udal Informazio Unitatea lantzen jarraitzeaz gain, edozein kontsulta, informazio-eskari edo izapidetze-premiari erantzun eraginkorraematea ziurtatzen duen arreta-zerbitzu bat egituratzea.

“Zerbitzu” (prestazio zehatzen eskaintza) kontzeptuaren gaineko ikuspegia oso zehatza da eta lotura zuzena du hiritarren itxaropen eta premiekin. Beraz, etengabe hobetu eta premien arabera egokitu beharra dago, betiere barne-zerbitzuak ahaztu gabe, horiek ziurtatzen baitituzte haiek kalitatezkoak izateko behar diren oinarrizko baliabideak.

Horregatik guztiagatik, hauek dira gure proposamenak:

Leihatila bakarreko zerbitzua izatea lortzeko hasitako lanari eustea eta, horretarako, hiritarren izapide eta komunikazio gehienak zentralizatzea (martxan dagoen HAZI proiektua).

Lehen mailako informazioa Hiritarrentzako Arreta Zerbitzuan aplikatzea, sail guztiei dagokien informazioa eta arreta bateratzeko eta eragozpenik ez sortzeko (martxan dagoen HAZI proiektua).

Ekipamenduen Plana gauzatzen jarraitzea. Plan horren asmoa da, besteak beste, udal-eraikinen kokapena kudeatzea, antolamendu-, funtzionalitate- eta eragingarritasun-irizpideen arabera multzokatuz, hiritarrek, Udalarekin izapideren bat egin behar badute, hiriko mutur batetik bestera joan behar izan ez dezaten.

Tresna eta metodoak egituratzea, barne-informazioaren trukea, hausnarketa-talde mistoak, beste unitate batzuek aprobetxa ditzaketen garapenen identifikazioa eta abar hobetzeko.

Hiritarrek zerbitzuen gainean dituzten iguripenak, zerbitzuen kalitatea, konpondu gabeko eskariak eta abar etengabe diagnostikatzea.

5.1.3. Kudeatzen duen gobernua: kudeaketa egokia eta berrikuntza publikoa

Errealitateari begiratuz gero, ikuste da udal-antolamendua gero eta konplexuagoa dela. Lan-esparruak zabalak direnez eta lana dibertsifikatu eta, ondorioz, antolamendua zatitu egin denez, gero eta beharrezkoagoa da kudeaketa-teknikak ezagutzea eta kudeaketa ziurtatzeko tresnak garatzea. Gaur egungo kudeaketak diagnostiko eta plangintza egokiak eta egikaritze eraginkorrak eskatzen ditu. Eta hori guztia etengabe autoebaluatu behar da.

Kontuan hartu beharra dago, gainera, esparru publikoko helburu eta hartzaileak, esparru pribatukoen aldean, oso desberdinak direla.

Orobat, erakundeak hobetzeko pizgarri nagusietako bat ikerketa sustatzeko edo ahalik eta baliabide gutxienekin emaitza hobeak lortzeko modu berriak sustatzeko plan zehatz bat egitea da. Berrikuntza jarrera bat da, eta jarreraren oinarria dagoeneko erakundean dauden agenteen lana aintzatestea da. Ordea, ezinbestekoa da, halaber, inguruneak konponbide berriak bilatzea bultzatzea.

Horregatik guztiagatik, hauek dira gure proposamenak:

Gobernu Plan bat egitea eta udal-erakundean zabaltzea. Plan horrek sail guztietarako kudeaketa-metodo bat eduki behar du eta Zeharkako Planak integratu behar ditu. Horrez gain, Planak hainbat urtetarako edo urtebeterako planetan antolatzeko modukoa izan behar du eta aurrekontuak zehazteko eta gero aurrekontu horien segimendua egiteko eta kontu emateko tresna gisa erabiltzaileko balio behar du. Tresna horren bitartez plangintzak egingo ditugu, prozesu estrategiko bakoitza zer unetan dagoen ebaluatuko dugu eta ikuspegi orokorra zein den jakingo dugu.

IKTak gehiago erabiltzea eta, zehazki, e-administrazioan aurrera egitea; e-administrazioa ez da teknologia berriak aplikatzea bakarrik, prozesuak eta zerbitzuak berregiteko bitartekoa ere bada.

Inguruko erakundeekin berrikuntzarako aliantzak sortzea, besteen ahaleginak errentagarri bihurtu ahal izateko, gutarrekin parte hartzeko eta kostu ekonomiko edota giza kostuak ekonomizatzeko.

5.1.4. Zuzentasuna, eraginkortasuna eta emaitzak lortzea

Gizarteak nabaritu behar du Administrazioa bere zerbitzura dagoela. Eta iritzi horrek hiritarren eta administrazioaren arteko harremanari eusten dioten gertakari frogagarrietan oinarrituta egon behar du.Helburua ez da baliabide publikoak eraginkorki erabiltzen direla ziurtatzea bakarrik: ahalik eta modu arduratsu eta gardenean jarduten dela adierazten duten datu iraunkorrak eman behar dira eta erakundeak zerbitzu-konpromiso etikoari eusten diola erakutsi behar da.

Aurreko egoera batean aurrera egiteko asmoa duen edozein planteamenduk gai izan behar du proposatutako aurrerakuntzaren mailak eta kalitatea neurtzeko.

Horregatik guztiagatik, hauek dira gure proposamenak:

Kargu publiko eta behin-behineko langileen etika- eta jokabide-kodea sortzea.

Zerbitzu publikoaren printzipio-kode bat sortzea, administrazioko langile guztiek bete beharrekoa, eta zenbateraino betetzen den jakiteko segimendua egitea.

Kontu emateko sistema bat antolatzea.

Hiritarrei gai hauen inguruko konpromiso eta emaitza instituzionalen berri ematea, aldian-aldian: euskara, berdintasuna, ingurumena, gizartea.

5.1.5. Kanpo Harremanak.Nazioarteko presentzia.

Hiriak, metropoli-eremuak eta beste lurralde-erakunde batzuk beren kanpo-garapenaren kudeatzaile zuzenak bihurtu dira, estatuen organo zentralek ezarritako monopolioa gainditutа. Estatuek protagonizaturiko eta kontrolaturiko nazioarteko harreman zentralizatu eta hierarkizatu batetik, beste eragile batzuek protagonizaturiko harreman horizontal eta deszentralizatuetarantz eboluzionatu dugu: hiriak, esaterako.

Globalizazioak nazioarteko konexioen balioa areagotu du, eta interdependentzia-harreman berriak sortzen ditu nazioarteko prozesuen eta lokalen artean. Hiriak dira ekonomia globalizatua argien nabarmentzen den gunea. Hiri-eremuetan ezartzen dira intentsitaterik handienarekin giza harremanak, ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena eta informazio-trukea, eta horrek hirien arteko nazioarteko harremanak areagotu egiten ditu.

Donostia beti kanpora irekita egon den hiria da. Izaera komertzialak, mugarekiko hurbiltasunak, kultur berrikuntzei eskaintzen dien arretak, gure hiria kosmopolita izatea eragin dute.

Donostiak harreman estuak ditu bost kontinenteetako hiri eta erakundeekin. Hainbat saretan parte hartzen du, hala nola Euskal Eurohiria, CIDEU (Garapen Estrategikoko Zentro Iberoamerikarra), Arku Atlantikoko Hirien Konferentzia, Innpulso Sarea (Zientzia eta Berrikuntza), RECE (Estatuko Hiri Hezitzaileen Sarea), Hiri Interkulturalen Nazioarteko Sarea, Human Rights Film Network (Giza Eskubideen Zinemaldia), European Cities Marketing, Mugikortasun Gaietarako Europako Hirien Sarea, Eurocities, Europako Kultur Hiriburuak, Mayor for Peace eta beste asko, berrogeita hamar inguru denera.

Donostia sei hirirekin senidetuta dago: Wiesbaden, Bojador (Mendebaldeko Sahara), Trento, Plimouth, Marugame eta Reno, eta lankidetzarako proposamenak egin dizkiote mundu zabaleko beste zenbait hiri garrantzitsuk.

Bestalde, Udalak aktiboki parte hartzen du Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Ekintzako Erakunde arteko Batzordean, eta Euskadi Basque Country estrategia partekatzen du.

Esparru honetan honako hau proposatzen dugu:

- Udalaren kanpo ekintzarako irizpideak ezarri, gure markaren eta balioen arabera hiria proiektatzen lagunduko digutenak.
- Europako hiriekin lankidetza-ildoak ezarri kulturaren, zientziaren, teknologiaren eta kirolaren alorretan. Kulturaren arloan, kontuan izan hizkuntza eta kultura propioa dituen herri bateko kide garela, eta Europan badirela ezaugarri bereko beste erkidego batzuk.
- Gure hiriko eta herrialdeko enpresei lagundu nazioartekotzeko estrategietan, ekonomia eta teknologiaren garapenera bideratutako bestelako entitateei ere bai, beren proiektuak garatzen ari diren beste hiri edo herrialde batzuetako erakundeekin lankidetza eta truke-harremanak sustatuz.

Udalean kanpo ekintzako atal bat sortu, alor horren kudeaketaz arduratuko dena, eta Udaleko beste atal eta entitateekiko ekintzak koordinatuko dituena.

5.2. HERRITARREN PARTAIDETZA

Gobernantzaz aritu garenean (5.1) adierazi dugu gobernua irekia izan dadin funtsezkoa dela herritarrek erabakiak hartzen parte hartzea eta EAJ-PNVk uste dugu hiritarren partaidetzaren gaiak zorrotzago hausnartzea merezi duela.

Jakinik gero eta moderno, aurreratu eta, halaber, konplexu eta zalantzagarriagoa den gaur egungo gizarteari erantzuteko gai izan behar dugula, ezinbestekoa da gure ekintza politikoaren eta herritarren arteko lotura aztertzea.

Ordezkaritza-jarduerak bere mugak ditu: hiritarrak ez dira engaiatzen, abstentzioak gora egin du eta jendeak, orokorrean, ez du politikan eta ordezkarietan sinesten. Gauzak horrela, agerian geratu da lau urtez behin toki-administrazioetan politika eta proiektu publikoak lantzeko ordezkariak aukeratzea ez dela nahikoa hautagaiak ordezten ditugun pertsonekin etengabe elkarrizketan ez bagaude.

Gainera, begien bistakoa da gure hirietako erronkak ez direla konpontzen bertako biztanleak engaiatu eta inplikatu gabe. Erantzunkidetasunak, hiritar gisa konponbideak bilatzeko eta ezartzeko engaiatzeak, gu guztiokin eta egiteko, bizitzeko eta gure ingurua eta gure burua aldatzeko modu berriak aintzat hartzeko gaitasunarekin du zerikusia.

Herritarrek parte hartzeak aldaketa kulturalak eragiten ditu esparru guztietan, erakundeetan eta biztanlerian, eta ekintza publikoari balioa gehitzen dio.
Aldaketa horiek dira lankidetza, elkarlana, askotariko elkarrizketak sortzea, sorkuntza, ideiak batuz herritarrekin eta elkarteekin konponbideak bilatzea, demokrazian sakontzea eta, berdintasuna oinarritzat hartuta, gaur egungo eta etorkizuneko errealitateak jarriko dizkigun erronka anitzei konponbide eraginkorrak bilatzea.

Herritarren partaidetzak, publikoa dena zehazteko egiteko modu, ekintza eta ekimenen multzo horrek funtsezko elementu bat behar du: elkarrekiko konfiantza sortzea, onespena, errespetua, enpatia eta abar oinarritzat hartuta.
Hori kudeaketa-eredu aurreratuen parte ere bada: bideak jartzea; harremanak alde batera uzten ez dituzten eta pertsonen eta haien bizipenen hurbil dauden prozedurak ezartzea; egunero sortzen diren ideia, arazo eta egoeren berri jasotzea, hizketa egitea eta arreta ematea; elkarrekin konponbideak bilatzea, engaiatzea eta egoki erantzutea eta jardutea.
Harreman horrek udaletan erabakiak hartzeko prozesua aberasteko, erabaki hobeak hartzeko, babes handiagoa izateko eta konponbide legezko eta eraginkorragoak hartzeko balio behar du.

Alde horretatik, ezinbestekoa da dinamika horiek zer gaitan, norekin, zein egoeratan eta zer baldintzatzailerekin aplikatu behar diren zehaztea. Funtsezkoa da herritarrekin argi eta garden jokatzea, partaidetza zer gai, arlo eta konpromiso-mailarekin bideratuko den azaltzea eta erabaki hori zergatik hartu den adieraztea, kontuan hartuta sistema politikoak zer aukera ematen dituen ordezkari gisa dugun erantzukizuna eta herritarren partaidetza bateratzeko.

Horregatik guztiagatik, ordezkari politikoak erabakiak hartzen dituztenean herritarrek ere parte har dezaten, Donostiako EAJ-PNVk proiektu zehatzak proposatzen ditu:

Lurralde-ikuspegiarekin:

- Ekialdeko barrutia sustatzen jarraitzea.
- Zubietari dagokionez, Zubietako Herri Batzarrarekin hitzarmena sendotzea eta hobeto funtziona dezan laguntza teknikoa eskaintzea.
- Igeldori dagokionez, Igeldoko toki-erakundea sortzea eta gainerako udal-taldeekin eta Igeldoko biztanleekin elkarrizketa- eta akordio-prozesu bat hastea.
- Aurrekontu parte-hartzaileak egiten jarraitzea. 2018an 3.250.000 euro jarri dira herritarren ekarpenetan (*aurrekontuei buruzko 5.3.3* atalean dago hori zehaztuta).
- Auzoko Plan Integralak egitea, egoeraren diagnostiko orokorra jasotzeko eta erabakiak hobeto hartzeko. Adibidez, Alde Zaharreko Plan Integrala.
- Auzo-elkarteekin eta auzoetan lan egiten duten agenteekin egiten den lana sustatzen jarraitzea eta kultur-etxeak topagune gisa indartzea.

Hiri-ikuspegiarekin, arlo sektorialean:

- Donostia Lagunkoia proiektuan hasitako lanari eutsiko diogu, hiria herritar guztientzako atsegina izan dadin antolatzeko. Alde horretatik, protagonista diren agenteekin elkarlanean arituko gara, adinduen eta haien elkarteen ahalduntzea sustatzeko, belaunaldiarteko harremanak eta jakintza eskualdatzea bultzatzeko, herritarrak zahartzaroaren gizarte-balioaren gainean sentsibilizatzeko eta zahartzen ari diren pertsonak gero eta konplexuagoa eta zalantzagarriagoa den errealitateari erantzuteko aktibo garrantzitsuak direla jabearazteko.
- Gizarte Kontseilua.Legealdi honetan emandako bultzadaren ondoren, zeregin aktiboa izaten jarraituko du eta hiriaren etorkizunaren ikuspegi estrategikoa zehazteko eta adosteko duen garrantzia indartuko dugu. Helburuetako bat E2030DSS Estrategia zehaztea eta onestea da.
- Aholkularitza Kontseiluak. Kontseilu horietako kideekin Udaleko gai eta erabaki garrantzitsuenen gainean informatzeko, eztabaidatzeko eta proposamenak sortzeko ildoari eutsiko diogu. Kontseilu bakoitzaren esparruari eragiten diotenak landuko dira bereziki.Halaber, dagozkien arautegietan urtero egiteko ezarritako bilerak egingo ditugu, gutxienez.
- Formula irekiak bilatzea, hiritarrengana hurbiltzeko eta gazte, ikasle eta abarren errealitatea ezagutzeko.

5.3. OGASUNA ETA FINANTZAK ZORROTZ KUDEATZEA

5.3.1. Diru-sarrerak

Udalak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoak eta biztanleen ongizatea zaintzeko behar diren inbertsioak honela finantzatzen dira:

Udalaren eta bere erakundeen **berezko zergen** diru-sarrerekin (OHZ, ondasun higiezinen gaineko zerga; gainbalioak (hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga); EJZ, ekonomia-jardueren gaineko zerga; ibilgailuen gaineko zerga; eta EIOZ, eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga), tasekin (hondakinak, ura, saneamendua, garabia…) eta prezio publikoekin(kirol-txartela, Musika Eskola…).

Presio fiskala orain amaituko den legealdian dagozkion parametroen oso azpitik egon da; izan ere, presio fiskala % 4,73 igo den bitartean, KPI % 5,76 eta BPGd % 11,7 igo dira.

Berezko diru-sarreren mailari dagokionez, donostiarrek zorrotz betetzen dituzte beren zerga-betekizunak, eta, borondatez ordaintzeko epean, zerga eta tasa nagusien bilketa-portzentajea oso handia da: batzuena % 97 baino handiagoa eta batez beste % 95ekoa.

Horregatik guztiagatik, hauek dira berezko diru-sarreran gaineko gure proposamenak:

- **Zergak eta tasak helbideratzeko** politikari eustea, bilketa egonkorra izatea ziurtatzeko (bestela oso zaila da hori lortzea) eta hiritarrei hainbat abantaila eskaintzeko (zorrak ez dira kobrantza exekutibora pasatzen (horrek zorrak handitzea eragiten du), kobrantza borondatezko epearen azken egunean egiten da eta administrazio-errekurtsoak jartzeko edo zorrak atzeratzea eskatzeko hobekuntzak daude).
- **Zerga-betekizunak helbideratzen** jarraitzea.
- Tasei dagokienez (historikoki oso defizitarioak dira), diru-sarreren zein gastuen arloan jardutea. Defizit gehien sortzen duena, hondakinak bildu eta tratatzekoa, 2011-2015 foru-legealditik jasotako arazoak konpondu ondoren, berriz orekatu ahal izango da, partzialki bada ere.
- 2019-2023 legealdian, **presio fiskalari definitzen duten indizeen** igoeraren azpitik eutsi behar zaie.
- Zergetan **hobariak** ezartzea edo daudenei eustea, nola sozialak (familia ugariak, familia gurasobakarrak eta baztertzeko arriskuan dauden familiak, betiere beren ahalmen ekonomikoa kontuan hartuta) hala jarduera ekonomikoa eta enplegua sustatzekoak.

Ekonomia Itunetik eratorritako zergen diru-sarrerak (PFEZ, BEZ, sozietateen gaineko zerga…), Foru Ogasunen berezko diru-sarrerak eta udal-administrazioari portzentaje batean dagozkionak**, alegia UFFF**, Udal Finantzaketarako Foru Funtsa. UFFF diru-sarrera oso garrantzitsua da gure Udalarentzat, baina ez Lurralde Historikoko beste udalerri edo beste euskal hiriburu batzuentzat bezain garrantzitsua.

Hona hemen zerga horien inguruko gure proposamenak:

UFFFen banaketan hiriburutza kontzeptua eguneratzea eskatzea, gure iritziz Donostian ez baita nahikoa kontuan hartzen.

Ondare-negozioetatik eratorritako ezohiko diru-sarrerak.

- Donostiak ez du berezko ondare handirik, ezta monetarizatu daitekeen hirigintza-jabetza handirik ere.Hori dela eta, arlo horretako aukerak ahal bezainbeste aprobetxatu behar dira.

Hona hemen zerga horien inguruko gure proposamenak:

- Emakida administratiboetan hobekuntzak egitea (Illunbe gunea, Arcco eraikina).
- Atotxa-Errekako partzelak saltzez amaitzea eta Eskuzaitzetan hirigintza-jarduerak eta obrak egitea; Eskuaitzeta Lurralde Historikoko industrialde handiena izango da.
- Aldakonean eta Infernuan hirigintza-jarduerak egitea, Udalak San Bartolome Muinoa sozietatean izango duen partaidetzarekin batera epe ertainera diru-sarrera garrantzitsuak izateko.

Beste diru-sarrera batzuk

Trafiko-isunen bitartez beste hiri batzuetan baino askoz gehiago biltzen da. 2018an isunen % 73 kobratu da. Udalerriko biztanleei jarritako isunak errazago kobratzen dira udalerritik kanpo bizi direnenak baino, gure bilketa udal-esparrukoa baino ez baita.

Hona hemen diru-sarrera horien gaineko gure proposamenak:

- Udalerritik kanpokoen isunen kobrantza-portzentajea handitzea eta, horretarako, bi aldeko edo alde anitzeko tresna juridikoak erabiltzea.
- Erakunde publiko eta pribatuen **babesa eta diru-laguntzak lortzea**, hiriko proiektu estrategikoak gauzatzeko, adibidez: Santa Klara uharteko itsas-argian Cristina Iglesiasen obra gauzatzea eta Donostia 2016ko ondareari merezi duen balioa ematea.

5.3.2. Gastuak

Alde horretatik, azpimarratu beharra daukagu gizarte-ongizatearen arloko udal-eskumenen mailak gora egin duela urtez urte.
Inbertsioei dagokienez, gogoratu behar dugu aurrekontu-araudiak ez digula uzten gastu arrunta ezohiko diru-sarrerekin finantzatzen; baina, aitzitik, diru-sarrera arruntaren parte bat inbertsioak finantzatzeko erabiltzera behartzen gaituela.

Hiritarrei ematen dizkiegun zerbitzuen kalitateari eta mailari eta diru-sarreren maila egokiari eutsi ahal izateko, jarduera hauek proposatu ditugu:

- Kudeaketa administratiboaren **eraginkortasuna** hobetzea.
- **Gizarte-politiketarako baliabideak blindatzen jarraitzea**, kalteberak diren edo premia bereziak dituzten hiritarren behar guztiei erantzun ahal izateko.

- Hainbat administrazioren eskutik gizarte-ongizateko gure eskumenak betetzeko **jasotzen dugun finantziazioa hobetzea.**
- Udalaren eta mendeko erakundeen **inbertsio-mailari** eustea. Izan ere, inbertsioak, gastu arruntak ez bezala, denboran aurrera egiten dute eta kalitate-jauzi handiagoak eragiten dituzte.
- Alde horretatik, asmoa da legealdi berrian aurrezki arruntaren % 5-10 inbertitzeko erabiltzea.
- **Kapital-sarrerak arinago gauzatzea**, heltze-aldia luzea den arren, eta segimendu berezia egitea.
- Halaber, gastua zorrotz lehenestea eta, gero, egikaritzea kontrolatzea.

  Kontabilitate nazionalean zorpetze-mailari eustea: gastu arrunten % 32 inguru. Zorpetze-maila baimendua baino askoz txikiagoa denez, etorkizunean ziklo ekonomikoa asko okertzen bada, zor handiagoa izango dugu eskura.

5.3.3. Aurrekontuak:

Aurrekontuak hirian aplikatu nahi diren politikak txukun eta kaudimenez gauzatu ahal izateko tresnak dira.

Horregatik, lehen ez bezala, garrantzi handia ematen diogu aurrekontuak dagozkien epeetan, hau da, aurrekontu-ekitaldia indarrean jarri aurretik egin, bideratu, eztabaidatu eta onartzeari.Amaitzera doan legealdian horixe egin dugu aurrekontu guztiekin.Helburu hori lortzeko ezinbestekoa da gure aurrekontuen finantziazio-tresnetako bat aurretik garaiz eta forman onestea:gure zerga, tasa eta prezio publikoen zerga-ordenantzak.

Aurrekontuei dagokienez, 2015-2019 legealdian hiritarren partaidetzan aurrerapauso handia eman dugu: hiritarrek botoaren bitartez zuzenean parte hartu dute, lehen aldiz. Orobat, azken bi ekitaldietan genero-ikuspegia aintzat hartu dugu, izapidetze-prozesu arruntean aztertuz.

Horregatik guztiagatik, konpromiso hauek hartu ditugu:

- Ekitaldi bakoitzeko **aurrekontua garaiz** egiten, izapidetzen, eztabaidatzen eta onartzen jarraitzea.
- Udal-zerga, tasa eta prezio publikoen zerga-ordenantzak garaiz egiten, izapidetzen, eztabaidatzen eta onartzen jarraitzea.
- Bi tresna ekonomiko horietan udal-talde politikoen artean ahalik eta adostasun handiena lortzea.
    - Herritarrek aurrekontuak egiten parte har dezaten erraztea, hainbat modutan:
    - Pertsona eta elkarte askorekin biltzea, haien asmo eta premien berri zuzenean jasotzeko.
    - Dauden Barruti Kontseiluei esku hartzen uztea.
    - Herritarrek zuzenean parte hartzea hirian finantzatzeko jarduerak proposatzen, eta inbertsio-aurrekontuen parte batean bozkatzea, bi urtez behin.
    - Hiriaren egoerari buruzko urriko eztabaidetan aurrekontu-ildo nagusiak aurkeztea.

- Hiriko Gizarte Kontseiluan eta gainerako Kontseiluetan aurrekontuak aurkeztea.
- Hiritarrei aurrekontuen berri ematea, jardunaldi ireki batean. Aurrekontuak bideratzerakoan **genero-ikuspegia sartzen jarraitze**a, azken bi urteetan bezala.

5.3.4. Kontratazio publikoa

Hona hemen arlo horretarako gure ekimenak:

- Udalaren kontratu administratiboetan arlo hauetako **klausulak** lantzen dituen instrukzioa egokitzea: gizartea, ingurumena, etika, lana, hizkuntza eta **berdintasuna** (*emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoak 4.4* puntuan landuta daude).
- Kontratu jakin batzuk enplegu-zentro bereziekin sinatzeko **gordetzea.**
- Hornitzaileei ordaintzeko ratioa 30 eta 60 egun bitartekoa izatea erakunde osoan, baita mendeko erakunde eta sozietateetan ere.
- Kontratazio publiko elektronikoaren ezarpena eta kontratazio-mahai publikoen streaming bidezko emankizunak finkatzea.
- Kontratazio-organo eta -mahaiei buruzko araudia berritzea, eraginkorragoak izan daitezen